

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-05-23
ASTELEHENA
322.ZENBAKIA
7.URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Mantxola eta Perosterenarekin lan egitea sekulako luxua izan da niretako"

Unax Ugalde | Aktorea | 15

Ken Zazpik liluratu egin zuen Amaia antzokia kantu zahar eta berriekin | 30



Bailarako umeak, pozik 3x3 saskibaloitxapelketan | 26



Bergarak bina berdindu zuen etxeo azken partiduan, joko txarrarekin | 24

UDAL ETA FORU

HAUTESKUNDEAK 2011

BILDU ERABATEKO GARAILE

- ▶ Bailarako zazpi herritan nagusitu da Bildu erabateko gehiengoarekin
- ▶ EAJk galdu egin du tradizioz harena izan den feudoa, Oñati; han ere Bildu gailendu da
- ▶ Aralar boto bakarraren aldearekin nagusitu da Elgetan, Bilduren aurretik | 2



Mikel Biain Oñatiko Bilduko zerrendaburua pozik, emaitzak jakin eta gero, Pago Uso elkartearen afaltzeko gertu. Goian, Garitano eta Urizar Donostian ospatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

BOTO GEHIEN JASO DUTEN ALKATEGAIAK

ARRASATE
Inaxio Azkarraga-Urizar
BILDU

BERGARA
Jesus Elortza
BILDU

OÑATI
Mikel Biain
BILDU

ARETXABAETA
Ana Bolinaga
BILDU

ESKORIATZA
Beñat Herce
BILDU

ANTZUOLA
Inma Beristain
BILDU

ARAMAIO
Ramon Ajuria
BILDU


ELGETA
Oxel Erostarbe
ARALAR

LEINTZ GATZAGA
Eugenio Otsoa
HAUTESLE ELK.

BOTOAK ETA ZINEGOTZIAK DEBAGOIENEAN

ALDERDIA	BOTOAK	%	ZINEGOTZIAK
Bildu	15.460	%46,62	60
EAJ	7.523	%22,68	24
Aralar	2.781	%8,38	10
PSE-EE	3.469	%10,46	8
LGHE	121	%0,36	7
Elizateak	270	%0,81	2
AA	177	%0,53	2
PP	1.417	%4,27	1
EB-Berdeak	998	%3	1
HI!	183	%0,5	-
Berdeak	85	%0,35	-

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK



ALDERDIA	BOTOAK	% AULKIAK
Bildu	119.084	%34,65
EAJ	80.838	%23,52
PSE-EE	58.947	%17,15
PP	34.210	%9,95
Aralar	17.223	%5,01
EB-Berd.	9.012	%2,62
HI!	8.667	%2,52

Errolda: 554.878
Boto emaileak: 347.772
Abstentzioa: %37,32

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

MUNDUMIRA



▶ Zoaz 32. orrialdera




OÑATI

AULKIAK BILDU 10 | EAJ 7 |

Bilduk gehiengo osoa lortu du EAJren gaineratik, eta EB, PSE-EE, PP, Aralar eta Hamaikabat ordezkari barik

BILDU Mikel Biain	BILDU Leire Egaña	BILDU Josu Lizarralde	BILDU Maialen Urtzelai	BILDU Xabi Pico	BILDU Ainhoa Martin	BILDU Manu Egaña
BILDU Nerea Zubia	BILDU Oier Irizar	BILDU Beatriz Gereka	BILDU Conrado Kernstock	EAJ Lourdes Idoiaga	EAJ Ainhoa Galdos	
EAJ Angel Biain	EAJ Andoni Gartzia	EAJ Jabi Baltzategi	EAJ Valentina Kortabarria	6.325 boto izan dira baliodunak: Bilduk 3.308 boto jaso ditu eta EAJk 1.936		
			Parte-hartzea %71,69 izan da Oñatin; boto zuriak 38 izan dira eta baliogabeak 37			



ESANAK

- MIKEL BIAIN** / BILDU: "Emaitzarekin oso pozik gaude. Ez genuen halakorik espero. Herritarren parte-hartzea bultzatuko dugu".
- LOURDES IDOIAIGA** / EAJ: "Nire kinielan aurreikusten nuen Bilduk irabazi ahal zuela, baina ez halako aldearekin. Guri, orain, oposizioan lan egitea tokatzen zaigu".
- MIREN ARREGI** / ARALAR: "Emaitzek erakusten dute aldaketarako gogoia zutela herritarrek, eta aldaketa hori ezkerreara egin dute".
- KARMELO PEREZ** / EZKER BATUA: "Parte-hartzea oso handia izan da eta horrek kalte egin digu gutxiengoan gauden alderdiei".
- AMAIA INTZA** / HAMAIKABAT: "Guretzako emaitzak oso txarrak izan dira, zinegotzi barik geratu gara. Aldaketarako apustua egin dute".

DI-DA BATEAN

Oñatiarrek aldaketaren alde egin dute

MIREIA BIKUÑA


Tsunami bat bezala heldu da Oñatira Bildu koalizioa: gehiengo osoa lortu dute. Oñatiarrek aldaketarako gogoia dutela erakutsi dute, eta boto-txartel gehienak Bilduren berde kolorekoak izan ziren. Ekainaren 11n, EAJkoa ez den alkatea izango dute oñatiarrek lehen aldiz.

ARETXABALETA

AULKIAK BILDU 7 | ARALAR 3 | EAJ 2 | PSE-EE 1

Bildu nagusi, botoen %44 jasota, eta haren atzetik Aralar eta EAJ, boto kopuruan gora eginda biek

BILDU Ana Bolinaga	BILDU Lore Martinez	BILDU Zigor Quintanilla	BILDU Maider Aizkorbe	BILDU Edorta Mendieta	BILDU Tomas Fernandez	BILDU Jose Luis Martin
ARALAR Inaxio Garro	ARALAR Olaia Sagredo	ARALAR Joxe Anjel Antxia	EAJ Mikel Uribebarria	EAJ Mari Karmen Astigarraga	PSE-EE Ainhoa Sagarribai	
Duela lau urte legez kanpo utzitakoen botoak jaso ditu Bilduk eta gora egin du nabarmen		EAJk gora egin duen arren boto kopuruan, ez du zinegotzi gehiagorik lortu		Alderdi sozialista zigortu dute herritarrek, eta zinegotzi bakarra izango du		Herritarren parte-hartzeak gora egin du eta %65ek bozkatu dute udal hauteskundeetan



ESANAK

- ANA BOLINAGA** / BILDU: "Oso pozik gaude. Orain dela lau urte legez kanpo utzi gintuztenok bozkatzeko aukera izan dugu eta herritarrek aldaketaren aldeko apustua egin dutela argi geratu da. Horregatik, eskerrik asko, guztiei".
- INAXIO GARRO** / ARALAR: "Oso gustura gaude emaitzekin, zinegotzi kopuruari eutsi eta botoetan %33 egin dugu gora".
- MIKEL URIBETXEBARRIA** / EAJ: "Orain dela lau urte baino boto gehiago jaso ditugu, baina emaitzak erdipurdikoak izan dira".
- AINHOA SAGARRIBAI** / PSE-EE: "Bilduri zorionak, gure partetik. Guretzako desastrea izan da".
- SALVA GONZALEZ** / EZKER BATUA: "Ez dira emaitza onak izan, baina gure mezua bidezkoa delakoan nago, eta borrokan jarraituko dut".

DI-DA BATEAN

Ezker abertzalearen aldeko hautua

MIRARI ALTUBE

Azken lau urteotan Udalean egotetik izan ez dutenen txanda hartu du Bilduk, eta ilusioa sortu du. Bestetik, Aralarrek ere gora egin du boto kopuruan, ia 200 boto gehiago. Argi dago aretxabaletarrek ezkerrearen alde egin dutela; ezkerria bai, baina abertzalea, PSE-EEk eta EBak botoak galdu dituzte-eta.

ARRASATE


AULKIAK BILDU 11 | EAJ 4 | PSE-EE 4 | ARALAR 1 | PP 1

Bilduk lortu du gehiengo absolutua, EAJk eta Aralarrek gora egin dute botoetan eta gainerakoak jaitsi



ESANAK

INAXIO AZKARRAGA-URIZAR / BILDU: "Herria gurekin dago; orain, lan egitea tokatzen zaigu".
JUAN KARLOS GARITANO / EAJ: "Lehen moduan gelditzen gara; lortu ditugun 300 boto gehiagorekin, bigarren indarra gara".
ARITZ ARRIETA / PSE-EE: "Zinegotziak mantendu ditugu; eskerrik asko gure boto-emaileei. Alternatiba izaten jarraituko dugu".
JOXE ETXEBERRIA / ARALAR: "Zorionak, errespetutik lan egingo dugulako guztiak".
ITZIAR LAMARAIN / ALDERDI POPULARRA: "Aurreikusita zegoen, baina Bilduk nik uste baino boto gehiago izan ditu".
ROBERTO BERRIO / EZKER BATUA: "Herritarren parte-hartzeak galdu du; lanean jarraituko dugu errebeldia eta aldaketan aldeko".



DI-DA BATEAN

Koalizioa abiapuntu duen agintaldia

AITZIBER ARANBURUZABALA

Aurreko agintaldi hasierako alderdiak izango dira oraingoan ere gobernuan; oraingoan, baina, koalizioa duela abiapuntu. EAJk eta Aralarrek gora egin dute; PSEK, EBk eta PPK, ordea, bototan behera. Bete al dira, orduan, aurrez egindako kinielak? Nireak, neurri handi baten, bai.

BERGARA


AULKIAK BILDU 9 | EAJ 5 | ARALAR 2 | PSE-EE 1

Erabateko gehiengoa lortu du Bilduk, EAJ mantendu egin da eta Aralarrek eta sozialistek zinegotzi bana galdu dute



ESANAK

JESUS ELORTZA / BILDU: "Demokrazia parte-hartzailean sinesten dut; erabateko gehiengoak ez du esan nahi besteekin berba egingo ez dugunik".
AINZANE OIARBIDE / EAJ: "Eskerrak eman nahi dizkiet boto emaileei; euren botoak ez dira alferrik izango. Bildu ere zoriondu nahi dut".
JUAN JE AMOSARRAIN / ARALAR: "Emaitza espero genuen. Bilduri zorionak ematea dagokigu".
MARI KARMEN BARRENETXEA / PSE-EE: "Emaitza gazi-gozaok izan dira. Gozoa boto gehiago atera ditugulako; gazia, zinegotzia galdu dugulako".
ANTONIA GALIOT / EB-BERDEAK: "Kezka dut, gure mezuak herritarrek eskatzen dituztenak izanda ere, ez garela haiengana iristen".
JOSU GARITONANDIA / BERDEAK: "Hauteskunde oso polarizatuak izan dira. Zinegotzirik ez lortu arren, herriaren alde lanean jarraituko dugu".



DI-DA BATEAN

Giltza beharrik ez du izango Bilduk

MONIKA BELASTEGI

Gobernuko atea zabaltzeko giltza beharrik ez du izango Bilduk. Erabateko gehiengoa lortuta indar nagusia izan da. EAJk mantendu egingo ditu aurreko agintaldiko bost zinegotziak eta Aralarrek eta PSE-EEk bana galdu dute. Berdeek, EB-Berdeak eta PPK ez dute zinegotzirik lortu.

ESKORIATZA

AULKIAK BILDU 6 | ELIZATEAK 2 | EAJ 1 | PSE-EE 1 | EB-BERDEAK 1

Sei zinegotzi lortuta, inoren laguntza barik gobernatu ahal izango du Beñat Herceren taldeak datozen urteotan



BILDU

Beñat Herce



BILDU

Arantza Iregi



BILDU

Joxe Mari Herce



BILDU

Leire Urtzelai



BILDU

Jose Angel Petralanda



BILDU

Itziar Martinez



ELIZATEAK

Iñaki Madinabeitia



ELIZATEAK

Iker Akizu



EAJ

Aitor Urrutia



PSE-EE

Jose Luis Cantero



EB-BERDEAK

Juan Luis Merino

Orain dela lau urteko partaidetza bera egon da aurten: %60 ingurukoa

Goizean eta azken orduan batu zen jende gehien Eskoriatzako kultura etxean

Azken orduan bozkatu ahal izateko korrika egin behar izan zuenik ere egon zen

Bizpahiru boto gehiago izanez gero, zazpigarren zinegotzia lortuko zuen Bilduk


ESANAK

BEÑAT HERCE / BILDU: "Oso pozik gaude, oso emaitza onak lortu ditugu; boto kopurua oso inportantea izan da. Lan egiteko momentua da; ilusioarekin hasiko dugu".

IÑAKI MADINABEITIA / ELIZATEAK: "Ez genuen espero bigarren zinegotzia ateratzea. Askotxo da guretako. Dena dela, pozik gaude, gure kudeaketa ondo ikusia delako".

AITOR URRUTIA / EAJ: "Bildu zoriandu nahi dut. Orain, balorazioa egin behar dugu".

JUAN LUIS MERINO / EB-BERDEAK: "Pozik gaude emaitzarekin. Eskua zabalik dugu Bildurekin akordioetara heltzeko".



DI-DA BATEAN

Herritarren babesa lortu du Hercek

MIRIAN BITERI

Eskoriatzan ere Bilduren kolore berdea da nagusi. Hautesleen ia erdiak koalizioaren alde egin zuen eta gutxiatik ez zuen zazpigarren zinegotzia lortu. Elizateek bereganatu zuten hori. Ezusteko ederra hartu zuen baseritarren elkarteak, ez zuen-eta espero. EAJk, ostera, 67 boto galdu ditu.

ANTZUOLA

AULKIAK BILDU 7 | EAJ 3 | PSE-EE 1

Bilduk jaso ditu Aralar-EB-Zutik koalizioak zituen zinegotziak; mantendu egin dituzte EAJk eta PSE-EEK



BILDU

Inma Beristain



BILDU

Iñaki Iartza



BILDU

Nagore Dos Santos



BILDU

Mikel Jauregi



BILDU

Maddi Elortza



BILDU

Santiago Etxezarreta



BILDU

Aritz Saidi



EAJ

Mari Eugenia Arrizabalaga



EAJ

Eliseo Garcia



EAJ

Mikel Lete



PSE-EE

Carlos Urresatarazu

Abstentzioak gora egin du ia bi puntu: %25,77 izan zen 2007an eta %27,07 aurten

2007an ANVk eta Aralar-EB-Zutikek batera jasotakoak baino boto gehiago jaso ditu Bilduk


EAJk behera egin du bototan: 2007an 370 boto izan zituen; aurten 288 (23,34)

PSE-EEK ere behera egin du, alde txikiagatik bada ere: bost boto gutxiago lortu ditu aurten

ESANAK

INMA BERISTAIN / BILDU: "Oraindik alkate izateko ideia ez nuen eginda eta orain sinesten hasi beharko dugu. Jendeak ulertu du gure proposamena, eta babesa eman digu. Orain, eskertu egin beharko diogu herriari emandako babes hori; eskertzeko modurik onena izango da ahalik eta lanik onena egitea Antzuolaren alde".

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA / EAJ: "Zorionak Bildukoei, arrasatu egin baitute leku guztietan. Eskerrik asko guri botoa eman diguten 288 antzuolarrei ere. Hiru zinegotziok daukagun guztia jarriko dugu eta saiatuko gara kanpainen esandakoak praktikan jartzen, nahiz eta Bilduk gehiengo izanda oposizioa zaila izango den".



DI-DA BATEAN

Herri hobe, elkarlanean


USOA AGIRRE

Gehiengo osoa lortu du Bilduk eta badirudi aurreko Udal Gobernuak martxan jarritako proiektuek jarraipena izango dutela. "Elkarlanean Antzuolaren hobekuntza parte hartzea" izan da Bilduren proposamena kanpainen. Ea kolore guztien artean lortzen dugun herri hobe.

ELGETA

AULKIAK ARALAR-IND. 4 | BILDU 3 | EAJ 2

Puntu bakarreko aldea egon da Aralar-Independenteen eta Bilduren artean; EAJk nabarmen egin du behera




Antzerako boto kopuruarekin (246) Aralar da zerrenda bozkatuena; lau zinegotzi lortu ditu

Boto bakar bat gutxiagorekin Bildu bigarren indar politikoa da; hiru zinegotzi lortu ditu

Elgetako EAJk nabarmen egin du behera; Basauriren taldeak zinegotzi bat galdu du

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Bilduren zerrenda izan da bozkatuena Elgetan: %42,87



ESANAK

Oxel EROSTARBE / ARALAR-INDEPENDENTEAK: "Boto bakarreko aldea egon da, baina aurrekoetan ere aldea ez da hamar botokoa baino handiagoa izan. Herritarrek hitz egin dute eta Aralar aukeratu dute hurrengo lau urteetan Udala lideratzeko".

KOLDO GOENAGA / BILDU: "Oso pozik gaude. Jende askok eman digu botoa eta orain boto horiek ondo gestionatzea tokatzen zaigu. Taldean aztertuko ditugu gobernu akordio posibleak. Nire iritzia pertsonala besterik ez da, baina posible ikusten dut".

PATXI BASAURI / EAJ: "Boto asko galdu ditugu, eta ez Elgetan bakarrik. Bildu tsunamiaren efektua orokorra izan da. Jeltzaleok hausnarketa sakona egin behar dugula uste dut".

DI-DA BATEAN

Herriak hitz egin du; orain, alderdien txanda


LARRAITZ ZEBERIO

Isiltasuna zen nagusi eta mahaiko presidentek azken botoaren berri ematearekin bat irten zitzaion oihua lehen bokalari: "Boto bakarreko aldea!". Gero, zalantza... eta segundo gutxira konfirmazioa; "Aralar aurretik". Bilduk espero zituen emaitza horiek? Eta Aralarrek?

ARAMAIO

AULKIAK BILDU 6 | ARAMAIOKO ALKARTASUNA 2 | EUZKO ALDERDI JELTZALEA 1

Gehiengoa lortu du Bilduk, eta emaitza txarra EAJk



ESANAK

RAMON AJURIA / BILDU: "Izugarrria izan da, oso pozik gaude. Herriari eman gura dizkiot eskerrak eta besarkada aurreko agintaldiko zinegotziei. Dakiguna ondo egiten saiatuko gara gu".


JOSE RAMON URIBE / ARAMAIOKO ALKARTASUNA: "Bi zinegotzi lortu ditugu, eta, egia esan, ez genuen askoz gehiagorik espero. Bilduren garaipenak baino sorpresa handiagoa eman dit EAJren emaitzak, ez nuen espero horrenbeste galduko zuenik".

IÑAKI NAFARRATE / EAJ: "Lehenbizi, zorionak Bilduri. Emaitza oso onak lortu ditu; igoera itzela izan du. Gure datuei buruz, esan beharra dago ez direla onak izan, aitorzen dut emaitza txarra izan dugula".

LEINTZ GATZAGA

AULKIAK LGHE 7 | PPO

Hautesleen elkarte nagusi



ESANAK

ASIER UGARTE / LEINTZ GATZAGAKO HAUTESLE ELKARTEA: "Lortutako emaitzarekin oso pozik gaude. Herriaren erantzuna eta eman diguten babesa guztiz baloratzekoa da. Talde berria izan arren, konfiantza jarri dute".

GIPUZKOA

Iñigo Urrutia | Kazetaria

"Bilduren garaipena uholde modukoa izan da"

"Batez ere Gipuzkoan Bilduren garaipena uholde modukoa izan da. Koalizio hori izan da garaile nagusia, herri gehienetan lehenengo boterea izan delako, edo lehenengo izateko borrokan ibili delako. Horren aurrean EAJK eta PSE-EEK marko instituzional

berri baten pentsatzen hasi beharko dute, Bilduk Gipuzkoan 500 zinegotzi inguru izango dituelako eta horrek sakoneko aldaketak sortuko dituelako.

PSE-EEK krisialdia ordaindu du, eta uste dut Aralarrek ez dituela jaso merezi dituen emaitza onak. Alde


horretatik, nire buruari galdetzen diot ea ze alde dagoen Bilduren eta Aralarren artean, hain zuzen ere, Bilduk egin duen gauza bera egin zuelako Aralarrek orain dela urte batzuk. Horren aurrean, esamolde hau etorri zait gogora: *Los últimos serán los primeros*".



DONOSTIA

ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
Bildu	8
PSE-EE	7
PP	6
EAJ	6
GUZTIRA	27

BATZAR NAGUSIAK



BIZKAIA

Fermin Etxegoien | Kazetaria

"Bildu sartu da, neurri handi baten, EAJren bizkar"

"Bilbon Azkunak gehiengo absolutua lortu du, eta bi zinegotzi gehiago lortu ditu; PPK eta PSE-EEK botoak galdu dituzte; eta, leku guztietan bezala, Ezker Batua-Berdeak eta Aralar ia guztiz desagertu dira. Bizkaiko hainbat herritan orain arte beste alderdi

batzuetako alkateak izan dituzte, eta Bilduk garaipen garbia izan du. Beraz, EAJtik boto asko Bildura joan dira.

Batzar Nagusietan, Bildu sartu da 11 ahaldunekin; PSE-EEK lau galdu ditu eta EAJK, bat; PP berdin geratzen da. Fenomeno berbera

ikusten dugu hor: Bildu sartu da, neurri handi baten, EAJren bizkar.


Euskal Herria ere bipartidismoaren sisteman sartu da: demokrazia kristaua eta sozialdemokrazia daude, eta hori bikoiztuta dago, Euskal Herriko eta Espainiako alderdiak daudelako".



BILBO

ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
EAJ	15
PP	6
Bildu	4
PSE-EE	4
GUZTIRA	29

BATZAR NAGUSIAK



ARABA

Felix Iriarte | Kazetaria

"PP eta PSOE oztopatu ditu abertzaletasunak"

"Sorpresa izan da Araban. Zalantza edo helburua zen PPren eta PSOEren indarra norbaitek oztopatuko ote zuen, eta ikusi da baietz. Alderdi bi horien helburua izan da gehiengo lortzea, Aldundiari begira, behintzat, baina Bildu sartzeak zapuztu egin zuen

aukera hori. Eta emaitzetan argi ikusi da hori.

Gasteizko Udaleko emaitzetan ere antzeko efektua lortu da. PPK eta EAJK lehengo zinegotzi kopuru berak mantendu dituzte, bederatzina, baina PSOE hirurekin gelditu da eta Bilduk sei lortu ditu.


Argi ikusi da abertzaletasuna indarrez sartu dela Araban, eta hori oso garrantzitsua da Arabako ikuspuntutik, sorpresa izan da. Eta horixe nabarmenduko nuke nik, abertzaletasunaren presentzia handitu egin dela dela Arabako Aldundian eta Gasteizko Udalean".



GASTEIZ

ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
PP	9
EAJ	6
PSE-EE	6
Bildu	6
GUZTIRA	27

BATZAR NAGUSIAK



NAFARROA

Xabier Letona | Kazetaria

"PSE-EEK Nafarroako lehendakaritza eduki dezake"

"Hasiera bateko irakurtekan UPNren garaipena nabarmendu behar da, berriz ere. Orokorrean esanda, Nafarroako Legebiltzarrean UPNk eta PPK, bien artean, 23 eserleku lortu dituzte, eta, ondorioz, orain bezala geratu dira. Horren aurrean, aldiz,

Bilduren garaipena azpimarratu behar da. Eskuinak antzerako emaitzak lortu dituen neurrian, abertzaleek eta aurrerakoiek hobetu egin dituzte euren emaitzak. PSE-EEK, aldiz, behera egin du. Hala ere, gutxiengo batekin, UPNk PSE-EEren


sostenguarekin gobernatuko duela uste dut. Hala ere, berriro ere, 2007an bezala, aukera dauka PSE-EEK abertzaleekin batera gobernatzeko, baina ez dut uste horrelakorik egingo duenik. Iruñeko Udalean ere antzerako irakurketa egiten dut".



IRUÑEA

ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
UPN	11
NaBai 2011	7
PSE-EE	3
Bildu	3
PP	2
EB	1
GUZTIRA	27

BATZAR NAGUSIAK



Debagoieneko batzarkideak

Guztira, zortzi debagoiendar izango ditugu Batzar Nagusietan. Zazpi Gipuzkoan eta bakararra Araban: Iñaki Nafarrate aramaiorria.



MARTIN GARITANO
BILDU

1963an jaiotako bergararra. Egin eta Gara egunkarietako goi kargu izana, gaur egun Info7 irratian dihardu. Goienako iritzi zutabegile izandakoa.



ANDER RODRIGUEZ
BILDU

28 urteko arrasatearra. Goiz hasi zen politikan; 20 urterekin zinegotzi irten zen jaioterrian. Batzarkidea ere izan da azken agintaldian.



MIKEL BIAIN
BILDU

34 urte betetzear dituen oñatiarra. Enpresa Zientzietan diplomaduna da MUn. CANen dihardu lanean, Arrasaten. Politikan berria da.



GOIZANE ARANA
BILDU

Zarautzen bizi den 34 urteko arrasatearra. Zarauzko AEK-ko irakasle izateaz gain, Urola Kostako AEK-ko zuzendari ere bada. Politikan berria da.



AINZANE OIARBIDE
EAJ

46 urte ditu. Erreñeriarra da jaiotzez, Bergaran urte asko badaramatza ere. Euskal Filologia ikasi du. Batzar Nagusietako kidea izan da azken agintaldian.



Martin Garitano eta Pello Urizar garaipena ospatzen. | ARGAZKIPRESS

Bildu indar handiarekin sartu da Batzar Nagusietan

Bilduk 22 batzarkide lortu ditu, EAJk 14, PSE-EEK 10, PPK 4 eta Aralarrek bat eta H1!-ek bat bera ere ez

ARRITXU BARRUSO | DONOSTIA

Gipuzkoan Bildu izan da lehenengo indarra Batzar Nagusietarako hauteskundeetan: 119.084 boto lortu ditu (%34,65), eta 22 batzarkide. EAJ izan da bigarren indarra 80.838 botorekin (%23,52) eta 14 batzarkidarekin. PSE-EEK 58.947 boto eskuratu ditu (%17,15) eta 10 batzarkide. Laugarren postuan geratu da Alderdi Popularra 34.210 botorekin (%9,95) eta lau batzarkidarekin. Azkenik, Aralarrek batzarkide bat lortu du 17.223 botorekin (%5,01).

Deba-Urola barrutian alderdi bakoitzak lortutako datuen arabera, zazpi debagoiendar egongo dira datorren legegintzaldian Batzar Nagusietan: Bildukoak lau (Martin Garitano, Ander Rodriguez, Mikel Biain eta Goizane Arana), EAJ-koak bi (Aintzane Oiarbide eta Ainhoa Galdos) eta Aralarrek bat (Rebeka Ubera).

Bildu "indartsu" sartu da

Ahaldun nagusi Markel Olanok emaitzen gaineko balorazioa egin zuen atzo gauean Diputazioaren egoitzan. Bildu Gipuzkoan "indar-

tsu" sartu dela esan zuen: "Indartsu sartu da eta uste dut bizi dugun bake prozesuak eragina izan duela horretan". Gaineratu zuen pozik daudela EAJk Gipuzkoan indarra eta espazioa mantendu dituelako.

Bildukoak ere oso pozik agertu dira emaitzekin. Martin Garitanok adierazi zuen, Atano III. pilotalekuan, atzoko gaua "historikoa" zela eta Euskal Herria aurrera doala.

DEBAGOIENKO EMAITZAK

ALDERDIA	UDALA	BATZAR NAG.	ALDEA
Bildu	15.460	15.111	- 349
EAJ	7.523	8.210	+ 687
PSE-EE	3.469	3.658	+ 189
Aralar	2.781	2.636	- 145
PP	1.417	1.491	+ 74
EB-Berdeak	998	924	- 74
Hamaikabat	183	331	+ 148

► EAJk izan du boto alde handiena udal eta Batzar Nagusietako botoetan.

► Bildu izan da alderdi bozkatuena udaletan zein Batzar Nagusietan.

► Aralarrek eta EB-Berdeek botoak galdu dituzte udaletatik Batzar Nagusietara.

► PSE-EE eta PP, hobeto Batzar Nagusietan.

LEHEN BISTARAZOA

Lau hanka

MIKEL IRIZAR

Iritzi-emailea

'goiena.net/blogak/piperrautsa'



Urtetan aipatu izan da borroka armatuaren amaierak biharamun berria ekarriko zuela. Ba etorri da, hemen dago biharamuna. Atzoko emaitzek ez dute duda izpirik uzten.

Bilduren sarrera inork uste baino indartsuagoa izan da, EHren emaitza onena ere gainditu du. Gipuzkoan bereziki tokatzen zaio ardurak hartzea, are gehiago Debagoienean, Oñati ere iraultzea lortu ondoren. Baina koalizio bat besterik ez da, eta osagai nagusia independenteak dira. Ea Sortu azkar legeztatzen duten ezker abertzalea antolatze aldera. Aralar orokorrean ahuldu egin da galdi horren bigarren idia izateko, baina Nafarroan zutabe garrantzitsua da.

Sozialistek jipoi dezentea jaso dute, nahiz Bizkaiko ezker aldean txukun eutsi. Donostian Bilduk irabaztea oso mingarria izango zaie. Eta emaitza hauek Patxi Lopez bera ere ahultzen dute, honek ere diskurtsoa moldatu beharko du egoera berrira. Ze PP bere aliatuak ez baitu irabazi sozialistek galdutakoa, Araban salbu. Mapa berriak ez du indartu unionisten aliantza.

Jeltzaleek emaitza txukunak izan dituzte, Gipuzkoa kenduta. Hemen gertatu den iraultza ez da badaezpada izan. Jarraitzen dute EAEn alderdirik bozkatuena izaten eta Bizkaian garaiezina dira. Baina jaurlaritza galdu ondoren, gal ditzake Gipuzkoako eta Arabako aldundiak, uste dut mugituko dela hori gerta ez dadin.

Finean lau hankako mahai bat utzi dute hauteskunde hauek: ezker eta eskuin abertzaleak, ezker eta eskuin unionistak. Base-rritarrok badakigu zaldiek lau hanketatik bat altza egiten dutela lo egiteko, hiru hanka beti daudelako orekan. Baina gure gizartea lau hankakoa da, aspaldian egin zaion argazkirik benetakoan argi erakusten du hori. Ardura handia beharko da guztien aldetik egoera zail hau bideratzeko.

Hauteskunde gauean hitz zentzuzkoak entzun dizkiet ordezkari politikoei. Iraun dezala.

"Aspalditik egin zaion argazkirik benetakoena dugu"

Batu versus Bildu tsunamia

ENEKO AZKARATE | 'eazkarate@goiena.com'

Bilduren eta EAJren arteko muturreko lehian, lehenengoak nagusitu dira. Eta zelan! Nekez imajina genezakeen tokietan ere bai, Oñatin esaterako, jeltzaleen ohiko gotorlekuan. Iraulketa handia izan da. Sekulako tsunamia, lurraldean eta hiriburuan batik bat. Bilduk irabazi duen ibarreko zazpi herrietan erabateko gehiengo lortu du. Muturren arteko lehian, bestalde, txikiak desagertze bidean: H1!, EB-Berdeak... Kudeaketa-lan gozoa izango du Bilduk ibarrean. Ez horren samurra lurraldean. Lehen indarra izanik ere, itunak beharko ditu, eta hor, jeltzaleak, sozialistak eta popularrak arerio nagusi. Edo lagun. Galtzak bete lan Garitano bergararrak.

AINHOA GALDOS
EAJ

45 urteko oñatiarra. Goi mailako piano ikasketak eginda ditu. Azken bi agintaldietan zinegotzia izan da jaioterrian; eta batzarkide azkenekoan.

IÑAKI NAFARRATE
EAJ

Aramaioarra. 59 urte. Industria Maisu ikasketak. Zortzi urtez izan da alkate, jaioterrian. Azken urtean, Toki Administrazioako diputatua izan da.

REBEKA UBERA
ARALAR

Elgetarra. 39 urte. Haur Hezkuntzan eta Heziketa Fisikoan diplomaduna da. 2003an zinegotzi kargua hartu zuen jaioterrian, eta 2005etik batzarkidea da.

ERABILTZAILE GEHIAGO

GOIENA.NET

Egunetik egunera, erabiltzaile gehiago.

ESKERRIK ASKO.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

Irudi bitxi asko 'M-22'-an

- ▶ Jende asko ibili zen, batez ere goizean; umeak, txirrindulariak... denetarik egon zen
- ▶ Botoa irudimenez betetako protesta bihurtu zuten batzuek, marrazki eta guzti
- ▶ Gaueko ospakizunek bukaera borobila eman zioten arazorik gabeko egun bati



Jende gehiena goizean joan zen; argazkian, Uarkape. | JOSETXO ARANTZABAL



Umea, aitaren zain. | JA.



Bildukoak garaipena ospatzen Eskoriatzako plazan. | MIRIAN BITERI



Arrasaten, botoak zenbatzen; Blanca Roncal, ahaldun gisa. | JA.



Belgikako telebista publikokoak, Goienaren lana jarraitzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Protesta-boto oso grafiko bat ere egon zen... | JOSETXO ARANTZABAL



Bergarako Bilduko jarraitzaileak pozik, garaipena ospatzen. | IMANOL GALLEGO

Nortasun agiria etxean utzita joan zen bat baino gehiago botoa ematera

Nortasun agiria etxean utzita joan zen bozkatzera bat baino gehiago Eskoriatzan eta Aretxabaletan, esaterako, eta berriz joan ziren etxera bueltan agiriaren bila. Oñatin, bestalde, EHNarekin bozkatu gura izan zuen herritar batek Olakuako hauteslekuan, baina mahaiko presidentek NA onartu zion bakarrik.

Ustez hautesleku zuzenera joan ziren, baina ezin botoa eman

Aretxabaletako bi anaia hautesleku berera joan ziren botoa ematera, baina batak K-z zuen abizena eta besteak C-z, eta mahaia ezberdinetan bozkatu zuten. Arrasaten, hautesleku okerrera joan zen herritar bat, helbide berrian erroldatu barik dagoelako, eta bueltan joan zen.

Postaz botatzeko eskaera egin, eta atzo joan zen bozkatzera

Antzuolako hiru lagunek ez zuten botoa postaz bidali, horretarako eskaera egin arren. Horietako bat bozkatzera joan zen atzo, domeka, baina zerrendan agertzen zen pertsona horrek postaz emanda zuela botoa. Udal idazkariarekin kontsultatu ostean, ez zioten botoa ematen utzi.

Pertsona nagusiak goizean eta eguerditik aurrera, gazteak

Goizeko lehen orduetan pertsona nagusiak izan ziren, gehienbat, botoa ematera joan zirenak Oñatin eta Eskoriatzan, behintzat. Eguerdian gazte gehiago ikusi ziren Aretxabaletako hautesleketan, adibidez. Botoa lehen aldiz eman zuen arrasatear gazte bat ere eguerdian joan zen.

Gurpildun aulkian egonda, ezin heldu hautesontzira

Arrasatear bat gurpildun aulkian joan zen bozkatzera, Uarkapera. Mahaira heltzeko ez zuen arazorik izan, baina bai botoak berak bakarrik ontzian sartzeko, ez zelako hautesontzira heltzen. Mahaiako presidentek hartu zizkion botoak eta hark sartu zituen bakoitza bere ontzian.

HAUTESLEKUAN
BERTAN

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?



TXARO URIBETXEERRIA
ESKORITATZA

"Herritarrendako gauzak ondo egitea eta gure beharrak kontuan hartzea".



JULITA GONZALEZ
ARETXABALETA

"Ahal dela, gauzak lehen baino hobeto egitea, orain artekoa ondo egon arren".




RAKEL LOPEZ
ARAMAIO

"Oletakoa naiz eta, baztertuta dagoenez, gure eskakizunak kontuan hartzea".



MIGUEL ANGEL CID
ARRASATE

"Langabeen alde egitea: ikastaroak egiteko laguntzak ematea eskatzen diot".



ROBERTO LOPEZ
ARRASATE

"Herriarendako ongizatea eta lana eskatuko nioke alkate berriari".



ARANTXA GALDOS
OÑATI

"Alkateari eskatuko diot herri mailan hobetzea eta ondo lan egitea".



PEDRO MARI URETA
BERGARA

"Beti bezala, EAJri eman diot bozka. Eskatuko diot herriaren alde lan egitea".



FERNANDO MARTINEZ
BERGARA

"Eskatuko nioke herriaren beharrei begiratzea, langabezian eta ekonomian".



JOSE MARI ZUBIAURRE
ELGETA

"Orain artekoek esandakoa bete dute. Horrela jarrai dezaten bozkatu dut".



Inaxio Garro, bozkatzen (Aralar). | JA.



Itziar Lamarain, kabinan (PP). | JA.



Juan Luis Merino (EB-Berdeak). | JA.



Amaia Intza botoa ematen (Hamaikabat). | JA.




Jesus Elortzak Martinez de Iralan bozkatu zuen (Bildu). | JA.



Aintzane Oiarbide, pilotalekuan (EAJ). | ARANTZAZU EZKIBEL




Aritz Arrieta institutuan bozkatu zuen (PSE-EE). | JOSETXO ARANTZABAL



RK^UZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



RK^UZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala

RK^UZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO RK^UZ
ARETXABALETA 1950-2011 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Kepa Elortza: "Sei hilabete eduki naute euskaraz ez artatzeagatik kontsulta baten zain"

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak 'Euskara gaixo' dokumentala egin du Osakidetzan euskara eskubideak zertan diren erakusteko asmoarekin

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Osakidetzan euskara eskubideak zertan diren erakusteko asmoarekin Behatokiak dokumental bat egin du. Horretarako, 2011n jasotako lehenengo salaketa hartu dute abiapuntutzat; hain zuzen, Kepa Elortza oñatiarraren kasua. *Euskara gaixo* 22 minutuko ikus-entzunezkoan Elortzak azaldu du zelan behin eta berriz ukatu dioten Osakidetzan euskarazko zerbitzua.

Sei hilabete kontsultaren zain
Gaztelaraz zergatik egin behar duen galdetuta, Elortzak dio ez dagoela erantzunik, euskaraz egin behar duela, baina ezin duela: "Sei hilabete eduki naute euskaraz ez artatzeagatik kontsulta baten zain".

Behatokiako zuzendari Garbiñe Petriatik azaldu du Behatokiak dituen 10 urte hauetan konturatu direla kexa gehien duen eremua osasungintza dela. Horregatik erabaki dute Osakidetza gaineko dokumentala egitea.

"Hizkuntza politika baten bueltan zer-nolako plangintza



Garbiñe Petriati eta Kepa Elortza, Goiena telebistan. | GOIATZ ARANA

egiten den oinarrituta dago egoera", dio Petriatik. Adibidez, gaztelera jakitea derrigorrezkoa da, baina euskara jakitea meritua besterik ez da. Euskararen normalizatorako plangintza lidergo falta eta borondate falta dagoela uste du Petriatik. "Ondorioak larriak dira bi aldeetatik: batetik, herritarren osasunarekin jokatzan

delako; eta, bestetik, eskubideak urratzen direlako, bigarren mailako herritar bilakatuta".

Eskubideen defentsan

Bere eskubideak defendatzearen errudun sentiarazi dute Elortza askotan: "Ez, ez naiz errudun sentitu, baina hori esan didate. Kontsultatik alde egin nuelako

ESANAK

"Ez naiz errudun sentitu, baina hori esan didate"

KEPA ELORTZA | HERRITARRA

"Hizkuntza politikaren ondorioa da Osakidetzaaren egoera"

GARBIÑE PETRIATI
BEHATOKIKO ZUZENDARIA

errua niri bota zidan medikuak, jendearen dirua xahutzen nabilela esanez". Petriatik dio Elortzarena muturreko kasua dela, baina ez dela kasu bakar bezala kontsideratu behar.

Lurraldebusko txartelak Kutxan kargatu ahal dira

A.E. | ARRASATE

Lurraldebusko txartel bakarraren erabilzaileek leku gehiagotan kargatu ahal dituzte txartelak eguztina ezkeror: orain arteko 330 puntuz gain, Kutxaren 124 sukurtsaletako 153 kutxazainetan ere karga daitezke. Erabilzaileak erraz ezagutuko du zein kutxazainetan egin ahal izango duen, txartela kontakturik gabe irakurri eta kargatuko duen irakurgailua izango dute-eta kutxazainek. Irakurgailuan jarri beharko da txartela, kutxazainaren pantailak adierazten duen moduan. Kutxaren txartela sartu behar den artekanen azpian dago hori.

Txartel bakarra kutxazainean kargatu nahi duenak Kutxako txartela edo beste finantza etxeren batena sartu behar du, eta menuan *Donostibus* edo *Lurraldebus* aukera sakatu. Behin Lurraldebus hautatu, eta Kutxazainak aukera emango dio bai txartela kargatzeko eta bai saldoa jakiteko. Txartela kargatu ondoren, bi txartelak jaso, eta eragiketaren agiria eskura egongo da.

Ibilgailu elektrikoa erostearren 2.000 eta 6.000 euro arteko laguntza eska daiteke

Dirulaguntza ibilgailua erosi eta matrikulatu ondoren jasoko dute bezeroek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Espainiako Industria Ministerioak 2.000 eta 6.000 euro arteko dirulaguntza emango dizkie ibilgailu elektrikoa erosi, errentan hartu edo *leasing* bidez finantzatu gura dutenei. Denetara, 72.000.000 euro ditu aurten horretan gastatzeko, eta kanpainak iraungo du abenduaren 1era arte edo partida hori bukatu arte.

Espainiako Gobernuak automobil elektrikoa bultzatzeko plan integralaren barruan dago deialdia, 2010-2012 aldirako planean, hain zuzen ere.

Salneurriaren %25

Laguntzak eskatzeko baldintzak hauek dira: ibilgailua berria izan behar da eta elektrizitatez hornitu behar dira guztiz edo zati baten; turismoak, furgonetak, autobusak, furgoiak, motozikletak eta lau gurpiletakoak izan daitezke; pertsona fisikoek, pertsona juridikoek eta administrazio publikoek eska ditzakete laguntza; eta dirulaguntza izango da fakturan agertzen den zerga aurreko salneurriaren %25.

Ibilgailuak duen burujabetza elektrikoaren arabera, handiagoak edo txikiagoak izango dira diru-



Mercedes-Benz-ek egindako Vito E-Cell furgoneta elektrikoa. | EUSKO JAURLARITZA

laguntzak. Hala, 15 eta 40 kilometro arte egin baditza baka- rrik baterian gordetako elektrizitatearekin, 2.000 euro eska daitezke; 40 kilometro baino gehi- goko eta 90 kilometro arte egin baditza, 4.000 euro; eta 90 kilo- metrotik gora egin baditza, soilik energia elektrikoa erabi- lita, 6.000 euro.

Saltzaileari eskatu

Nahi duten saltokiek emango dute deskontua egiteko aukera. Onuradun izateko, saltzaileari

esan behar zaio, eta hark kudea- tuko du dirulaguntza eskaria, sistema elektronikoa baten sartu- ta. Dokumentazio jakin bat ere eman behar da. Eskariak egiten diren ordenan atendituko ditu Industria Ministerioak.

Dirulaguntzen gaineko era- bakia hiru hilabeteko epean har- tu beharko da. Edozein modutan, onuradunak ibilgailua erosi eta matrikulatu duela justifikatu beharko du, 2012ko maiatzaren 31 baino lehen. Orduan jasoko du dirulaguntza.

Eroskik 85,3 milioi galdu zituen iaz, 2009an baino %12,7 gehiago, eta %3 gutxiago saldu zuen

L.K. | ARRASATE

Eroski Taldeak 85,3 milioi euro galdu zituen 2010ean, taldeak Balio Merkatuaren Espainiako Batzordeari (CNMV) bidalitako txostenak dioenez. Hirugarren urtez jarraian ditu Eroskik emaitza negatiboak. Gainera, 2009koak baino emaitza oker- ragoak dira hauek: urte horretan, 75,6 milioi galdu zituen, eta aurten, %12,7 gehiago.

Eroskiren negozioei dago- kien zenbateko garbia -hau da, iaz saldutakoa- 7.377,9 milioi- koa izan zen; urte barruko tasan, %3 gutxiago saldu zuen.

Goi-karguek, 2,4 milioi

Taldearen galera kontsolidatuak 64,6 milioi-koak izan dira, aurre- ko ekitaldikoak baino zertxobait hobeak: 68,9 milioi-koak izan ziren haiek. Ebitda (irabazi operatiboa balio-galera eta amortizazioa ezarri aurretik) 419 milioi-koak izan zen, 2009koaren "ia berdina", esan du taldeak.

Taldeak CNMVri bidalitako txostenean, eta *Cinco Dias* eko- nomia aldizkariak esaten due- nez, 2009ko ekitaldian, 15 goi karguek, taldeko buruek, 2,386 milioi kobratu zituzten.

Gutxiago zor du

Prensa ohar baten, Eroskik esan du emaitza horiek nazioarteko kontabilitate arauak agintzen duten operazio batek "oso baldintzatuta" daudela. Arau horiek behartuta, 70,5 milioi euroko gainkarga dutela esan du.

Eroski Taldeak esan du ban- kuekiko duen zorra 454 milioi- tan txikitu duela. 2009an kendu zuenari gehituta, Eroskiren zorra 761 milioi txikiagoa da. Bestetik, koste operatiboak 50 milioitan txikitu ditu.

Gaineratu du bere super- merkatu eta hipermerkatuetan gehien saldutako produktuen prezioak txikitu egin zituela, eta bere markako jatekoak %34 gehiago saldu dituela.

DATUA

419

MILIOIKO EBITDA

lazko irabazi operatiboak, balio-galera eta amortizazioa ezarri aurretik, 419 milioi-koak izan ziren, 2009an bezala.

EUSKAL HERRIA

LA REVISTA

EUSKAL HERRIA

montaña • culture • naturaleza • viajes

ALDIZKARIAK AURKEZTEN DU



Mundumira

Munduko kulturen festa

ELGETA . DEBAGOIENA

LOS DELINQUENTES

JEREZ DE LA FRONTERA

Dub Inc

FRANCIA

The Billie Jeans

EUSKAL HERRIA

Habana con Kola

CUBA

Mery May + AIN_1

ARRASATE

Andrakan

EUSKAL HERRIA

Kukubiltxo

EUSKAL HERRIA

La Troba Kung-Fú

CATALUNYA

Jorginho

MÚSICA BRASILEÑA

Moya Kalongo

MOZAMBIQUE

Oreindik

EUSKAL HERRIA



EH-ko BOULDER Txapelketa

NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN AZOKA, UMEEN GUNEA, KALE ANIMAZIOA, ARTISAUTZA ETA MUNDUKO ZAPOREAK, ELKARTASUN FOROA...

www.mundumirafesta.com - 902 18 14 71

Maiatzak 27, 28, 29

ANTOLATZAILEAK

EUSKAL HERRIA

www.euskalherria-aldizkaria.com




BABESLE NAGUSIAK



BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

'http://goiena.net/iritzia/'



Eskerrik asko, euskalariok!

Beti euskararen alde egin biharrekuak aittatzen dihardut lerro hauetatik, euskarak danon ekimena bihar dabela. Zirikatzaile lan horri laga eta, gaurkuan, eskerrak emoteko garaia dala argi daukat. Ikaragarrixa izan da debagoiendarrok Korrikan egin dozuena eta aportaziñua. *Maitatu, ikasi eta ari* zan lelua, eta zelako ondo bete dozuena ez dago sinisterik be!

Korrika 17k euki daberen indarraz ase geratu naiz (AEK-ko guztiok). Argazkixak eta imajinak ikustia besterik ez dago, demasa izan da! Millaka eta millaka lagun lekukuaren atzetik, euskararen aldeko oihartzuna oraindik be entzuten da Debagoieneko bazter guztietan. Denean ikusi da euskalakarion indarra, kemena eta gogua.

Antolaketa euki ditugun hamar batzordietan lanian ibilli zarienez guztion aipamena egittia eziñezkua litzake horrelako testu batian: ehundaka lagun, hutsaren truke, euskara maitatzen dozuelako! Eta batzordietan ez ibilli arren, ekitaldixetara jua zarienez, eta korrika laguntzaile egin zarienez, eta arropa erosi dozuenok, eta kilometroak diruz lagundu dozuenok (ia 100 kilometro finantzatu dozuez gure eskualdian).

Baloraziño nazionalian aittatu genduan moduan, kohesiñuaren Korrika izan da hau; bestelakuak neurri nabarmenian albo-ala denon elkarlana bultzatzeko balixo izan dabena.

Herri hau euskararen inguruan kohesionatzeko ordua dala ikusi da; horren premiña dagoela ikustarazi doze. *Maitatu, ikasi, ari... Euskalari!* oiñu bateratua izan da, herri batena, oilloipurdixa sortu doskuna guztioi.

Eta oihartzun hori bizirik mantentzia da, orain, lortu bihar doguna; bakoitzak bere euskeria maitatu, landu eta erabili, pausotox bat gehixago eguneroko. Euskal Herri euskalduna lortu arte, *euskaraz bizi gura dot* ozenki esan eta, gero, ekintzetan erakutsi.

Eskerrik asko, euskalariok!

"Ikaragarrixa izan da debagoiendarrok Korrikan egin dozuena lana"

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | 'goarana@goiena.com'

Jaien denboraldia hastera doa

Mozkortuta heldu ginen, azkenean, atzoko eguneroko; politikarienez mezuekin lepo beteta. Bazirudien hamabost egunean ez dela besterik izan! Zenbatu ezinezko proposamen zerrenda egin dute batzuek eta besteek, esatea beti izan baita egitea baino errazagoa. Hemendik aurrera ikusiko dugu esandako horiek guztiak non geratzen diren. Baina, zorionez, gure begiak ez dira soilik horretan jarrita egongo. Ia ahaztuta bageunden ere, maiatzaren 22a pasata, gogoratu dugulako asteburuan Mundumira jaia ospatuko dela Elgetan, errugbi taldearen garagardo festa egingo dela Arrasaten edo pare bat aste barru hasiko dela herrietako festen denboraldia, Bergarako Mendekostekin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendaria Nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailatuko arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbide (Diselnuia), Mireia Larragaia (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketatzailea Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larragaia, Amalia Mundiniano, Zieritza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetzea@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

©D. Erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako inntzien erantzukizunik.

KALE INKESTA

Zer iritzi duzu M-15 mugimenduaren aurrean?



MELINA LOPEZ
ARRASATE

"Ondo egiten dute. Garaia zen horrelako zer edo zer egiteko. Ez dakit ezer lortuko badute ere baina nire babesa dute."



JOSE DE LA TORRE
ARETXABALETA

"Primeran egiten dute. Politikariak ez dute ezer egiten eta. Gazteek eta gurasoek ez dute erraz, beraz, kexa daitezela."



RAQUEL DE DIEGO
ARRASATE

"Protesta baketsua den bitartean, ondo. Protesta egiteko modua ona da eta horrelako protesten alde egon izan naiz beti..."



ASIER BENGOA
ARRASATE

"Kostau zaie mugitzea. Protesta egiteko arrazoiak badaude eta ondorioz ados nago egiten daudenarekin."

HANDIK ETA HEMENDIK

Baserriko Unibertsitateak

Pello Zabala

http://berria.info/blogak/pellozabala/

-Han ikasi nian nik nekien dena, eta dakidan pixka.

Holaxe esan ohi du gure ermano baserritarrak. Eta ongi demostraturik dauka, ezta?, zeozer badakiena... eman ohi dizkigun lezio garbiak gogoan hartuta...???

-Zazpi mila bai!, esan ohi zuen, berriz, nire ikaskide berastegiarrak. Harentzat lumero handi perfektuena *zazpi milakoa* izan zen beti! *Zazpimila* lezio ikas daitezke baserri inguruan, erreparatzen jakinaz gero. *Zazpi* eta *zazpi* hamalau, ezta? Arantzazuko harrihandioak ere, halaxe baitira, hamalau, alajaina!

Baina, bidezidorretan galdu baino lehen, noan nindoanera.

Beti ikasten da gure unibertsitatean eta, atzo gaubidean, ilargia azaltzeko ordu ta erdi falta zirenean, laino matazak mendi lepoetan narras zetozenean, nire lagunen bila joan nintzaien... ohera baio lehen, nire *oserbatorio partikularrak* bixitatzea gustatzen baitzait. Esan dezadan, despistatuen

esnatze aldera, *behatoki meteorologiko formalagoarekin* batera, beste dozenerdi bat baditudala baserritarragoak, alegia, unibertsitate berezixko horretakoak.

Jakingose extuturen bat lasaitzeka, aurrera dezadan, zizareena eta armiarmena parototalean duzkadala aspaldian. Negu ta udaberri, beren laneko sasoi propialenetan, auskalo non gorderik ditudan...

Ez al ziren hiriburuetako protestaldietara joango...!

Ba, hori: banoa nire behatoki bateko lagunengana, dakidalako, gaueko lehen orduotan, egunpasako ilunetik, beste ilun argiagara ateratzeko usadioa gordetzen dutela ia arrats-gauero.

Jo dut estazio batera, eta ez dela trenik ateratzen han... jo dut beste geltoki batera eta, han ere ez dela bagoirik ateratzen...

Bueno! Bihar goizean *harrapatuko dizkiat ilunerako bidean, beren egunpasa egiteko tunelerako abiadan...* Halaxe pentsatuta, gaur goizean... atzoko bera!

Ez dela ez bagoi ta ez trenik iritsi inongo estazio ta geltokitara.

Atzo gauean, ezko pixka bat bazenez, baita pentsatu ere


nik, nire barraskilo maiteak, gauerdialderako berandutuko zutela beren irteera, auskalo zerengatik, ezer abisatu gabe! Baina, gaur goizean, gau ia osoan dena lainoturik egon ostean, kale nabarmena egin didatela jabetzean... "hauek zer dabilzkit?", esan diot nire buruari. Eta...

Nik bai failatzen dudala eta beste behin poto egin dezakedala ohartzuz, pranta naiz beraien aldera... hasi naiz arrazioa non eduki dezaketenen bila... eta, makurtu naiz belarretara, ikutu eta ferekatu dut belazea... iasta!

Belar zorua dena lehor lehor, seko idortua, lainotza zegoen arren... Haiek bai listo ta argiak, ni ez bezala. Erlaino ezkoa izan balitz, kanpora irtenik ziren denak. Laino seko umel gutxikoa zetorrela jakin, haiek! Alferrik irtengo zirela gau tapatu zikin ilunera.

Ez hala, gaur bertan irten diren bezala, zeru garbi intzaduna etorri izan balitz...!

Barraskilo ta bare, gau argien zale baitire, intzabidea baitute bide ta bidezidor labainkor...!!! Beste napar hark zioena datorkit gogora: "Ez zekitek hitzeitten baino hemengo batzuk baino pertsonagoak ittuk".



Eusko Jaurlaritza Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Maialen Lujanbio | Bertsolaria

"Baztertuta sentitu ez naizen arren, zenbait aldiz modu berezian tratatu naute"

- ▶ Arte Ederretan lizentziaduna da eta ahoz nahiz eskuz espresatzea gustuko du
- ▶ Gizonez betetako munduan arrotz sentitzen den arren, gustura dagoela dio

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Maialen Lujanbio (1976, Hernani) askotan ikusi dugu txapela buruan, baina inoiz galdetu diogu gure buruari zenbat kosta zaion horraino iristea? Bertsolarien elitean –beste toki askotan bezala– ezohikoa da emakume bat ikustea? Horren guztiaren eta gehiagoren gainean galdetu diogu bertsolariari, Antzuolara *Bertsolaritza genero ikuspegitik* hitzaldia egitera etorri dela aitzakiatzat hartuta.

Bertso eskolan hasi zinenean ohi-koagoa izango zen neskaren bat edo beste ikustea, baina elite mailan gauza bera da?

Bueno... hau guztia prozesu bat izan da, eta denbora kontu bat ere bat da. Egia da bertso eskolan neska gehiago ginela, baina, hala ere, ehunekoei begiratuz gero, mutilen alboan oso gutxi ginen. Gaur egun ere oso emakume gutxi gaude bertsolaritza mailan. Baina kontuan hartzekoa da azken 30 urte hauetan egin dugun bidea luzea izan dela.

Zer-nolako erantzuna jaso zenuen bertsolari izan nahi zenuela esan ondoren?

Egia esan behar badut, nik ez dut horrelakorik inoiz esan. Bertsolari izatea ez da inoiz nire helmuga izan, guztia joko bat bezala hasi nuen. Bertso eskolan talde polit bat sortu genuen eta pixkanaka-pixkanaka joko huts bat izatetik txapelketak irabaztera pasa nintzen. Familiak ogibidetza hartu zuen arren, niri kosta egin zitzaidan, talde giroan egiten nuen zaletasun edo jolas bezala hartzen nuen-eta.

Zure buruak jolas horren barruan jarraitzen duen sentipena duzu?

Ez, orain ez. Hori hasierako urteetako kontua zen. Baina, lehen esan bezala, bertsolari izatea ez zen nire ametsen barruan sartzen. Dena den, gaur egun, bertsolaritza nire ogibidea da, ogibide polita, gainera!

Zuk aipatzen duzun ibilbide horretan, inoiz baztertuta sentitu zara?

Baztertuta ez, hori gehiegi da. Beti sentitu izan naiz ondo tratatua, baina ezberdin tratatu nautela esango nuke. Lehen urteetan egoera oso ebidente zen, gai-jartzaileek ere egoera hori markatzen zuten, egoera kuriosoa zen. Talde gaztea osatzen genuen eta, gainera, barruan hainbat emakume geunden... egoera oso ezohikoa zen. Guztiek formalitateak betetzen bazituzten ere, ez ziren oso harreman naturalak, gu elementu arrotzak ginen.



Maialen Lujanbio. | GALDER IZAGIRRE

Egindako ibilbide horretan inoiz apurtzaile sentitu zara?

Ez, egia esan, nik lehen esan dudana moduan, ez dut nire ibilbidea aurreikusitako bidea eginez joan naiz. Nire ustez, bertsolaritza jende helduz beteta zegoen eta gu talde gaztea ginen. Horrek

"Gaur egun ere emakume gutxi dago bertsolaritzan"

"Bertsolaria, gaztea eta emakumea izateak molde asko apurtu zituen"

apurtu zituen eskemak, emakume izateak ere bere pisua zuen. Dena den, bidea nahigabe egin dugu, ez zen gure asmoa. Ongi pasatzen genuen elkarrekin eta ongi pasatzen genuen bertsoan; horregatik egin genuen aurrera.

Arrakasta horren bidean prentsak nola tratatu zaitu?

Bueno, nire ustez, askotan kazetariak titular handi baten bilaketa horretan galdu egiten dira. Delikatua izateko gogo horretan, ezberdintasuna agerian utzi dute. Momentu honetan ez daukat egoera zehatz bat buruan, baina Gipuzkoako txapela irabazi eta gero, oraindik bertsolari baten konfirmazioaz hitz egiten zen. Normala da nork bere burua definitzeko orduan erreparoa izatea, baina gainontzekoek... Hala eta guztiz ere, ez diot inori errua egotzi nahi, ziur nago askotan zeharka edo nahigabe egin dako lana izan dela.

Zu ez zara toreatzailea, baina zure alaba bertsolari izatea gustatuko litzazuke?

Argi utzi nahi dut ez dudala gaizki pasatu, gorabeherak izan ditut eta zailtasunak ugariak dira, baina oso mundu ederra da. Horrelako mundu aberas-

"Bertsolaritza oso mundu aberasgarria da; luxua da hori ezagutzea"

"Diskriminazio positiboa arriskutsua da, aho biko labana da"

garri bat ezagutzea luxua izan da. Demaseko jendea dago eta atzera begiratu oso une eta bizipen aberasgarriak izan ditut hemen.

Bertsolaritzan ikusleek pisu handia daukate. Zuk harreman berezirik sumatu duzu inoiz?

Publikoarengandik beti jaso izan dut esker ona, animoa eta estimua; batzuetan, gehiegizko errakzioa izan dela ere esango dute. Askotan, ikusleen gehiegizko animoak segurtasun falta transmititzen ziren neska bati babesa erakusteko modu bat izan da, mutilen aldean laguntza estra bat beharko bage-nu bezala.

Hortaz, diskriminazio positiboa zer den badakizu?

Diskriminazio positiboa aho biko labana da. Formaz eta txalo kopuruan ikusleen berotasuna sumatzen duzun neurrian, askotan, gero, emaitzen arloan ez da erantzun positibo bera lortzen, hor dago gakoa.

Inoiz guztia bertan behera lagatzeko tentaldirik izan duzu?

Krisiak guztiok izan ditugu. Gaztetan, behin baino gehiagotan guztia uzteko gogoia izan dut, baina kontuan izan behar da bertsolaritza ez dela mundu erraza. Gaztea zarenean, kosta egiten da lagunak kalean utzi eta herri-rik herri bertsoak kantatzen ibiltzea.

Ezberdintasun hori inoiz desagertuko da?

Nik uste dut baietz, bide onetik goaz. Gauza formaletan asko aurreratu da, baina subkontzientean dauden moldeak oso gogorrak dira eta fosilduta daude, horiek apurtzea ezinbestekoa da.

Eta egungo gazteak nola ikusten dituzu?

Bidearen erdian harrapatu gaituzte, beste ikuspuntu bat daukate. Akaso, adin kontua izango da, baina, euren iritzia ezberdina denez, ziur nago aberasgarria izango dela.

Erabili dituzu zure bertsoak berdintasuna eskatzeko?

Noski, mezua bidaltzeko beste modu bat da. Askotan, egiten diren txisteen edo deserosoak egiten zaizkidan egoeren kontra kantatu dut. Hori, detektatzen ditudanean! Ziur nago nik ere, noiz edo noiz, bertsolari bezala hanka sartu dudala.

Amaitzeko, joko labur bat: Berdintasuna berbak zein errima ditu?

Askatasuna, nortasuna, laguntasuna.

Eta emakumea hitzak?

Umea, begirunea, xumea, umea.

HERRIAK



Ugalde, Mantxola eta Perosterena, filmeko zuzendariarekin batera, kultur etxeko sarreran. | J.A.



Proiektzioaren ondoren egindako eztabaida. | A. ALKORTA



JOSETXO ARANTZABAL

UNAX UGALDE
AKTOREA

"Euskal Herrian kontatzeko asko daukaten pertsonaia handi asko daude"

Madriken bizi igartzen da, eta Euskal Herria faltan botatzen duela dio Unax Ugaldek. Estreinaldien eta proiektu berrien artean tartetxo bat egin eta Oñatira hurbildu zen egubakoitzean.

Nolakoa esperientzia izan da *Bon Appetit* filman bertokoeekin lan egitea?

Kriston luxua da. Lagunak egin gara eta gustura lan egin dut haiekin. Aitor Mantxolaren kasuan, iaz bi film egin nituen berarekin eta orain beti nahi izaten dut argazki zuzendaria bera izatea.

Euskal Herria faltan igartzen duzu?

Gurasoak eta bestelako gauza batzuk bai. Eta tarteka etortzen naiz bisitak egitera. Baina momentuz nire bizitza Madriken dago.

Zein proiektu dituzu orain eskuartean?

Bi film mexikar estreinatu behar ditut eta datorren astean Italiara noa. Bertan Dario Argento zuzendari italiarra-ekin *Dracula* filma egingo dut, hiru dimentsiotan. Hau primizia da.

Zein pertsonaia gustatuko litzazuke egitea?

Euskal Herrian kontatzeko asko daukaten pertsonaia handi asko daude.

OÑATI

Unax Ugalde, Mantxola eta Perosterena, eskutik helduta

Proiektzioa eta gero, herritarrek zine-forumean gogotik parte hartu zuten

ASIER ALKORTA | OÑATI

Biserarekin eta eguzkitako betaurrekoekin. Horrelaxe agertu zen egubakoitzean Unax Ugalde, *Bon Appetit* filmeko gainerako partaideekin batera Santa Marinako

plazara. Aitor Mantxola eta Aitor Perosterena, filmeko argazki zuzendaria eta atrezzo ardurduna, hurrenez hurren, aldamean zituela, kultur etxean sartu ziren denak batera.

Bon Appetit filma proiektatzen zela aitzakiatzat hartuta, filmeko partaideekin zuzen-zuzenean hitz egiteko aukera eduki zuten oñatiarrek egubakoitzean. Eta herritarrek ez ziote aukera horri muzin

egin. Aretoa guztiz bete ez bazen ere, jende asko batu zen.

Herritarrek galdezka

Filmeko partaideak proiektioari sarreratxoa egin eta gero, herritarrek *Bon Appetit* ikusi zuten. Amaitu zenean, aurrez-aurre, zalantzak eta bestelako bitxikeriak komentatu zituzten artistekin.

Parte-hartzea handia izan zen eta Ugalde, Mantxola, Perosterena eta David Pinillos zuzendaria gustura geratu ziren hizketan.

22:00etan, kalera irtetean, Ugaldek zaleak agurtu zituen.




ISABEL REBOLLO
OÑATI

"Filma asko gustatu zait. Sentimenduak erakusten dira eta horrelako gauzak behar ditugu gaur egunean. Orokorrean, filma gizatiarra iruditzen zait."



ALICIA DIEZ
OÑATI

"Pozgarria izan da filmea baina era berean tristura ere erakusten du. Sorpresa hartu dut. Egia esan ez nuen entzunda nolakoa zen eta harritu egin nau."



FELIX SANCHEZ
OÑATI

"Polita izan da eta gustatu zait. Espero nuen filmea nire gustukoa izatea eta horrela izan da. Ez naiz damutzen etorri izanaz; filmak bete egin nau."



SHEILA FRITZ
OÑATI

"Oso polita izan da. Hizkuntza ezberdinak entzun ahal izan ditut filmean eta asko gustatu zait. Ezer jakin barik etorri naiz eta gustura irten dut."

BERGARA

Magalik Galiziatik entzuteko moduan abestu zuten 'Maite zaitut'

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Saku batetik ortzadarraren koloreak dituen bandera eta kaxa batetik Magaliri oparitzeko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen panpinak atera zituen egubakoitzean Porrotxek Bergaran, Aranzadi ikastolako jolastokian. Magiarekin hasi zen Magali Murua-mendiaratzen aldeko ikuskizuna. Bakarrik agertu zen oholtza gainean Porrotx, magia egiteko behar zituenak eskuartean zituela. Bere aurrean, baina, ume mordo bat, guraso mordo batekin batera.

Tartean zeuden Magaliren aita eta izeba bat ere.

Maite zaitut

Herriko hainbat musikari eta ume igo ziren laster oholtza gainera, eta *Maketume*, *Maite zaitut* eta *San Fermin* kantuak abestu zituzten. Ozen abestu ere, Magalik Galiziatik entzuteko moduan. Eta azken kantu horrekin korrika hasi ziren denak, Porrotxen zezenak ez harrapatzeko. Zapatu goizean, Magaliren aldeko merkatu txikia ere egin zuten.



Porrotx, musikariak eta umeak oholtza gainean, eta beste ume pila bat behean, ikuskizuna jarraitzen. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE | Udalak 13 lanposturako deialdia egin du | 16

ONATI

Fin aritu ziren 180 gaztetxo eskolarteko bertsolari txapelketan, Oñatin

Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Elgoibar, Urretxu, Dosnostia eta Alegiko neska-mutilak izan ziren

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketaren 31. ekitaldia egin zuten egubakoitzean Oñatiko Txantxiku ikastolan.

Bi zatitan banatu zuten ekitaldia; lehenengoan, 14 urtetik beherako eskoletako ikasleek bertso paperen lehiaketa egin zuten, eta bigarrenean, 14-18 urte arteko zortzi gaztetxok bat-bateko saioa egin zuten.

Guztira, 180 neska-mutikok hartu zuten parte eta fin-fin aritu ziren guztiak euren onena ematen.

Bertsopaper lehiaketa

Bertsopaper lehiaketan hauek izan ziren gaiak: *Lore sorta bat biltzen ari naiz* eta *Etxeko balkoian baratza txiki bat egokitu dugu*. Neska-mutiek gai horiek oinarritzat hartuta, bertsoak idatzi

behar izan zituzten, eta gehienek *Maritxu nora zoaz* bezalako doinu ezagunak erabili zituzten bertsoak idazteko. Beste batzuek, berriz, habanera doinuak hartuta saiatu ziren euren bertsoak idazten, eta batek baino gehiagok ez zuen astirik izan bertsoak bukatzeko, irakasle baten esanetan.

Bat-bateko saioa

Bat-bateko saioan ez zen Debagoienerako ordezkariarik izan, aurretik ez duelako inork izenik eman. Donostiako, Urretxuko eta Alegiko gazteek hartu zuten parte eta bertso saio arruntetan bezala jendearen aurrean bat-batean bota zituzten bertsoak.

Gaztetxoak pozik

Parte hartu zuten gaztetxoak oso gustura ibili ziren. Mikel Mendizabal Ikastolen Elkartereko Ber-



Bat-bateko saioan parte hartu zuten zortzi gaztetxoak oholatza gainean. | JOSETXO ARANTZABAL

tsolaritzako koordinatzaile arduradunak hauxe esan zigun: "Eurendako gauza berria da eta gogoz hartzen dute; gustura etortzen dira".

Hirugarren kanporaketa

Guztira, lau kanporaketa egin behar dituzte txapelketan eta Oñatikoa hirugarrena izan da.

Lehenengoa Oiartzunen egin zuten, bigarrena Zarautzen, hirugarrena Oñatikoa izan zen eta datorren egubakoitzean izango da azken kanporaketa Lazkaon. Finala Azpeitian izango da ekainaren 3an. Zorte on, guztioi!



Gaztetxoetako bat jende aurrean bertsoa botatzen. | J.A.

ELGETA

Motor hotsak nagusitu dira Espaloian eta Bolatokian, beste behin ere

Motor gidariek gerizpeak hartu dituzte, beroari aurre egin nahian

ASIER ALKORTA | ELGETA

Larruzko txupak, botak, kateak eta motorrak. Osagai horiekin ospatu zen zapatuan IV. Motor Jaixa. Goizean motor gainean osteratxoa egin eta gero, motor gidariak eta motorzaleak, denak batera, Bolatokian elkartu ziren, bazkaltzen. Aurtengo nobedadea bazkaltzeko paella erraldoia zen, eta harrera bikaina izan zuen.

Urদিনak, beltzak, apaingarriz betetakoak... Denetariko motorrak egon ziren ikusgai Bolatokian eta Espaloian. Baina guztiek ezaugarri bat zuten: garbi-garbi eginda zeuden, erakusketarako prest.

Egurditik gauera

Tragotxoa hartu eta bazkaltzeko mahaia prestatu ostean, paella inauguratzeko ordua heldu zen, uste baino beranduago, 15:30ak bueltan. Bapo bazkaldu eta gero, jolasen eta triki poteoaren txanda izan zen. Eta egunarekin amaitzeko, afaldu ostean gaztetxean kontzertua egin zen.



Bazkaldu aurretik taldeko argazkia atera zuten guztiek. | JOSETXO ARANTZABAL



Paella gustura jan zuten motorzale guztiek. | JOSETXO ARANTZABAL



Txakur motorzalea ere erakusketaren parte bilakatu zen. | JOSETXO ARANTZABAL

Zabalik dago Udalak 2011n aterako dituen lanpostu publikoetarako izenematea

- Gizarte langile, administrari, ehorzle eta udaltzainak
- Ekainaren 3a da izena emateko azken eguna

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Maiatzaren 14an argitaratu zen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta, ondorioz, zabalik dago dagoeneko Arrasateko Udalaren lan eskaintza publikoari lotutako

lanpostuen deialdian izena emateko epea. Ekainaren 3a, egubakoitza, izango da azken eguna. Deitutako lanpostuen oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Udalak aurten

13 lanpostu finko -funtzionarioak guztiak - eskainiko ditu. Horietatik bederatzi txanda librean eskainiko dira, hiru barne promozioan eta azken lanpostu bat ezinduei zuzenduta dagoena.

Behin-betikoak egitea helburu

Esandako moduan, Martxoaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioaren ondorioz, 13 izango dira 2011n beteko diren funtzionarioen lanpostuak. Lanpostu finko horien bidez Udalaren helburua da lantaldea egonkortzea. Hau da, lanpostu gehienak une honetan behin-behineko izaera duten bitarteko langilez hornituta daude eta, hemendik aurrera, behin-betiko izaera duten funtzionarioez beteko dira. Beraz, funtsean langile kopurua ez da aldatuko.

Txanda librean eskainiko diren postuei dagokienez, lau udaltzain, bi administrari, bi gizarte langile eta ehorzle bat dira publiko egin diren lanpostuak. Bestalde, ezinduei zuzendutako lanpostu bat ere eskainiko dute: administrari laguntzailea.

DATUA

13

LANPOSTU FINKO

Udalak 13 lanpostu aterako ditu: bederatzi txanda librean, hiru barne promozioan eta lanpostu bat ezgaituei zuzenduta.

Eskaera online egin daiteke

Udalak izenematea online egiteko aukera ematen du. Arrasateko Udalaren webgunean -www.arrasate-mondragon.org- izenemate-orrria bete daiteke; bertan denetarik datuak eskatzen dira: gidabaimena, euskara titulua eta izandako esperientzia, besteak beste.

Rafa Gomez | Al-Andalus elkarteko presidentea

"Ekitaldiak bazkideendako soilik antolatzeak ez du zentzurik"

- 22. Kultur Astean murgilduta daude; asteen dira ekitaldi potoloenak
- Al-Andaluseko atekak urte osoan edonorendako zabalik daudela dio Gomezek

J.B. | ARRASATE

17 urte daramatza Rafa Gomezek (Montilla, Kordoba, 1951) Al-Andalus elkarteko presidentea. Elkar-teak 21 urte bete ditu aurten eta egunotan 22. Kultur Astean murgilduta daude, izan ere, lehen edizioa elkar-teak urtebete egin aurretik ospatu zuten. Harekin egon gara, Kultur Astearen helburuez berbetan.

Urtero moduan, egitarau oparoa prestatu duzue. Ekintzak nori dauzate zuzenduta?

Al-Andalus elkar-teak antolatzen dituen ekintza guztiak, salbuespenak salbuespen, edonork parte har dezan antolatzen ditugu. Bazkideendako bakarrik balitz ez luke zentzurik izango, akats larria litzake. Izan ere, gure helburua betidanik izan da arrasatearrei gure jatorria ezagutaraztea. Elkar-tean bertan egiten diren ekintzendako ere atekak erabat zabalik daude. Hala, guk antolatzen ditugun zenbait ekintzatan bazkideak ez direnak dira gehiengo.

Maiatzaren 13an hasi zineten ospakizunetan eta hilaren 29ra arte luzatuko dira. Nola joan dira orain arteko ekintzak?

Orain arte egin diren ekintzak antolatu baino horiek gauzatzen lagundu dugu. Balorazioa ezin da hobe izan: Musakolako jailetako erretiratuen bazkarian, esaterako, 170 lagun elkartu ziren elkar-tean eta oso harro gaude auzoko jailetan parte hartzeaz. Gu ere musakolarrak gara.

Donostiako Kutxa aretoan egubakoitzean emandako hitzaldian kanpoan bizi diren andaluziarrak izan zenituen hizpide.

Bai, aurten Andaluziatik kanpo bizi garenon inguruan berba egi-



Rafa Gomez Al-Andalus elkartean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Oso harro gaude auzoko jailetan parte hartzeaz; gu ere musakolarrak gara"

tea erabaki nuen. Egun 1.800.000 andaluziar bizi dira kanpoan, eta horietatik 1.300.000 Espainiako beste txoko batzuetan daude. EAEn 45.000 andaluziar bizi gara. 45.000 horiek Andaluzian jaiotakoak dira, hau da, ondorengoak ez dira kontuan hartzen. Beraz, asko gara.

Egitarauaren zatirik garrantzitsuenan ospatzeke duzue oraindik. Zer nabarmenduko zenuke?

Zapatua da zalantza barik egun handiena. Goizeko sevillar dantzen ostean urteroko parrillada egingo dugu. Gero, etxeko taldeen emanaldiak izango ditugu.

21:30ean, bestalde, gala-afaria izango dugu bazkideendako. Afarian 100 bat bazkide izatea espero dugu. Azkenik, egitarauko azken ekitaldia izango da Al-Andaluseko emakumeen omenaldia: 20 urteotan egindako lana dela-eta merezi dute egun baten bada ere, eseri eta bapo bazkaltzea.

Arrasate, andaluziarren bilgune irailean

Arrasate EAEko andaluziarren bilgune izango da irailaren 23, 24 eta 25ean. Laubideko plazan 1.000 metro koadroko karpia jarriko dute eta andaluziar kutsua duten denetarik ekitaldiak izango dira. Duela 15 urte egin zen azken aldiz Arrasaten, Arruena plazan. Ekitaldiak duen garrantziaren seinale, azken egunean Lehendakaria bertan egotea espero dute antolatzaileek.

Mural kolektiboa eta kafe tertulia Biterin, Jabetze Eskolaren jaialdian

J.B. | ARRASATE

Emakume Txokoaren eskutik, Arrasateko Jabetze Eskolako kideek jaialdi-topaketa egingo dute ekainaren 10ean. Helburua da Jabetze Eskola kalera ateratzea eta Biteri plaza eztabaida, hausnarketa eta jairako gunea bilakatzea.

Bi ekintza aipagarri egingo dituzte. Batetik, kafe tertulia egingo dute -world kafe metodologia erabiliz- eta hausnarketarako gaia izango da Arrasaten egun feminismoak dituen erronkak. Hau da, Arrasate eta inguruko emakumeak mahaia-aren bueltan elkartuko dira feminismoaren gaineko esperientziak partekatzeko.

Bietarako izena eman aurrez

Kafe tertulia egiten ari den bitartean, mural kolektiboa margotuko dute Biteri plazan bertan dagoen muralaren gainean. Ainaraz Azpirozaren gidaritzapean, *Gora feminismoa!* lelo izango duen murala margotuko dute.

Bi ekintzotan parte hartzeko aurrez eman behar da izena. Maiatzaren 27a da azken eguna. Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonora deituta edo emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net helbidera idatzita eman daiteke izena. Antolatzaileek diote garrantzitsua dela garaiz apuntatzea, guztia ondo antolatuta egon dadin.



Egun Biteri plazan dagoen murala itxuraldatuko dute. | J.B.

Besaideko beteranoren martxa ekainaren 4an ospatuko da

Besaide mendizale elkar-teak beteranoren martxa antolatu du. Aralarren egingo dute martxa, ekainaren 4an. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 28a. Bazkaria Mugiroko Bentan egingo dute. Gari-baitik irtengo dira 07:00etan eta 19:00etarako Arrasaten egongo dira. Informazio gehiagorako: www.besaide.org.

Ekinekoen eskutik, atzerritar legedi berria aztergai

Ekin emakumeak elkar-tearen eskutik, Mikel Mazkarian abokatu eta SOS Arrazakeriako kideak atzerritar legearen araudi berria izango du hizpide bihar, 17:30ean, Kulturateko areto nagusian. Batetik, Mazkarianek araudi berria aurkeztuko du jendaurrean eta, bestetik, galderendako tartea ere egongo da.

Ekainaren 4an UEMA egunean parte hartzeko dei egin dute

Lehenengoz egingo da Bergaran eta egun osoko ekitaldi sorta egongo da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aurten ere, udaberriarekin batera, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak antolatutako UEMA eguna egiteko garaia heldu da. Aurten, Gipuzkoako udalerriei dagokie egun hori antolatzea. Hain justu ere, Bergaran izango da aurten UEMA eguna, ekainaren 4an, zapatua.

2011n 20 urte bete ditu Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta honako leloarekin ospatuko dute eguna: ... *Gure hizkuntzak har dezan arnas.*

Egun osoko ekitaldi sorta antolatu dute eta askotarikoak izango dira, gainera. Aipatzekoa da, esaterako, egun horren barruan lehenengoz egingo den hitz gurutzatuen binakako I. txapelketa.

Hitz gurutzatuen lehiaketa

Hitz gurutzatuen binakako I. txapelketa jokatuko da. Parte hartzeko izena eman beharko da. Izen-ematea doan da eta 16 urtez gorako edozeinek har dezake parte -2011n 16 urte beteko dituztenak

barne-. 10:00etarako batuko dira lehiakideak Bergarako San Martin plazan eta 10:30ean hasiko da saioa. Ez da hiztegi elektronikorik, ezta ordenagailurik onartuko; bai, ordea, hiztegi-liburuak. Hiru aldi izango ditu lehiaketak: sailkapena, finalerdia eta finala, eta honela banatuko dira ordutegian: 10:30-11:15, sailkapena; 11:30-12:15, finalerdia; eta 13:00-13:45, finala. Izena emateko azken eguna maiatzaren 31 da, Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan, e-postaz (*euskara@bergara.net*), webgune bidez

EGUNEKO EGITARAUA

10:30 Hitz gurutzatuen binakako lehiaketa, kanporaketak hastea. San Martin plazan. LUMAREN laguntzaz.

11:00 Umeentzako jokoak: puzgarriak... Ariznoa plazan.

12:30 Ekitaldi instituzionala, UEMAKO lehendakariaren agurra, San Martin plazan.

12:30 Kantu-jirari ekitea, Euskal Kantuzaleen elkartearen laguntzaz. San Martin plazatik.

13:00 Hitz gurutzatuen lehiaketa. Finala. San Martin plazan.

14:30 Herri-bazkaria, bazkalostean kantu-animazioa, Kantuzaleen elkarte lagunekin. San Martin plazan.

15:30 Umeentzako tailerrak, Ariznoa plazan.

16:30 Umeentzako jolasak: puzgarriak....

18:00 Dantzaldia.

11:00 Kontzertua, gaztetxean.

(*www.bergarakoeuskara.net*) eta 943 77 91 66 zenbakira deituta. Gehienez 40 bikote onartuko dira.

Herri bazkaria ere egongo da eta txartelak dagoeneko salgai jarri dituzte, UEMAKO edozein udaletxetan.

Jasoketa eskorgen simulatzaile ikastaroa

23 orduko ikastaroan parte hartzen dutenek jasoketa eskorgak erabiltzeko ziurtagiria jasoko dute

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Frantziako esperientziatik jaso dute informazioa, eta, hala, arautu gabe zeuden zenbait aspektu formal antolatzea lortu dute. Araudi zehatzik ez dagoen arren, ikastaroak irauten duen 23 orduetan ikasgai praktikoa eta teorikoa bateratzen dira.

Bi helburu

Ikastaro berri horrekin Miguel Altunak bi helburu jakin ditu, merkatuak daukan behar bat aseztatzeko gainera: bata, ikasleek ziurtagiria lortzeko programa ona edukitzea; eta bestea, ondo formatutako pertsonak prestatzeko eta horrekin enpresetan istripuak murrizteko kalitatezko ikastaroa izatea.

Miguel Altuna institutuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artean garatu dute proiektua. Eta elkarlan bat izan den arren, eskola guztiak Bergaran emango dira, Nafarroako



Jasoketa eskorgen simulatzailea probatzen. | AMAIA TXINTXURRETA

Unibertsitate Publikoaren lana software arloan izan da-eta. Ikastaroa sortu dutenen hitzetan: "Enpresetatik jasotako beharra ikusita egin dugu; langileei eskorgen inguruko ikastaroak eskatzen hasi dira". Bada, lehen egun hauean arrakasta erabatekoa izan da. Duela egun gutxi arte, 200 pertso-

nako zerrenda zegoen, baina dagoeneko txanda gehiago jarri dituzte martxan, zerrenda hori ahalik eta bizkorren murrizteko. Dena den, Miguel Altunak jaso duen eskaera kopurua ikusita, matrikulazio epea zabalik dagoen arren hurrengo ikastaroak ez dira irailera arte hasiko.

Irantzu Leteren kartelak iragarriko ditu Pazkoak

Jasotako 20 lanen artean aukeratu du epaimahaiak bergararren irudia

M.B. | BERGARA

Irantzu Lete Zabaleta bergararren irudia aukeratu dute jai batzordeek aurtengo Mendekoste jaiak iragartzeko.

Batzordeko kideen esanetan, 20 lan jaso dituzte, "guztiak maila handiko lanak", azpimarratu dutenez. Letek 600 euroko saria jaso du.

Irantzu Lete gazteak aurkeztutako lanari dagokionez -ondoko irudian-, Bitorianatxo ageri da zintzilik, San Martin plaza herritarrez beteta dagoela.



Kartel irabazlea.

Panteoi-burdin tasak ordaintzeko epea zabalik dagoela jakinarazi nahi die Udalak herritarrei

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza erakundee-tan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira 2011ko uztailearen 13an. Helbideratu gabekoak etxera bidaliko dira eta ordaintzeko bi modu egongo dira: udaletxeko diru bilketa zerbitzuan, astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 13:30era, edo ekainera arteko zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara. Bestetik, baimendutako finantza erakundeetan ere egin daiteke ordainketa, eta baita *www.bergara.net* webgunearen bitartez ere.

OHARRAK

UZTAILEAN BEGIRALE IZATEKO IZEN-EMATEA

Uztaileko udaleku irekiak Jardun euskara elkarteak kudeatuko ditu aurten, eta begirale moduan lan egin nahi dutenendako izen-ematea zabalik dago maiatzaren 13ra arte. Interesatuak curriculuma Jardunen bulegora eroan behar dute edo *jardun@topagunea.com* helbidera bidali. Argibide gehiagorako deitu 943 76 36 61 zenbakira.

ATZEGI LAGUNTZA ESKE ARI DA EKAINAREN 4RAKO

Egun horretan bazkaria egingo dute Munibe plazan eta laguntza beharko dute mahaia jartzeko, bazkaria zerbitzatzeko eta gero guztia batzeko. Interesatuak deitu 606 24 79 09 edo 943 76 52 39 zenbakira.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ABIAN

Hilaren 30era dago zabalik zerga

hori ordaintzeko borondatezko epea. Ordainagiria helbideratuta dutenei automatikoki kobratuko zaie, eta, horrela izan ezean, norberak ordaindu beharko du, banketxean edo udaletxean. Borondatezko epea amaituta, zerga errekaruarekin ordaindu beharko da.

BIDAIA IRAILEAN CADIZERA, SAN JOXEPEREKIN

Cadiz, herri zuriak delako bidaia

antolatu du San Joxepe iraile-rako. Izenematea maiatzaren 31ra arte dago zabalik, elkartearen bulegoan. Autobus bat dagoeneko beteta dago; hortaz, bigarreneko gordeko dute lekua.

MUSIKA ESKOLAN IZEN-EMATEA ZABALIK

2011-12 ikasturterako izenematea ireki dute Musika Eskolan. Ekainaren 15era arte da epea, 15:30etik 19:30era.

Zuzenketa oharra: kanpoko igerilekuaren irekiera data

Aurreko Asteleheneko *Goiena* paperean akats bat egin genuen. Agorrosingo kiroldegiko uda kanpainako data oker zeuden. *Goiena.net* webgunean data zuzendu ostean, hemen dituzue data zuzenak: igerilekuak ekainaren 15etik irailaren 11arte egongo dira zabalik. Barkatu, sortutako eragozpenengatik.



Xabier Rezabal, sanferminetan egindako erretratuaren aurrean. | MIREIA BIKUÑA

Xabier Rezabal | Argazkilaria

"Erakusketan ikus daiteke nolako erretratuak egiten ditudan"

- ▶ Xabier Rezabal oñatiarrak erakusketa ipini du kultura etxean
- ▶ Formatu handiko ehun bat erretratu ipini ditu: zuri-beltzean eta koloretan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Xabier Rezabalek (Oñati, 1972) *Photorro* delako argazki erakusketa ipini du kultura etxean. Gai eta formatu handiko ehundik gora erretratu ipini ditu: batzuk zuri-beltzean, eta beste batzuk koloretan. Erakusketa zabalik egongo da ekainaren 4ra arte, asteleheneetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

Zer ikusiko dute erakusketara doazenek?

Formatu handiko argazkiak dira: batzuk zuri-beltzean dira, pertsonen erretratuak barne, eta beste batzuk, 30 bat-edo, koloretan. Horietan, sanferminetako gorri kolorea da nagusi. Argazki batek bestera jarraipena dago.

Sanferminetan lana eta festa uzartu dituzu.

Bai, hala da. Hiru urte daramat Iruñeko jaietan erretratuak egiten. Festa barru-barrutik ezagutzera nuen helburu. Txupinazo egunean bizi dena erretratuetan islatu gura izan dut.

Sanferminetako txoko guztiei egin diezu argazkia?

Ez! Jai erraldoiak dira eta asko daukat oraindik. Zezen-plaza barrurako akreditazioa gurako nuke, edo entzierroak gertutik

jarraitzeko akreditazioa. Baina oso zaila da, argazkilaria eta hedabide asko egoten direlako Iruñean egun horietan.

Ehun bat argazki ipini dituzu. Zergatik horiek?

Gehien gustatzen zaizkidanak ipini ditut. Erakusketan dauden erretratuetan antzeman daiteke zer-nolako argazkiak egiten ditudan.

Pertsonen erretratuak ere badaude.

Oso gustura egiten ditut. Hori bai, betiere aurretik eurekin hitz egiten dut, euren baimena eska-

tzeko. Akaso bi ordu behar ditut konbentzitzeko, eta erretratuak bi minutuan egiten dugu.

Lehen aldia da kultura etxean erakusketa egiten duzuna?

Bai. Orain dela 11 urte beste bat egin nuen, gaztelekuan. Orduko hartan Madrilgo irudiak ziren protagonista. Dena den, aldika, Arkupe tabernan argazkiak ipintzen ditut: egun, Corpus egunaren gaineko erretratuak daude.

Ea, bada, herritarrek erakusketa gustuko duten.

Egun afizio moduan daukazu argazkigintza.

Orain dela 20 urte hasi nintzen argazkigintza munduan. 1995etik 1997ra argazkilaritza profesional eta foto-kazetaritza ikasketak egin nituen, eta Madrilen agentzia ezberdinetan ibili nintzen urtebetez. Egun afizio moduan egiten ditut erretratuak.

Ze proiektu daukazu esku artean?

Idea bat besterik ez da, oraingoz. Nire asmoa da herritarrei erretratuak egitea. Urtebeteko epe naturala hartu, urtarriletik abendura-, eta herritarrei erretratuak egingo dizkiet. Boluntarioak eskatzeko deialdia egingo dut.

"Pertsonen erretratuak egin aurretik, eurekin egiten dut berba"

"Agentzietan lan egin arren, egun argazkigintza afizioa da"

Bizkarrezurraren patologiei buruzko ikastaroa

Zubikoa kiroldegian bizkarrezurraren patologiei buruzko ikastaroa antolatuta dute. Ekainaren 4an egingo dute, teorikoa eta praktikoa: 10:00-14:00 eta 15:30-19:30. Kiroldegiko langileek parte hartuko dute, baina hamar lagunendako tokia dute oraindik. Interesatuak kiroldegian eman behar dute izena.

Haur danborradako entseguak ekainean hasiko dituzte

San Migel jaietan egingo duten haurren danborradako entseguak ekainean hasiko dituzte; hain justu ere, ekainaren 2an, 7an, 9an, 14an, 16an eta 21ean. Entseguak egingo dituzte Errekaldeko Herri Eskolako sotoan, 19:00etatik 19:45era arte. Oporren ondoren, irailan, beste hainbat egingo dituzte.

Informatika ikastaroak egingo dituzte uztailean arte

Udaleko Enplegu Sailak hainbat informatika ikastaro egingo ditu uztailean arte, Ikas Hiru akademiarekin elkarlanean. Hain justu ere, Ofimatika II, Ofimatika III, Photoshop I, Grabaketak eta Sare Sozialak ikastaroak egingo dituzte. Interesatuak lehenbailehen eman behar dute izena 943 78 31 03 telefonoan. Maiatzean hasiko dituzte.

Jose de Azpiazu musika eskolako triki-pandero taldeko ikasleek maketa grabatu dute

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako triki-pandero taldeko neska-mutikoak grabazio estudioan sartu dira. Maketa grabatu dute eurek aukeratutako kantuekin. Taldeko kide bakoitzak bina kantu aukeratu ditu, eta nork bere erara jo du: batzuek bakarka, beste batzuek panderoaren laguntzarekin eta bigarren trikiti batekin, eta beste batzuek bi ahotsetara.

Gainera, ikasleetako batzuek kantatu ere egin dute. Hain zuzen ere, kantu herrikoi eta alaiak.

Taldeko kideek banaka egingo grabazioez gain, guztiek elkarrekin beste hainbat pieza grabatu dituzte; besteak beste, Santa Anako kontzertuan eskaini zituzten piezak. Guztira, 35 grabatu dituzte.

Erakustaldia

Maketa grabatuta nola geratu den ikusteko, aurkezpen emanaldia egingo dute hilaren 31n Ona taberna aurreko plazatxoan, 18:30ean. Gainera, maketa salgai ipiniko dute laster. Interesatuak musika eskolako idazkaritzan erosi ahalko dute 6 eurotan.



Triki-pandero taldeko neska-mutikoak. | MUSIKA ESKOLA

Ongietorria egin zioten Mikel Illaramendiri eguenean, zortzi urte kartzelan egon ondoren

M.B. | OÑATI

Aurreko asteko eguenean, hilaren 20an heldu zen Mikel Illaramendiri etxera, zortzi urte kartzelan egon ondoren.

Hainbat herritar, lagun eta senitarteko batu zen Kale Barrian, Arrano tabernaren inguruan harrera egiteko. Txalo artean egin zioten ongiatorria. Illaramendik pozik jaso zituen animoak eta txaloak. Arrano sarreran ekitalditxo egin zioten: dantzak, kantuak eta besarkadak, batez ere besarkada beroak.

2003an atxilotu zuten

Mikel Illaramendi 2003ko uztailearen 30ean atxilotu zuen Frantziako polizia. Epaitua izan ondoren, 10 urteko espetxe zigorra ezarri zioten eta aurreko eguenean, hilaren 19an, bete zuten. Frantziako Estatuak ipinitako zigorra amaituta, kanporatua izateko eta Espainiako polizia eskuetan geratzeko arriskua zuen. Hori horrela, gose greba hasi zuen hilaren 16an, astelehenean. 19an libre utzi zuten, eta argal baina itxura onarekin heldu zen.



Mikel Illaramendi, herritarren eta lagun txaloak jasotzen. | KONTZJUPETIK

ARETXABALETA

Itxura berria eman dio webguneari Udalak

Erabilgarritasunari eta irisgarritasunari eman diote garrantzia eta hainbat tramite egin daitezke bertatik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

"Edukiak argi eta garbi erakusten dituena, funtzionala, estetikoki erakargarria eta modernoa"; hala aurkeztu zuen Inaxio Garro alkateak Udalaren berritutako webgunea. Eibarko CodeSyntax enpresak egin du eta plone azpiegitura eta software librea erabili dituzte. Helbidea ez dute aldatu: www.aretxabaleta.com.


Diseinu argi eta garbia

CodeSyntax enpresako ordezkari Asier Sarasuak berritutako webgunearen nondik norakoak azaldu zituen aurkezpen ekitaldian: "Plone azpiegitura erabili dugu eta software librea. Webgunea eleanitza sortzeko egokia da hori, baita albisteak, agenda, tramiteak eta antzeko kontuak kudeatzeko ere".

Diseinu argi eta garbia egin gura izan dute, eta batez ere kolore zuria eta urdina erabili, "herriko koloreak". Portadak barruan dagoena islatzen du eta hainbat sail egin dituzte: Udala; sailak; Aretxabaleta; tramiteak; aktualitatea; eta multimedia. Gainera, sei argazki jarri dituzte, "esanguratsuenak": Urkulu; jaiak; kiroldegiaren proiektua; merkataritza; herriko historia eta ondarea; eta elizate eta auzoak.

Hori guztia egiterakoan erabilgarritasunari eta irisgarritasunari eman diote garrantzia. "Irisgarritasunari, edozeinek samur erabili ahal izateko, baita bista edo mugikortasun arazoak dituztenek ere. Eta erabilgarritasunari gura den guztia samur topatzeko", argitu zuen Sarasuak. Gainera, tramite asko egiteko aukera eskaintzen du udaletxera jo beharrik izan gabe.

Webgune berritua dagoeneko abian da eta datozen asteetan betetzen eta osatzen joango direla jakinarazi zuen alkateak.



Itxura berria duen Udalaren webgunearen portada. | ARETXABALETAKO UDALA

Ume eta gazteendako udarako kirol jarduerak gertatu ditu Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Udarako antolatutako kirol jardueren berri eman eta izenemate epea zabaldu du Udaleko Kirol Zerbitzuak. 4 eta 15 urte arteko gazteendako jarduerak antolatu dituzte, eta bi txandatarako deialdia egin: ekainaren 27tik uztailaren 8ra –izenemate ekainaren 18a arte– eta uztailaren 11tik 22ra –izenemate uztailaren 8a arte–. Argibide gehiago gura duenak Zainduz gimnasia jo dezala.

Igeriketa Eskoriatzan

Txikienek, 4 urtetik 7 urte artekoek bi ikastaro izango dituzte aukeran: patinajea (10:00-11:00

eta 15:30-16:30) eta igeriketa (Eskoriatzako kiroldegian, 10:30-11:30 eta 17:00-18:00).

8 eta 11 urte artekoek hiru ikastaro: patinajea (11:00-12:00 eta 16:30-17:30); frontenisa (10:30-11:30); eta igeriketa (11:30-12:30 eta 18:00-19:00). Eta 12 eta 15 urte artekoek hainbat: skate (16:00-17:00); aero-batuka (11:00-12:00); patinajea (17:30-18:30); eta spinning (12:00-12:45). Ikastaro horien prezioa ere zehaztu du Kirol Zerbitzuak: 15 euro. Nahiz eta ordutegia zehaztuta egon aldaketak izan ditzakela jakinarazi dute.

Gazteendako, 15 urtetik gorakoendako frontenis txapelketa



Umeak patinatzen. | M.A.

deitu dute. Iturrigorri pilotalekuan jokatu dute eta gutxienez sei taldek eman beharko du izena aurrera egiteko –prezioa, 5 euro taldeko–.

Jaurlaritzara bideratzeko agiriak udaletxean aurkez daitezke

Maiatzaren 16an egindako osoko bilkuran hartutako erabakia tarteko hitzarmena sinatu du Udalak Jaurlaritzarekin. Hala, herriarrek Eusko Jaurlaritzara bideratu beharreko agiri guztiak udaletxean aurkez ditzakete, Jaurlaritzaren bulegoetara joan beharrik izan barik. Udala arduratuko da gero agiri horiek dagoen lekura bidaltzeaz.

Saharara bidaltzeko elikagaiak egubakoitza arte jasoko dituzte

Iesbaa elkarteak deituta Sahararen aldeko elikagai batzea egiten dabilta Kurtzebarri eskolan eta Pausokan. Hona jasoko dutena: lekaleak, konterbak oliotan, azukrea, arroza, pasta, olioia, helduendako fardelak eta konpresak. Maiatzaren 27a artean jasoko dituzte elikagaiok eta ekainaren 18an bidali Saharara.

Santa Rita eguna ospatuko dute gaur agustindarrek

Atzo, maiatzak 22, izan zen Santa Rita eguna, baina domekako ospakizuna tarteko, gaur ospatuko dute agustindarren monasterioan. Bi meza esango dituzte eta arrosak bedainkatu gero: 11:30 eta 18:00.

Bestalde, hilaren 28 eta 29an Lourdesera erromes joan gura duenak lehenbailehen eman dezala izena sakristian.

ESKORIATZA



Ikasleak bertsoan iazko jaialdian. | MIRIAN BITERI

Bertso jaialdia dute neska-mutikoek egunean

M.A. | ESKORIATZA

Ikastetxeetan bertsojaritza lantzen dabilta neska-mutikoek jaialdia egingo dute egunean, hilak 26, Eskoriatzako kiroldegian (17:00). Orain arte ikasitakoaren berri emango dute, guraso eta lagunen aurrean kantuan eginda.

la 200 gaztetxo bertsoan

Arizmendi ikastolako Almen gunetik bosgarren eta seigarren mailakoak elkartuko dira eta Luis Ezeiza herri eskolatik laugarren mailatik seigarrenera artekoak; guztira 10 eta 12 urte arteko ia 200 gaztetxo. Taldeka

abestuko dituzte aurretik ikastetxean asmatutako bertsoak, eta gai ezberdinak agertuko dira taula gainean, gehienak ironia eta umore handiarekin asmatutako bertsoak.

Aretxabaletan ekainaren 2an

Bestalde, Aretxabaletan ekainaren 2an ospatuko dute bertso jaialdia; Herriko Plazan izango da (17:00)–eguraldi txarrarekin Iturrigorri pilotalekuan–. Arizmendi ikastolako laugarren mailakoak eta Kurtzebarri eskolako ikasleak elkartuko dira orduan ikastetxean egindako bertsoak kantatzeko.

Uraren eta zaborraren tasak ordaintzeko epea

M.A. | ESKORIATZA

Jendaurrean jarri dute 2011ko lehenengo seihilabetekoari dagokion etxez etxeko zabor biltzea tasaren errolda eta borondatez ordaintzeko epea zabaldu. Hain zuzen ekainaren 9a bitartean pasatu beharko dute udaletxetik ordaintzera ordainagiria helbideratu gabe dutenek.

Estolderia eta ur tasak

2011ko lehen hiruhilabeteari dagokion estolderia eta ur hornikuntza tasen errolda ere jen-

daurrean jarri dute egunotan. Errolda hori aztertzeko epea ekainaren 12a arte dago. Bestalde, borondatez ordaintzeko epea martitzenean, hilak 31 zabalduko dute eta uztailaren 7a arte luzatu. Ordainagiria helbideratu barik dutenek aurrezki kutxa eta banketxeen bitartez egin beharko dute.

Esandako epean ordaintzen ez badira, prozedura exekutiboa aplikatuko da eta premiamenduzko errekarua, berandutze interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko dizkiete.

Euskal musikaren gaineko berbaldia gaur, kultur etxean

Euskal Herria bere abesti, dantza eta herri musikaren bidez berbaldia eskainiko dute gaur, kultur etxean (17:30). Jose Antonio Garate adituak euskal folklorea ezagutarazi eta gure herriaren kultur adierazpenen berri emango du, tartean musika instrumentala, dantzak eta kantu herrikoiak.

Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Gillen Agirre, asanbladako beste bi lagunekin, Eguzkierripa Rock jaialdiaren kartela erakusten. | NAIA BAILEZ

ARAMAIO

Gillen Agirre | Aramaioko Gazte Asanbladako kidea

"Gazteondako Eguzkierripa Rock urteroko zita bihurtu da"

- ▶ Hiru urte beteko ditu jaialdiak zapatuan; egun osorako plana egin dute
- ▶ Herri bazkarirako txartelak herriko tabernetan daude salgai eguenera arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gazte Asanbladako beteroeta-ko bat dela aitortu digu Gillen Agirrek (Aramaioko, 1985), 17 urte inguru zuenetik bertako kidea da-eta. Zapatuan ospatuko den Eguzkierripa Rock jaialdia antolatzen dabil. Jaialdia gazteen artean errotu egin dela dio eta urtez urte handitzen doala. Egitarauan ikus daiteke, esaterako, Arrasateko Kañeria 13 talde mitikoak joko duela.

Hasteko, kanpokoendako galdera: zergatik izen hori? Zergatik Eguzkierripa Rock?

Jaialdia Andra Mari ermitan egiten da eta Eguzkierripa auzoan dago kokatuta. Auzoaren izenari musika kutsua jarri genion eta listo. Beraz, jaialdiaren izenari ez genion buelta larregi eman.

Nondik sortu zen halako jaialdi bat sortzearen ideia?

Aurten hirugarren urtea izango da. Lehenago ere antolatuta izan ditugu kontzertuak, Gazte Eguna eta halako ekimenak. Bada, Eguzkierripa Rock jaialdiaren ideia ildo horretatik sortu zen, lagun

arteko berbaldi baten emaitza moduan. Herrian ezaguna den leku eder baten, hau da, Andra Mari ermitan, zerbait egin zitekeela pentsatu genuen. Aterpe ederra dugu eta ermita bat izateak beste xarma bat ematen dio. Hala hasi ginen, duela hiru urte.

Aurten zer prestatu duzue?

Egun osorako plana prestatu dugu. 13:00etan herri poteo animatu batekin hasiko dugu eguna, Ibarren. Gero kalejiran igoko gara Andra Mari ermitara. Asmoa da bai poteoan eta bai kalejiran zarata handia ateratzea.

Herri bazkaria egingo dugu ermitaren ondoan, 14:30ean hasita. Txartelak eguenera arte egongo dira salgai herriko tabernetan, 12 eurotan. Paella jango dugu, besteak beste.

Eta bazkalostean, zer?

Herri bazkariaren ostean joko ezberdinak egingo ditugu; ea joko horietan jendea parte hartzerantz animatzen den. Jokoen ostean zuzeneko musika izango dugu protagonista, 20:00etan hasita: Miseria, Kate's Maniacs, Gazte

Iraultza, Alta Tension eta Kañeria 13. Interprete Desconocido taldeak ere jo behar zuen baina bateria joleak arazoren bat du eskuan. Azken orduan saiatuko gara beste talderen bat lortzen. Talde gazteak dira gehienak, eta gertukoak: Aramaio, Arrasate eta Aretxabaletoak, hain zuzen.

Kañeria 13 taldearen gainean esan beharra dago iaz herriko jaietan jo behar zutela eta azken orduan ezin izan zirela etorri. Aramaioarrok *zorretan* zeuden eta zapatuan joko dute.

Hirugarren edizioa da aurtengoa. Nola joan dira aurreko biak?

Orokorrean oso ondo. Jende dezentek parte hartu izan du eta esan daiteke gazteen artean behintzat urteroko zita dela. Hau da, askok galdetzen diguten ea aurten egin behar den eta hala bada noiz izan behar den; herrian errotuta dago. Gazte Asanbladarendako oso hitzordu garrantzitsua da.

Zerbait gaineratzea gura duzu?

Herriarrei animatuko nieke parte hartzerantz eta egun berezi horretan ondo pasa dezala.

LEINTZ GATZAGA

Gobernuz kanpoko erakundeentzat dirulaguntzak iragarri dituzte

Bideberri mankomunitateak egin du deia eta gizarte zerbitzuetako jarduerendako ere badaude

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gobernuz kanpoko erakundeendako eta gizarte zerbitzuetan lan egiten duten elkarreendako dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea zabaldu du Bideberri mankomunitateak. Hala, bada, Antzuola, Elgeta eta Gatzagako talde eta elkarteek hilabete dute eskaerak aurkezteko. Antzuolako uda-

letxera bideratu behar dira eskaera horiek, eskatutako agiri guztiak behar bezala beteta.

Lankidetzaren programendako

Dirulaguntza horien oinarriak martxoaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten. Eskatzaileek irabazi asmorik gabeko taldeak izan

behar dute eta lan egin behar dute giza balioak sustatzen, herritarren arteko solidaritatea bultzatzen eta gizarteratze arazoak dituztenei laguntzen -umeak, gazteak, elbarriak, gutxiengo etnikoak...-. Laguntza horietara 2.158 euro bideratu dituzte.

Bestalde, gobernuz kanpoko erakundeek herrialde pobretuetan lankidetzaren programak antolatzeko eta garatzeko 16.191 euro zehaztu dituzte. Herrialde pobretuetan bizi direnen baldintza sozialak eta ekonomikoak garatu eta hobetzeko ekintzak egingo dituzten elkarten artean banatuko dute diru hori.

ELGETA

Iker Irazabal | BTT zeharkaldiaren antolatzaileetako bat

"Goizez egingo dugu; gorputzaldia hobea da arratsaldean baino"

Maiatzaren 28rako 29 kilometroko zeharkaldia prestatu dute; desnibela 2.000 metrokoa da

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Mundimirako BTT zeharkaldia arratsaldean izango dela agertu da hainbat esku-programatan. Jakin, goizez egingo dutela, 09:30ean abiatuta.

Zenbat lagunek diharduzue lanean?

Sei bat. Gero, egunean bertarako beste 20 bat boluntario daude. Ibilbidea definitu, markatu, baimen guztiak eskatu, egunean bertan bidegurutzeak egin, jateko eta edateko postua... azkenean jendea behar da.

Lokatzaren alde laguntza handikoa izan da, ezta?

Proba Lokatzaren atzerikapean egingo dugu. Elgetan ez dugu talde federaturik eta Lokatzara jo genuen. Ez digute inongo arazorik ipini eta gainera denean lagundu digute.

Goizez, 09:30ean abiatuta egingo duzue proba. Zergatik?

Bi arrazoiengatik; lehenengo bizikletan ibiltzeko gorputzaldia hobea delako goizean bazkalostean baino, eta bestetik Mundimiraren kasuan arratsaldean dezente mugimendua egongo delako Elgetan zirkulazio alde-rik. Ez genuen ikusten biderragari arratsaldean egitea.

Norendako zeharkaldia da?

Eskarmentu apur bat duen jendearendako pentsatuta dago.



Iker Irazabal. | LZ

Hasi berria direnak, hobeto ez badatoz ze nahiko gogorra da bai gorantz, bai beherantz. Gainera, badaude kilometro batzuk pistetatik egiten direnak baina gehienak bide zidorretik dira.

Nondik nora joko du ibilaldia?

Kiroldegitik irten eta lehenengo Asentziara joango gara Udaxarako bidetik. Lubakien ingurutik igoko gara Intxortako lepura eta handik jaitsiko gara Gazeta aldera. San Romanera joango gara eta Erdella aldea eginda Aixolako presara joko dugu. Presatik Bastarrikara igo, Askonabittari buelta eman eta Elgetan bukatuko dugu.

Entrenatzea hastea komeni!

Honezkeron entrenatuta ez dagoenak gaizki behar du.

ANTZUOLA

Kale-bazkaria egingo da jaietako egubakoitzean

Jai batzordea ari da osatzen aurtengo jaietako programa; martitzenean egingo dute bilera

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Uztailaren 14tik 17ra bitartean izango dira aurten Antzuolako jaiak. Egitaraua osatzen ari da dagoeneko jai batzordea eta guztia zehaztu barik dagoen arren, berrikuntza bat izango da jaietan: kale-bazkaria.

Badira urte batzuk herriko koadrila askok egubakoitzean bazkaria egiten dutena jatetxeetan. Herriko jatetxeetan leku falta dela eta kanpora joan behar izaten dute askok bazkalatzera. Horregatik, zenbait koadrilak proposamena egin dute jai batzordean, egubakoitzean kale-bazkaria egiteko mahaiak jar ditzaten. Jai batzordeak aintzat hartu du proposamena eta aurten mahaiak jarrirako dira egubakoitzean Kalebarrengo arkupean nahi duenak bertan bazkal dezaten. Gastronomia lehiaketa

egiten da goizean zehar bertan eta mahaiak hor lagako dituzte koadrilek bazkalatzeko.

Egitaraua zehazteko bilera

Jone Larrañaga udaleko Kultura teknikariak esan digunez guztia zehaztu barik dago oraindik egitaraua, baina aurreko urtekoaren bidetik joango da: eguenean udaleku irekietako bazkaria, eta dantzari eta zinegotzien dantzaldia; egubakoitzean gastronomia lehiaketa eta kale-bazkaria; zapatuan Mairuaren alardea eta Joselu Anaiekin erromeria; eta domekako egitarauan oraindik ezer zehaztu gabe dago.

Jai batzordeak bilera egingo du bihar, martitzena, 18:00etan, udaletxeko beheko gelan. Bilera irekia da eta nahi duten herritarrek parte har dezakete.

SARI NAGUSIA



Asteburu bat Txohebenta landetxean

Hondartzatik lau kilometrotara!
Gosariak, mundialak!
Goza ezazu Txohebenta landetxean!

TXOPEBENTA LANDETxea

Basetxetas
GAUTEGIZ-ARTEAGA (Bizkaia)
Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
www.nekatur.net/txohebenta
www.toprural.com

MUNDUMIRA

3 sari sorta: kamisetak, liburuak eta Euskal Herria aldizkarian harpidetzak



2 zozketetan parte hartzeko

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Bidali KLUBA LANDETxea [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

2011n atera etekina txartelari

AQUARIUM

AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99
■ Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA

AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39
■ %2 gasolindegian erregeia erositara.
■ %2 dendako produktueta

AZKOAGA

AZKOAGA ENEA

AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA

Eskoriatza, 943 71 45 66
■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendrak).
■ %10 deskontua jatetxeko kartan.

Barceló

BIDAIAK

BARCELÓ BIDAIAK

Arrasate, 943 79 70 11 / Bergara, 943 76 08 43
■ 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI
(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldia, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

BEGIONDO

OPTIKA

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21
■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR

FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza, 943 71 43 41
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT

KIROL DENDA

ESKO SPORT KIROL DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96
■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES

ENTZUMEN ZENTROA

GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLÍNICA DENTAL

BERGARA

CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77
■ -%10 zerbitzu guztietan
■ -%15 inplanteetan
■ Aho-garbiketa doan,
■ 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER

SUKALDEAK

IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
■ Sukalde osoa erositara, mikrouhin-labea opari.

LILURA

EDERTZE INSTITUTUA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71
■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoa (besapekoak opari).
■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.
■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS

MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN

FISIOTERAPIA ZENTROA

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89
■ -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT

AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72
■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diegu.

TXIKI ZOO

TXAKURRAREN BROTIGUEA ETA ILC AMINDEGIA

TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 79 51 15

■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN

IZOTZ JAUREGIA

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jalegun, jalegun bezpera, zubia edo opporraldia)
■ -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo opporraldia)
■ -%10 zubi eta opporraldietan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78
■ %10 deskontua.

KIROLA

LEHENENGO MAILA

Debagoieneko Realzaleak, pozik eta dagoeneko hurrengo denboraldiari begira

- ▶ "Ligako 25 minutu lasaienak izan genituen", diote
- ▶ Zaleak ulerkorak dira Realarekin: "Igo berriak dira"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Realzaleak izaten ohi dira, Lehenengo Mailako jarraitzaileen artean, gehien sufritzen dutenak, baina zapatuan, azkenean, "denboraldi osoko minuturik lasaienak" bizi izan zituzten. Partidua, joko bakoa, baina tentsio handikoa, Realaren eta Getaferen artean. Askok galdutzat jo zuten Getaferen golaren ondoren. Gero, Valentziaren emaitza ona Deporren aurka, Realaren mesederako; eta, azkenean, zoramena eta segurtasuna, gutxi espero zuten Sutil andaluziarrak 1 eta 1ekoa egin zuenean.

Anoeta betetzen duten zaleetatik ez ziren gutxi debagoien-darrak. Eta, beste behin, primerako zaleak direla erakutsi zuten. Une guztietan Realaren atzean egon ziren, egindako denboraldiarekin gustura egon edo ez; taldea goraino eramateko momentua zen, eta halaxe egin zuten. Arrasatetik joan ziren Ainhoa Ozaetak gogoratzen du "giro bikaina" egon zela Anoetan, eta

azkenean olatua eginez saritu zutela zaleek talde txuri-urdina.

"Liga arraroa izan da"

Berriz ere, gurutze-bidea izan da denboraldi bukaera; larregi luzatu den agonia. Edo esperotakoa izan da? Hasieran, Europarekin amets ere egin zuten Realzaleek. Baina beste batzuk Realzale eta errealista ziren momentu oro: "Pazientzia izan behar dugu, oraindik igo berriak gara-eta. Lehenengo bueltak ere ez zuten errealitatea ondo erakusten; Europan jokatzearekin pentsatzen jarri zen jende asko, eta gero beherakada etorri zen, errealitatera buelta", baloratzen du Fertxu Rodriguez arrasatear Realzale finak.

Bestalde, liga ez da oso ohikoa izan: "Realak 45 punturekin bukatu du; ez dut gogoan hainbeste punturekin egin duen denboraldi-bukaerarik", esaten du Rodriguezek. Kontuan hartu behar da jaitsi berri den Deportivo hortik

oso gertu geratu dela, 43 puntu-rekin.

Horregatik, zaleak gustura daude txuri-urdinek egindako denboraldiarekin, eta ulertzen dituzte azken boladan pasatutako estualdiak: "Oso arraroa izan da denboraldia, eta nik uste dut merezimendu osoz jarraitzen dugula lehenengo mailan", esaten du Oñatiko Jabier Navarrok.

Zelai erdirako fitxaketak

Zale bakoitza entrenatzaile bat ere badenez, dagoeneko asko ipini dira datorren denboraldian Realak zer behar duen pentsatzen. Gehienek uste dute aldagela berri-egon behar dela: "Lasaitasunez hartu beharko genuke datorren denboraldia, baina nik uste dut fitxaketa batzuk egitea komeni dela, batez ere, zelai erdirako. Hor, jokalaria bateren bati eutsi egingo nioke, baina beste batzuk ekarri ere; joko sortzen duen bateren bat behar dugu. Bestalde, Realak blokea izan behar du, ezin dira jokalaria etengabe aldatzen



Zoramena Anoetan, zapatu gaueko partidua bukatutakoan. | ARGAZKI PRESS

joan", esaten du Fertxu Rodriguezek.

Jokalaria berriak behar direla uste du ere Jabi Navarrok: "Aurreraria, zelai erdirako bat eta beste pare bat fitxatuko nituzke. Atzeko lerroa oso motel ikusten dut", esaten digu.

Ainhoa Sanchez modelo aretxabaletarra ere Realzale amorratua da, eta bere iritzia eman digu: "Rivas oso jokalaria garrantzitsua da, eta bera barik ez dakit zelan moldatuko den taldea. Llorente ere pisuzko jokalaria izan da, nire ustez".

Datorren denboraldia zientzia-fikzioa da gaur egun. Lehenengo mailan egoteaz jarraitzeko eta denboraldi lasiago batekin amets egiteko momentua da orain.



Arrasateko zaleak, autobusean, dagoeneko giroa



ENEKO GIRADO
ARRASATE

"Oso pozik nago orain baina nahiko sufritu nuen. Partidua bukatu eta zuzenean lotara joan nintzen, lasai. Hala ere, hurrengo denboraldian gogo gehiagorekin zelairatu beharko dira jokalaria, zaleak urte osoan hor gaude eta".



BITTOR ARRIARAN
ARRASATE

"Lasai eta pozik amaitu nuen partidua. Hasieratik genekien estu ibiliko ginela baina azkenean gure helburua lortu dugu. Orokorrean denboraldia ona izan dela uste dut eta datorren urtean ea hobea den, gutxiago sufritzeko".



MILAGROS BEITIA
ARRASATE

"Orain oso pozik nago, baina partidua iraun zuen bitartean gaizki pasatu nuen. Lehenengo denbora oso ona izan zen eta bigarrena oso txarra. Orain espero dudana da denboraldi berriari gauza batzuk aldatzea".



AINHOA SANCHEZ
ARETXABALETA

"Nik hasieratik berdinketaren alde apustu egin nuen; banekien ez zuela irabaziko. Baina azkenean dena ondo ateratu zen eta pozik nago. Aldaketak tarteko, hurrengo denboraldia ez dakit nolako izango den".



JABIER NAVARRO
OÑATI

"Azkeneko 25 minutuetara arte, oso urduri egon nintzen; gero, denboraldiko minutu lasaienak izan ziren. Merezita jarraitzen dugu lehen mailan. Datorren denboraldirako lau bat fitxaketa egingo nituzke".

ATLETISMOA | M.jose gil: "Norbere burua maitatzea da sekretua" | 27



berotzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Barkero, Levantera

Eguenean fitxatu zuen Jose Javier Barkerok Valentziako taldearekin. Aretxabaletarrak Realean jokatu nahi zituen ibilbide profesionaleko azkeneko urteak (32 urte ditu), baina lehen mailan jokatu nahi zuen eta Realak zapatura arte lortu ez zuenez mailari eustea, eguenean eman zion baietza Levanteri, hark lehendik lortu zituen-eta lehen mailan jokatzeko behar zituen puntuak.

ESANAK

"Zaleak dira klub honek daukan ondare handiena, duda barik"

JOKIN APERRIBAI | PRESIDENTEA

"Gazteei lekua egin diegu, eta horregatik ere pozik egon behar gara"

MARTIN LASARTE | ENTRENATZAILEA

"Denboraldi hasierak ez zuen errealitatea ondo islatzen"

FERTXU RODRIGUEZ | REALZALEA

"Rivas oso garrantzitsua izan da; ez dakit zela moldatuko garen orain"

AINHOA SANCHEZ | REALZALEA

IRITZIA



XABIER URTZELAI

Zer den indarrak ondo neurtzea

Stefano Garzelliri luzea egin zitzaion atzoko lasaioa, Giroko etapa erre-gina; Realari liga txapelketa besteko luze. Eta kasu bietan indarrak ondo neurtzen asmatu ez izanak zeresan handia izan duela egingo nuke apustu.

Talde txuri-urdina 24. jardunaldian kabitu ezinik zegoen, 34 puntu batuta; taldea, zaleak, eta baita astelehen izan edo egubakoitz, Realaren gainean titularrak asmatu behar dituzten kazetariak ere -meritua euren, benetan-. Eta kabitu ezinik zegoen, neurri berean, Garzelli jauna, Passo Giaon -170. kilometroan- iheskide zuen Euskalteleko Mikel Nieve atzean utzi zuenean.

Baina ligak 38 jardunaldi izan ditu, eta atzoko etapak 230 kilometro zituen. Hain zuzen, indarrak ondoen neurtu behar ziren unean, eta hurrengo jardunaldian, edo hurrengo kilometroan kontzentratu, aipatu bi adibideak harantzago begira hasi ziren. Helmugan besoak jasotzea zuen Acqua & Saponeko ziklistak gogoan, eta Realak -eta Realaren ingurukoak- Europa. Hortik aurrerakoak ondo ezagutzen dituzue, Realak kategoriari eusteko azken jardunaldira arte izan ditu zaleak sufritzen, eta Garzelli sufrikario ederra izan zuen Gardeccia-Val Di Fassa-ko azken sei kilometroetan, Nievek azken eraso jo, atzean utzi eta amestutako guztia zapuztu zitzaionean.

Zaila izaten da norbera zer egiteko gauza den jakitea. "Norberak bere mugen gainetik jarri behar ditu helburuak eta hortik aurrera, helburu horiek lortzeko gogor lan egin". Duela hamabost egun Madrilen entrenatzaile lanetan dabilen Beñat Labaien beragarriak esandakoa da -titular polita da, freskoa eta ameslaria, elitean dabiltzaneren ahotan gutxitan entzuten den horietakoa-. Baina esandako horrekin ez nator bat, ehuneko ehunean ez, behintzat. Nahiz eta gogor lan egin, oraingo eskura ez dagoen helburuarekin nahastu zen Realak, kategoriari eusteko puntuak batu gabe zegoenean [43!!!].

Azkenean izan bada ere, Realak handia egin du. Eta orain datorren denboraldiko oinarriak eraikitzen hasi beharko dira, egongo diren hutsak betetzen, eta betegarriak diren helburuak zehazten. Bide batez, zorionak Garzelliri amesgaiztoak sortarazi dizkionari.



GOIENA

MIKEL GONZALEZ
REALEKO JOKALARIA

"Guk hasieratik geneukan mailari eusteko helburua, eta pozik gaude"

Zelan, partidua bukatu eta gero?

Lasaitasun handiarekin bukatu genuen denok. Partidu tentsua izan zen, bi taldeok salbazioa genuen jokoan, eta gero lasaitasuna etorri zen.

Ze nabarmenduko zenuke partidutik?

Bukaera, horrekin batera lasai geratu ginelako. Baita eguna ere, zaleak ondoan, gure zain eta animatzen izan genituelako.

Denboraldi bukaera uste baino gogorragoa izan da, ezta?

Bai; oso gaizki jarri zen salbazioa. Denboraldi hasiera aldean, uste genuen dena eginda zegoela, edo beste helburu batzuei begira jarri ginen... Gero bolada txar bat izan genuen. Baina beheko taldeok ere puntu askorekin bukatu dugu; Deportivo 43 punturakin jaitsi da, eta horrelakorik ez da beste inoiz gertatu.

Europaz ere berba egin zen denboraldi hasieran. Horrek kalte egin zizuen?

Gure aldetik helburua oso argi egon da hasieratik: mailari eustea. Askorendako, lehenengo mailan lehen urtea zen. Baina ondo hasi ginen, eta jendeari ilusioa sortu zitzaion Europan egoteko aukerarekin. Dena dela, guk bagenekien zaila izango zela, eta salbatzea ere bai.

Zuk zeuk zelan baloratzen duzu denboraldia?

Pozik egotekoa da, eta neu ere gustura nago; helburua lortu dugu eta hori aberasgarria da niretako ere. Bestalde, nire buruarekin ere pozik nago; partidu asko jokatu ditut. Orain, pare bat egun entrenatu egingo gara, eta gero, uztailera arte oporrak hartuko ditugu, deskonektatzeko.



AINHOA OZAETA
ARRASATE

"Tentsio handiko partidua izan zen Anoetan. Gola egin zigutenean lur jota geratu ginen, baina gero lasaitasuna etorri zen, batez ere Valentziaren emaitzarekin. Zaleek dena eman zuten; olatua eta guzti egin zuten".



FERTXU RODRIGUEZ
ARRASATE

"Taldea biak gustura zeuden berdinketarekin, eta horrela bukatu zen. Urtero sufritzea tokatzen zaigu Realzaleoi, baina egia da ere behean bukatu dutenek puntu asko izan dituztela."

FUTBOLA

Bina berdindu zuen Bergarak denboraldiko etxeko azken partiduan

- Eraitza horri esker mailari eutsi zion arerioak, Donostiako Rotetak
- Zumaiakoren aurka jokatu du Bergarak azken aste bukaeran



OIHANA ELORTZA

ELOY CRESPO
JOKALARIA

"Ez dakit zer gertatu zaigun bigarren zatian; gaizki ibili gara"

Partiduko eta etxeko taldearen lehen gola zartu zuen Crespok, penaltiz.

Partiduko bi zatietan erabat joko ezberdina egin duzue.

Bai. Lehenengoan ondo ibili gara baina bigarrenean ez dakit zer gertatu zaigun. Gaizki ibili gara, bai.

Jokoak garrantzi handiago zuen emaitzak baino.

Guretako bai. Saikapenari begira, guk ez genuen ezer jokoan. Baina denboraldiko azken partidua zen etxean eta zaleei joko ona eskaini gura genien. Baina ez da horrela izan. Rotetak, aldiz, jaitziera zuen jokoan. Hemengo berdinketarekin eta bere pareko taldeak, Zumaiakok, galdu egin duelako mailari eutsi dio. Zorionak Rotetari!

Gustura denboraldiarekin?

Orokorrean, bai. Partidu eta emaitza txarrak ere izan ditugu, baina buelta eman genion horri, eta pozik, bai.

Hurrengoari begira orain?

Oporrak hartuko ditugu lehenengo, eta gero hasiko gara prestatzen.

Denok jarraituko duzue?

Batzuk hasi dira esaten ez dutela jarraituko, baina ea kontrako egiteko konbentzitzen ditugun.

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Lopez, Garitano, Arregi, Arazkoenaga, Nafarrete, Agirre, Oregi, Crespo, Iriarte, Lizarbe, Cabanillas.

Roteta: Perez, Olmos, Elizalde, Miguel, Solana, Agirre, Alduntzi, Diez, Carrera, Gurrutxaga, Santamarina.

Epailea: Enrike Ayasa. Bederatzi txartel hori atera zituen, sei Rotetari eta hiru Bergarari. Etxeko taldeari ateratako hiru txartelatik bi, Julen Iriarteri atera zizkion. Ondorioz, Bergarak 10 jokalarirekin jokatu zituen partiduko azken 8 minutuak.



Bergara taldeko Ander Nafarrete, baloiarekin, eta Rotetako bi jokalarirekin, Ayasa epailearen begiradapean. | JOSETXO ARANTZABAL

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Denboraldiko azken partidua jokatu zuen Bergarak etxeko futbol zelaietan, Agorrosinen. Ez zuen ezer jokoan eta beraz, emaitzak berak ez zion asko axola, baina bai joko ona egiteak. Baina ez zuen lortu. Lehen zatian ondo jokatu zuen, bai, baina bigarrenean, "desastre", Oskar Maiztegi entrenatzaileak berak aitortu moduan partidua bukatzean.

Crespo eta Oregi

Bergarak ez zuen ezer jokoan, baina bai Rotetak. Donostiako taldeari irabaztea komeni zitzaion, mailaz ez jaisteko. Lehen zatian, baina, Bergara izan zen nagusi.

Etxeko taldeak gidatu zuen partidua eta gola egiteko aukera gehien ere etxekoek izan zuten. Bi golak ere lehen zatian egin zituen Bergarak. Lehenengo, 14. minutuan sartu zuen Eloy Crespok, penaltiz. Bigarren gola, atsedenaldira joan baino 13 minutu lehenago sartu zuen Mikel Oregik. Baloiak atearren eskuin zutabea jo zuen lehenengo eta

errebotean Oregiren hanketara joan zen. Horrek errematatu, eta gola.

Roteta, jaun eta jabe

Bigarren zatia bestelakoa izan zen etxeko taldearendako. Gogoz hasi bazuten ere, Rotetako mutilek laster hartu zuten kontrola. Erasoari ekin zion eta Lopez atezainak baloi asko gelditu arren,

kanpoko taldearen lehen gola etorri zen. Hortik aurrera, Roteta gora joan zen, eta Bergarak ez zuen asmatu aurre egiten. Etxekoek izan zituzten gol aukera apurrak garbiak izan ziren, baina sekulako hutsak egin zituzten. Partidua bukatzeko 8 minutu falta zirela 10 jokalarirekin gelditu zen Bergara eta 91.ean, kanpokoek bigarren gola egin zuten.



FUTBOLA

JOSETXO ARANTZABAL

Aloña Mendiko gaztetxoek ezin irabazi

Gaztetxoaren ohorezko igoera faseko partidua jokatu zuen Aloña Mendik zapatuan Donostiako Kostkas taldearen aurka, eta ezin izan zuen irabazi; 0 eta 1 galdu zuen Azkoagainen.

Aloña Mendiko kadete mailako taldeei dagokionez, berriz, mutilek 2 eta 0 irabazi zioten Añorgari eta ohorezko mailara igo dira. Neskek, bestalde, 0 eta 3 irabazi zioten Ilintxari Legazpin, eta finalera pasa dira.

FUTBOLA

Mondrako gaztetxoek nagusien pare jokatu zuten, eta 0 eta 1 irabazi zioten Pasajes taldeari zapatuan

Mondrako gaztetxoak atera zituen Iban Rodriguez entrenatzaileak Pasajes aurka jokatzeko, eta ez da damutu. "Lehenengo 45 minutuan eta bigarren erdiko zati baten jokatu dute, eta oso ondo, gainera", adierazi du Rodriguezek. Partidua borobiltzeko, gainera, azken minutuan sartu zuen Mondrak partiduko gol bakarra; Jokin Pavo izan zen golegilea.

FUTBOLA

3 eta 2 galdu zuen Aloña Mendik Idiazabalen kontra, bigarren zatian jaun eta jabe izan arren

Lehenengo 30 minutuak pasa orduko, 3 eta 0 ari zen galtzen Aloña Mendi. Lehen zatia bukatu orduko sartu zuten oñatiarrek lehen gola; Aritz Garmendiak, penaltiz. Bigarren zatian Idiazabal baino gehiago izan zen Aloña Mendi, baina Iñigo Arregik bigarren gola sartu bazuen ere, ezin izan zuten gehiago egin. Datorren asteburuan Pasajes etorriko da Azkoagainera.

FUTBOLA

UDA da ondoen sailkatuta dagoen bailarako taldea: laugarren jarri da Hondarribiari 3 eta 0 irabazita

Aretxabaletako futbol taldeak, UDAk, 3 eta 0 irabazi zion atzo arratsaldean Hondarribiari. Ez bata ez besteak ez zuen ezer jokoan, baina Juanan Cruz entrenatzaileak zegoen, "etxeko azken partiduan joko eta emaitza ona eman diegulako zaleei". Julen Egañak sartu zuen lehen gola, lehen zatian, eta Oñatz Agirrek bigarrena eta hirugarrena, bigarren zatian. Atzoko emaitzarekin laugarren jarri da sailkapenen orokorrean UDA; ondoen sailkatuta dagoen ibarreko taldea da Aretxabaletakoa.

PILOTA

Bergara Herri Arteko Pilota Txapelketatik kanpo geratu da

Aurkariak "gogor eta ondo" jokatu zutela esan du Bergarako entrenatzaileak

ASIER ALKORTA | BERGARA

Azkoitiarrak izan ziren eguba-koitzean garaileak, bergararrak atzean utziz (1-2). Herri Arteko Txapelketak aurrera jarraitzen badu ere, Bergara kanpoan geratu da. "Azkoitik gogor eta ondo jokatu zuen eta guk ez genuen

egunik onena eduki. Tanteoan irabazi digute", dio Reyes Azkoitia Bergarako entrenatzaileak.

Azkoitian irabazi egin bazuten ere (2-1), oraingoan ezin izan dute aurrera jarraitu (1-2). "Ez genuen gure mailarik onena eman eta irabazi egin digute".

Kadeteetan "uste baino tanto gehiago" egin zutela esan du Azkoitiak. "Tanteoan baina aurrea hartu ziguten".

Azkoitiarrak "oso ondo" jokatu zutela esan badu ere, entrenatzaileak argi utzi du Bergarak ez zuela mailarik onena eman. "Partidua gogorra izan zen, baita ikusleentzat ere".

Hala eta guztiz ere, gertatutakoak gertatuta, jokariak ez daudela burumakur esan du Azkoitiak. "Guk argi daukagu bi aukera daudela: irabaztea edo galtzea. Oraingoan galdu egin dugu beraz irabazleei zorionak eta gu datorren urtean saiatuko gara berriz".

Egindako lanarekin "pozik"

Orokorrean, txapelketa osoan egindako lanarekin "gustura" geratu direla gaineratu du. "Pena apur bat ere badaukagu, nagusien mailan zer edo zer gehiago egin genezakeelako".

Halaber, behin txapelketatik kanpo daudela, orain bihar jokatuko den Bergara Hirian dena ematen saiatuko direla esan du. Nagusien mailan, Mendizabal eta Irureta Garraldaren eta Uzkudunen aurka lehiatuko dira.



Bergarak Txapelketa atzean laga du, "pena handiarekin". | JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

TXIRRINDULARITZA

Etorkizuneko izarrak, Markuleten

Alebin eta infantil mailako txirrindularien lasterketa izan zen zapatuan Arrasateko Markuleten. Gipuzkoako beste talde batzuekin batera, Dorletako Ama, Aloña Mendi eta Lokatzako txirrindulariak izan ziren lasterketan; 61 txirrindulari, guztira. Alebin mailan, Imanol Alvarez elgoibartarrak irabazi zuen mutiletan eta Irati Barrena oñatiarra izan zen lehena nesketan. Infantil mailan, Oier Iburguren azkoitiarra mutiletan lehenengo eta Maite Orbea nesketan.



Aukerazko

IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS

2011 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Galaxy TDCI 21.900 €
2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- Ford Fiesta 70 ZP 10.300 €
2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Ford Focus TDCI 140 ZP 20.500 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Kuga TDCI 140 ZP 28.900 €
2011 | Diesela | Beltza | 4.000 Km
- Audi A3 TDI 140 Sportbreak SPORT 18.900 €
2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 105 ZP Sport 11.700 €
2008 | Diesela | Beltza | 48.000 Km
- Seat Leon TDI 140 ZP 9.700 €
2006 | Diesela | Zuria | 110.000 Km
- BMW 360 D. Automatic Pack M 167 ZP 17.500 €
2006 | Diesela | Beltza | 110.000 Km
- Peugeot SW Sport Pack 2000 HDI 9.800 €
2007 | Diesela | Grisa | 90.000 Km
- Ford Transit Nugget 2.0 TDCI KM 0 (Berria) | Diesela | Plata edo aukeran



28.700 €


> Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT

2010 | Diesela | 29.649 Km



- Audi A3 1.9 TDI E DPf ATTRACTION 18.400 €
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPf 26.900 €
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPf REFERENCE ST 20.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 150 Km
- Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 150 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



17.250 €

> Citroen C5 Hdi Premier 110

2009 | Diesela | 38.000 Km

CHAPIME

SAN ANDRES AUZOA 5.
ARRASATE
TEL.: 943 79 45 22.



Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- Peugeot 308 1.6HDI Sport FAP 6 vel 11.850 €
2008 | Diesela | Beltza | 59.000 Km
- Peugeot 307 SW 1.6HDI Pack+ 110 12250 €
2008 | Diesela | Beltza | 37.100 Km
- Citroen C3 1.4HDI Cool 8.999 €
2009 | Diesela | Gris argia | 33750 Km
- Citroen C5 1.6HDI S 17.500 €
2009 | Diesela | Beltza | 37.000 Km
- Citroen C5 2.2HDI Exclusive CAS 31000 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 1000 Km
- Citroen C4 1.6HDI Sport 17500 €
2011 | Diesela | Txuria | 1250 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO Hdi 110 65000 €
2007 | Diesela | Nocchiola | 65000 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO CMP 138 14500 €
2007 | Diesela | Alumiu Grisa | 53300 Km
- PEUGEOT 807 SV Hdi 136 14500 €
2007 | Diesela | Alumiu Grisa | 53300 Km

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05

SASKIBALOIA

Pozik ibili dira bailarako gaztetxoak 3X3 saskibaloitxapelketan

Saskibaloia sustatzeko helburuarekin egindako ekimenak gaztetxo eta guraso ugari erakarri zituen Arrasateko Laubide plazara, zapatuan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Azken hamasei urteetan maiztzeke azken bigarren asteburuan egin dute 3x3 saskibaloitxapelketa Arrasateko Laubide plazan. Aurten ere halaxe egin zuten zapatuan.

Leintz Eskola Kirola eta Ointxe! saskibaloitxapelketa antolatuta, 106 taldek hartu zuten parte saskibaloitxapelketan, guztira 580 neska-mutikok gutxi gorabehera.

Gaztetxo gehienen asmoa irabaztea baldin bazen ere, Gorka Gabilondo Leintz Eskola Kirola koordinatorak esan zigun euren helburua dela saskibaloitxapelketaren bultzatzea eta gaztetxoek parte hartzea. Izan ere, 3x3 saskibaloitxapelketan gaztetxoek ondo pasatzeko aukera izateaz gain, inguruko herrietako lagun berriak egiteko momentu aproposa ere izaten dute.

Ikasleek urte guztian zehar kirol aukera anitzak izaten dituzte eta, nahiz eta azken urteotan saskibaloia suspertu egin den, are gehiago indartzen laguntzen dute horrelako taldeko ekimenek.

Inguruko animuak

Laubide plazan jarritako hamabi kantxen inguruetan, jokalariek gain, haien lagunak eta gurasoak ere izan ziren, parte hartzen zuten gaztetxoak animatzen. Oihu eta txalo horiek indarra eman zieten neska-mutikoei euren aurkariaren aurrean gogotsu defendatzeko, jokatzeko eta erasora joateko ere.

Emaitzak alde batera utzita, guztiendako egun atsegina eta dibertigarria izan zen zapatukoa.

Koordinazio lana

Esan dugu 580 neska-mutikok hartu zutela parte aurtengo 3x3 saskibaloitxapelketan eta horiek



Arrasateko Laubide plazan gaztetxo eta guraso ugari elkartu ziren zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

DATUA

580

GAZTETXO

106 taldek hartu dute parte; guztira, bailarako 580 neska-mutikok.

guztiak koordinatzeko lan handia egin behar izan zuten antolatzaileek eta beste hainbat lagunek. Guztira 50-60 lagun bitartean ibili dira ekimena aurrera ateratzen. Bost koordinatzaile ordu-tegiak eta kanporaketak kontrolatzen ibili ziren, kantxa bakoitzean epaile bat eta arratsaldeko partiduetarako Ointxe! elkarteoko jokalaria ibili ziren epaile lanetan.

Zapatuan, 07:30ean elkartu behar izan ziren saskiak jarri, guztia muntatu eta hesiak jartzeko. 10:00etan hasi ziren partiduekin eta arratsaldeko zazpietan eman zioten amaiera egun guztiko jardunari.



Baloia saskiratzera doan momentu bat. | J.A.



Gaztetxoak, euren partiduetako emaitzak ikusten. | J.A.



XABI ZUBIZABEITIA
ARETXABALETA

"Aurreko urtean ere hartu genuen parte eta oraingoan hamar lagun etorri gara. Bi partidu jokatu ditugu eta biak galdu ditugu, beraz, kanporatuta gaude. Hala ere, merezi izan du ondo pasatzera etorri baikara."



IÑAKI AZKUNAGA
ARETXABALETA

"Oso ondo pasatu dut nire lagunekin, eta neska-mutiko berriak ere ezagutu ditut gaurko partiduetan. Saskibaloian bestela ere jokatzeko dugu eskolako jantoki orduetan eta gustatzen zaidan kirola da."



EIDER ZUBIZARRETA
ARRASATE

"Hainbat partidu jokatu eta gero, finalera iritsi gara eta oso pozik nago. Egia esan ez dugu gehiegi entrenatu, baina hala ere, erraz irabazi dugu. Beste herri batzuetako lagunak ere egin ditut eta gustura nabil."



IRATI TELLERIA
ARRASATE

"Bost lagun gaude eta guztiok talde bat osatu dugu. Goizeko 10:00etan hasi gara partiduekin eta momentuz guztiak irabazi ditugu. Bederatzi urte ditut eta gustura hartzen dut parte horrelako ekimenetan."

MENDIA

Ehunmilak probarako izenemate epea, hilaren 31ra arte

Uztailaren 15ean egingo dute Ehun Milak probako bigarren edizioa, eta bertan parte hartzeko izenemate epea ixtear dago. Interesa duenak hamabost egun dituzten emateko, hilaren 31 izango da eta azken eguna. Aurtengo Ehunmilak probak eramango ditu, berritua, mendizaleen indarrak mugaraino. Ibilbide luzea aukeratzen duenak 168 kilometro izango ditu betetzeko (11.000 metroko desnibel positiboa). Eta, ibilbide motza aukeratzen duenak 88 kilometro. Hala, maiatzaren 31 da izena emateko azken eguna, jakinda, proba horretarako izena ematea ez dela azken unean okurritu ahal zaigun zerbait, hilabeteetako entrenamendua behar delako.

MENDIA

Besaideko beteranoen irteera Aralarra izango da aurten

Besaideko Beteranoen X. Irteeran izena emateko aukera dago maiatzaren 28ra arte. Ekainaren 4an egingo dute, eta Aralarra joango dira. 07:00etan batuko dira Gari-bain hara joateko, eta 19:00etan irtengo dira handik bueltan. 16 kilometroko ibilbidea egingo dute, bost bat orduetan egiteko. Prezioak iazko berberak dira. Ordaintzeko, Euskadiko Kutzako 3035 0202 76 2021021758 kontu korrontean diru sarrera egin behar dago, izen eta abizenak jarrita.

Bestalde, ezohiko batzarrera deituta daude bazkide guztiak ekainaren 7an, Kulturategi Loramendi gelan, 18:45ean eta 19:00etan. Besteak beste, Besaide Mendizale Elkartearen estatutuak aldatzea onartuko dute.

URPEKARITZA

Nazioarteko txartela lortu daiteke ikastaroa eginda Musakolan

Urpekaritza ikastaroa emango dute Arrasateko kiroldegiko igerilekuan, ekainaren 1ean hasita. Parte hartzen dutenek nazioarteko urpekaritza txartela jasoko dute. Izena eman nahi dutenek 420 euro ordaindu behar dituzte; igerilekuetako abonatuak, 390. Prezioaren barruan dago ikastaroko material guztia. Gutxienez 12 urte izan behar dute parte-hartzaileek.

Hiru atal ditu, bat teorikoa eta beste biak praktikoa. Atal teorikoa eta atal praktikoa bat –igerilekuan– Musakolan izango dira, eta bigarren atal praktikoa, itsasoan egin beharrekoa, Getarian.

Informazio gehiago KSUB urpekaritza eskolan: 943 14 01 85 edo 678 903 678.

Mari Jose Gil | Arrasate Atletiko atletismo taldeko kidea

"Gazteak eskaierak igotzen arnasestuka ikusten ditudanean pena hartzen dut"

- ▶ Maria Jose Gilek Espainiako bi errekor ondu ditu aurten, 70 urterekin
- ▶ Duela hiru urte egin zioten ebakuntzatik errekuperatu ostean egin ditu errekorrak

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Lasterketetan dabilen Debagoieneko atleta beteranoena da Maria Jose Gil, eta Gipuzkoan hiru atleta daude bera moduan 70 urte bete dituztenak. 2008ko azaroan hankan ebakuntza delikatu egin zioten, tumore bat kentzeko. Eta, zortzi hilabete geroago lasterketa bateko irteera puntuan zen berriro ere, errekuperatuta. Gozatu hutsa da emakume honekin atletismoaz, bizitzako erronkez, eta datozen urteotarako dituen asmoez berba egitea. Elkarrizketa amaitutakoan Mojategiko pistan utzi dugu, 1.000 metroko serieak egiteko asmoz.

Etxean baduzu domina eta trofeo gehiagorendako lekuri?

Bai, garaje handia dugu [Barre]. Zapata kaxetan gordetzen ditut domina gehienak, eta trofeoak ere han eta hemen ditut.

Zein da mimo bereziz gordeta duzun domina hori?

Parte hartu nuen lehenengo lasterketakoa, Erandion izan zen, 1993an, eta hirugarren egin nuen.

Berandu hasi zinen lasterketetan parte hartzen.

Oso berandu! Pentsa, 52 urte ingururekin hasi nintzen lasterketetan parte hartzen. Lehenago ere korrika egiten nuen, baina lagunartean, edo nire kontura.

Denboraldia zelan doan galdetu behar nizan, baina dagoeneko hainbatetan izan zara Espainiako Txapelaldun, horrenbestez, bikain.

Ezin naiteke kexatu, hori da egia. Martxoan Malagan -Antequeran- pista estaliko Espainiako Txapelketa irabazi nuen, eta 1.500 eta 3.000 metrotako lasterketetan errekorra ondu nuen [6.42 eta 14.21]. Eta apirilean Kantabrian -Camargon- ere lehenengo izan nintzen, baita Haroko krosean ere. Baina egia da ebakuntza izan nuen hanka burukomin bat edo beste ematen hasi zaidala, eta erritmoa jaitsi egin dut apur bat.

Zein da gogokoen duzun distantzia?

Zalantza barik, 1.500 metrokoa. Hor ibiltzen naiz gusturen. 5.000 metrokoa ere egiten dut, baina geroago eta gehiago kostatzen zait distantzia hori betetzea; pista honi 12 itzuli ematea da, eta...

Zure sasoiak ikusita, adineko lagunek inbidia izango dute, ala?

Asko mugitu ere ezin dira egin!!! [Barre]. Bromak alde batera utzita, gazteak eskaierak igotzen arnasestuka ikusten ditudanean pena hartzen dut, baita ni baino



Maria Jose Gil, aste barruan, Mojategiko atletismo pistan. | XABIER URTZELAI

gazteagoak diren emakumeak ikusten ditudanean ere. Mugitu egin behar gara!

Erretiratuendako antolatzen dituzten irteeratar joaten garenean nire adinekoekin elkartzeko naiz, eta aurrekoan, emakume batek esaten zidan etxetik irten ere ez dela egiten. Eta nik esaten nion mugitu egin behar zela, paseatzera irten.

Esan, baina, non dago sekretua? Norbere burua maitatzean, duda barik. Nik egiten ditudan gauzak nihatik egiten ditut, ez beste ino-

"Zalantza barik, 1.500 metroko distantzian ibiltzen naiz gusturen"

"Norbere burua maitatzean dago sekretua; ez dago besterik"

rengatik. Eta lasterketetara joaten naizenean ere borroka handiena nire buruaren kontra izaten dut. Pentsa, lasterketan atzean utzi dudana norbaitek aurrera hartzen badit, amorratu beharrean askotan lasaitu egiten naiz. Eta ondoren nire gizonak esaten dit ea tontotu egin naizen [Barre].

Esaterako, Antequeran gertatu zitzaidan 800 metroko lasterketa amaitzeko azken metroetan atzetik zetorren atleta batek aurrea hartu zidala. Musika tar-teko ez nion igarri atzetik zeto-

rrenik, baina ondoren ere ez nuen abiadura areagotu. Ni nire erritmoa nindoan, eta nire buruaren kontra nenbilen konpetitzen. Harmailetan, baina, gizona hase-rreru egin zitzaidan [Barre].

Gaixotasun larri bat gainditu eta korrika egiten jarraitu duzu.

Gimnasioan zenbat ordu egin ditudan... Zorionez tumore ona zen, eta garaiz kendu zidaten. Eta zortea izan dut, medikuak ere korrika egiten zuelako eta hark asko animatu ninduelako. Eta, beherakadak izan ditudanean Andoni fisioterapeutak ere asko lagundu nauelako. Baina, ni ezin naiteke geldi egon, ebakuntza egin eta zortzi hilabetera egin nuen lehenengo lasterketa, gogoan dut, Durangon; Euskadiko Txapelketa zen.

Hurrengo erronkak?

Ekainean edo uztailean Munduko Txapelketak egingo dituzte Coloradon (AEB) eta gustura joango nintzateke hara. Baina, zelako aurrekontua behar den! Gainera, hemen dena futboleant gastatzen dugu... Dena dela, 2013an Donostiara ekarri nahi dituzte Europako beteranoen txapelketak, eta hitzordu horretan egoteak ilusioa egingo zidan.

Eta zergatik ez? Badira zu baino nagusiagoak.

Bai, egia da. Hemen ez da oso ohikoa, baina txapelketetara joaten naizenean jende oso nagusia ikusten dut. Madrilen bada 77 urteko emakume bat korrika egiten duena, eta ikusi egin behar da beroketak egiten dabilenean zelako gimnasia-ariketak egiten dituen.

Zelan entrenatzen zara?

Urteko sasoiaren arabera, baina nire adinean ezin naiz hamabost egun geldi egon, bestela, ea nork mugituko nauen gero... Oraingo astean, esaterako, martitzenean abiadura lantzen ibili nintzen, 100 metroko hamabost serie egin nituen. Martitzenean 300 metroko serieak egin nituen, eta baita eguaztenean ere; 800ekoak egin behar nituen, baina ez nenbilen gustura. Eta, gaur [egubakoitza] mila metroko serieak egin nahi ditut.

Eta, urtean zenbat zapatila pare apurtzen dituzu?

Pare bat zapatila edo... Lehen pistan ibiltzeko iltzedun zapatilak erabiltzen nituen, baina Fernandok [Zufiria] gomendatu zidan gehiago ez erabiltzeko. Horiakin pauso bakoitzean hankak asko altxa behar dira, eta guk arrastaka eramaten ditugu! [Barre].

HEZIKETA

Uda sasoian ugaritu egiten dira konjuntibitis kasuak, gehienbat haur txikiengan

Lehenengo eguzki-izpiak, hondartza eta igerilekua infekzio bide izan ohi dira

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Udaberrian, polenen eraginez, konjuntibitis alergikoak dira ohikoenak. Udan, aldiz, bakterio bidezkoak agertzen dira eta batik bat haurrei eragiten diete. Bakterio bidezko konjuntibitisaren dako antibiotikoak izaten dira sendagaiak eta kolirio edo tanta bidez ematen dira.

Prebentzio neurriak

Igerilekuak eta hondartzak infekzio iturri garrantzitsua direla jakin behar dugu prebentzio neurriak hartu gura dituzten gurasoek.

Igerilekuetan kloroaren edo ura desinfektatzeko erabiltzen diren substantzia kimikoen eraginez sortzen da konjuntibitisa. Adituek uretan gai kimiko gutxiago duten igerilekuak aukeratzeko gomendioa egiten dute eta uretako betaurrekoak erabiltzeko. Gainera, garrantzitsua da



Haurra konjuntibitisarekin. | GLOM

infekzio bidezko konjuntibitisa duten pertsonak igerilekuan ez bainatzea. Hondartzan urak gatz gehiegi daukalako ager daiteke gaitza edo begiak eguzki izpien eta haizearen eraginpean daudelako. Baita itsasoko urak islatzen dituen izpi ultramoreengatik.

Konjuntibitisa ez kutsatzeko

Aholkuak betikoak dira; maiz garbitu eskuak, ez begirik ukitu, ez toallarik edo zapirik partekatu, aldatu oheko burukia. Konjuntibitisa hobera egin ohi du 24-48 orduren buruan. Horrela ez bada, joan medikuarengana.

16 asteko prestazioa bilobaren kargu egin den amama batendako

Epaitegi batek adopzio edo harrera egoera batekin parekatu du kasua lehenengo aldiz

L.Z. | ARRASATE

Zaragozako epaitegiaren erabakia hartu du abiapuntu Onintze Guridik *Guraso.com* atari digitaallean amatasun eta aitatasun bajak gurean zertan diren azaltzeko. Zaragozako emakume batek bilobaren kargu egin behar izan du alabaren heriotzaren ondoren, eta epaitegiak adopzio eta harrera egoeretara parekatu du kasua.

Lehenengo aldia da epaitegi bat horrelako ebazpen batera iristen dena. Kasu berezia da: "Adingabeko baten gaineko tutoretza izendapena, tutorea familiako norbait denean, zeinak ezin duen adingabeko hori adoptatu araudi zibilaren arabera".

16 asteko prestazioa

Espainiako Langileen Estatu-tuak finkatzen du emakume langileek 16 asteko baja eskubidea dutela amatasun egoeratik. "Europar zortzigarren postuan gaude", dio Guridik. Lehenengo sei asteak kenduta, gainerakoak aitak har ditzake gurasoak adostasunera iristen badira. Tipifikatuta dago, halaber, erditzean zehar edo ondoren amaren heriotza gertatzen bada aitak har ditzakeela 16 asteak osorik. Edozelan ere, hortik aurrera ez dago ezer jasota. Interesa izanez gero, Guridik edoskitze baimenari, eszedentziari eta lanaldi murrizketari buruz ere badihardu artikuluan.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

JAKINGAI

Dementziak eta deshidratazioa

Txomin Heriz

Arizmendiko irakaslea

Giza-gorputzaren %60 ura bada, ez dago azaldu beharrik zein funtsezkoa den ura gorputzaren funtzionamendu egokirako. Batzuk aipatzeagatik, zerrenda berez luzeagoa da-eta, digestioaren zukuak sortzeko da ezinbestekoa ura, arnas aparatua garbitzeko, mukositatea sortzeko, gernuaren bidez toxinak kanporatzeko eta abar. Baina uraren funtzio garrantzitsuena zelularen barne oreka mantentzea da.

Baina, betiko galdera: zenbat ur edan behar dugu egunean? Erraz erantzunda, esan daiteke beharren arabera edan behar dela. Hala ere, gutxieneko bat ezinbestekoa da edozein dela egoera; gainera, horri gehitu behar zaizkio ur-galerak, eta horiek aldakorrek izan daitezke. Gorputzak badaki elikagaietatik ura ateratzen, eta behar diren lekue-

tan eta prozesu metabolikoetan ura erabiltzen. Dena den, egun jakin badakigu elikagaietatik hartzen den ura ez dela nahikoa eta gorputzaren funtzionamendu osasuntsurako ura edatea kome-ni dela.

Datu zehatzak ematearren, eguneko ur-eskakizunen gomendioa pertsona heldu batendako eta osasun-egoera normal baten batez bestean bi eta 2,5 litro bitarte da; gizonezkoendako hiru litro eguneko eta emakumezkoendako 2,2 litro eguneko.

1,4 litro ur eguneko

Edaten dugun likido kopurua, batzaz beste, 1.400 ml edo 1,4 litro da. Elikagaietan dagoen ura 700 ml edo 0,7 litro da eta elikagaien errekuntzatik sortzen dugun ura — oxidazioa — 200 ml edo 0,2 litro da. Beraz, eguneko ur eskakizuna 2.300 ml edo 2,3 litro da batez beste.

Datu horiek ikusirik dieta berezirik gabeko pertsona batek eta egoera normal baten batez

beste 1,4 litro ur edo likido edan behar du eguneko.

Nagusiek, 2-3 litro eguneko

Gernua edo txizaren bidez 1.400 ml edo 1,4 litro galtzen dugu egunean. Gorozkiekin 100 ml edo 0,1 litro, azaletik 100 ml edo 0,1 litro, izerdiarekin 350 ml edo 0,35 litro eta, azkenik, arnasketaren bidez 350 ml edo 0,35 litro. Hortaz, eguneroko ur-galerak 2.300 ml edo 2,3 litro dira, batez beste. Pertsonak gai gara uraren beharriaren erregulatzeko, eta egarria sentitzeak erregulazio horretan lagundu egiten digu. Dena den, egarri sentsazioa, txikia bada ere, deshidratazioaren adierazle da; beraz, ez genuke inoiz egarriak egon behar. Hirugarren adinean egarriaren sentsazio-muga igo egiten da, eta dementziaren bat pairatzen duten pertsonak ezin dituzte premiak ondo adierazi. Bero sasoian, 2-3 litro/eguneko edan behar da; egun arruntetan, 1,5 l/eguneko.



Nagusiak itzaletan atsedean hartzen. | MUNDU DESCONCERTANTE

UR GALERAK EGUNEKO

	GALERAK EGUNEKO	GALERAK KLIMA BEROETAN
Azala	350 ml	350 ml
Arnasa	350 ml	250 ml
Gernua	1500 ml	1200 ml
Gorozkiak	150 ml	100 ml
Izerdia	150 ml	1400 ml
GUZTIRA	2,5 litro	3,3 litro

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA



Tailerreko parte-hartzaileak ariketa egiten, Unai Elorriaga idazlearekin. | JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

UNAI ELORRIAGA
IDAZLEA

"Euskaraz kasu egin diegu mikrotestuei, eta ipuin onak daude"

Unai Elorriaga idazle getxo-
tarra izan zen irakasle mikro-
testuen tailerrean.

Azken aldian ipuin-liburu asko argitaratzen ari dira euskaraz. Moda da?

Euskaraz ipuingile onak egon dira, eta batzuk ipuingile baino ez dira. Joseba Sarrionandia oraintsu arte poeta eta ipuingilea izan da; gero *Lagun Izoztua* idatzi du, baina ipuingilea da batez ere. Iban Zaldúa ipuingilea da. Inguruko literatura-ekin konparatuta euskaraz kasu asko egin diogu generoari eta ipuin onak daude.

Twitterreko mezuei ere mikrotestu esaten zaie.

Twitterrekoa egiten dabilen genero bat da, eta oso interesgarria. Azken finean, testu batek beti dauka helburu bat eta beti lortu behar du inpaktu bat hartzailearengan, eta hori egiten jakin behar da. Twitterren modu batera edo bestera idatzi, batzuetan iritsiko zara jendearengana eta beste batzuetan gauza bera esanda ez duzu lortuko.

Orain nobela bat idazten ari zara.

Duela gutxi hasi naiz. 2009an bukatu nuen aurrekoa eta hurrengo nago prestatzen, dokumentatzen, egituratzen... Duela hilabete bi hasi nintzen idazten eta ez dakit noiz irten go den, 2013an, 2014an, 2015ean... auskalo!

Ipuin libururik argitaratzeko asmorik ez duzu?

Hasi nintzen ia mundu guztia moduan ipuinak idazten. Batzuk badauzkat, hogeit bat. Askok dira aspaldi idatzitakoak, besteak orain idatzitakoak, egin beharko nuke berriro errepasatu, landu eta hori lan handia da. Egunen batean hartu beharko dut lan hori, baina oraindik ez.

Irakurleei irribarretxo bat sorrarazi edo zerbait pentsarazi: horiexek ipuin on baten gakoak

- ▶ Ipuin on bat nola idatzi ikasten aritu ziren zapatuan Kulturaten, Literaturjauziak ekimenaren barruan
- ▶ Mikrotestu edo ipuin batek irakurlearengan "zerbait mugitu" behar duela esan du Unai Elorriagak

USOA AGIRRE | ARRASATE

Zela idatzi mikrotestu edo ipuin on bat? Horixe ikasten aritu ziren zapatuan Kulturaten Unai Elorriaga idazlearekin, AEDk antolatutako Literaturjauziak ekimenaren barruan. Galdera hori eginda, idazleak berak ere formularik ez zuela aitortu zigun, baina garbi dauka irakurlearengan "zerbait mugitu" behar duela testu txiki horrek: "Izan dai-teke harrিতa uztea, intelektualki pentsaraztea edo, beste barik, irribarretxo bat sortzea. Inpaktu moduko bat sorrarazi behar dio".

Mikrotestuak idazteko, eza-gutu egin behar dira, eta hori izan zen ikastaroan egin zutena: mikrotestuen ezaugarriak eza-gutu zituzten, beste genero luzeagoetatik bereizteko eta, horrez gain, ikasi zuten zelako egitura izan behar duten eta nola egituratu testua. Mikrotestu edo ipuinek izan behar dituzten ezaugarrien artean, hauek batzuk: inpaktatu egin behar du, soberan dagoen testu guztia kendu behar da eta pertsonaiak ondo orraztu behar dira.

Formularik ez dago, beraz, baina horrelako aholkuek lagun-

tzen dute ipuin onak idazten. Elorriagak ez du sekula ipuin-libururik argitaratu, baina idazten ditu tarteka aldizkari edo egunkarietarako: "Egia esan, oso-oso gustura aritzen naiz. Nobela da gehiago egoteko eta bueltak emateko gauzei. Mikroipuinak dira flash bat, eta ederto pasatzen duzu idazten". Horixe, bada, idazlearen esperientzia. Idazten ondo pasa nahi duenarendako aukera ona dira mikrotestu edo ipuinak.

Literatur ekimenak, astean

Liburuak aske izeneko ekimena hasiko da gaur: herriko txoko

desberdinetan liburuak utziko dituzte gaur, nahi duenak hartu eta, irakurri ondoren, berriz ere herriko txoko batean uzteko. Bihar, martitzena, Koldo Izagirrek *Autopsiarako frogak* izeneko saikeraren aurkezpena egingo du Kulturaten. Eguaztenan, maia-tzaren 25ean, 30 herritarrek irakurraldi herrikoia egingo dute Seber Altuben, eta irakurketarekin batera, bigarren eskuko liburu eta CD azoka egingo da. AED-ren antzerki tailerreko kideek *Leiduteko irrikaz* izeneko kale antzerkia egingo dute eguenean Arrasateko alde zaharrean.



ENEKO BARBERENA
PARTE-HARTZAILEA

"Literatur-zalea izanda oso interesgarria iruditu zait tailerra eta asko ikasi dut. Ipuin on bat zelan idatzi jakiteko gako asko eman dizkigu eta orain idazteari ekin beharko diogu."



JOKÍN OROBENGOA
PARTE-HARTZAILEA

"Balio izan dit apur bat burua martxan jartzeko. Idatzi egiten dut, baina helburu jakin barik eta ez dut sekula argitaratu. Horrelako ikastaroak ondo etortzen dira esnatzeko."



ITXARO ARTOLA
PARTE-HARTZAILEA

"Esan digu euskaraz norberaren teknikak egiteko modu on bat dela itzulpenak egitea. Norberak dauzkan joerak gainditzeko euskarara itzulpenak egitea. Gogoeta polita iruditu zait."



AITZIBER ARANBURUZABALA
PARTE-HARTZAILEA

"Polita izan da eta talde txikia izanik lagun arteko tailerra izan da. Oso interesgarria izan da eta luxu bat horrelako idazle bat aurrez aurre izatea. Orain, ez dakit zer irtingo den hemendik."



Ken Zazpikoak taula gainean. | JOSETXO ARANTZABAL

Abesti zahar eta berriak, Amaia giroa berotzeko

Disko berria aurkeztera etorri ziren Ken Zazpikoak eta betiko abestiekin berotu zuten antzokia.

USOA AGIRRE | ARRASATE

PVL HAVOC izenez aurkezten den Pedro Gracia bakarlariak eman zion hasiera egubakoitzean Amaia antzokiko gauari, disko berriko (*Penny Lancaster*) abestiak eskainiz folk rock doinu amerikarrarekin. Donostiarrak bazekien Ken Zazpi entzutera joanak zirela gehienak eta giroa berotzeko Laboaren *Txoria txori* abestiaren bertsio folk-rockeatua jo zuten, La Buena Vidako Pedro San Martini eskainia. Gitarra eskuan eta ahots sakonarekin emanaldi txukuna egin zuten askori Bob Dyla-

nen hasierak gogorarazten dien bakarlariak.

Donostiarraren ordu erdiko saioaren ostean iritsi ziren Ken Zazpiko bizkaitarrak. Publiko arteko eskaileretatik behera sartu ziren antzokira, bertan bildu ziren gaztetxoan oihera artean. Izan ere, gaztetxoak ziren Amaia bete zuten gehienak.


Abesti berri eta zaharrak

Orzemugak begietan izeneko disko berria ekarri zuten besapean eta disko horretako abestiak izan ziren kontzertu hasieran jo zituz-

tenak. Aurrera egin ahala, baina, abesti berri eta zaharrak tartekatuz zituzten, eta entzuleek gustura eta aulkitik jaikita abestu zituzten dagoeneko klasiko bihurtu diren Ken Zazpiren abestiak: *Ilargia* eta *Ez da ezer betiko*, adibidez.

Taldeak gustura laga nahi izan zituen entzuleak eta saiatu ziren giroa berotzen. Eñaut Elorrieta abeslaria eskenatokitik jaitsi eta pasilloan abesten aritu zen momentu batez, ondoan zituen jarraitzaileen gozamenerako.

Kontzertu bukaeran nekatu xamar igarri genituen taldekideak, baina hala ere entzuleen eskaerei kasu eginez bi aldiz irten ziren atzera ere eskenatoki gainera. Ordu eta erdi inguruko ikuskitzuna eskaini zuten Ken Zazpikoek eta batzuk gehiago nahi izan arren, aseta laga zituzten bertaratutako jarraitzaile gehienak.



JOSETXO ARANTZABAL

EÑAUT ELORRIETA
KEN ZAZPIKO ABESLARIA

"Publikoa hasiera-hasieratik gurekin egon zen, kanta guztiak abesten"

Arrasateko antzokia euren aurreko bisitan adina goxoa iruditu zaio.

Pozik zoazte Arrasatek?

Bai, oso pozik. Oso gustura egon ginen kontzertuan, eta publikoa hasiera-hasieratik gertuan sentitu genuen, kantak abesten, berrienak ere bai...

Oso desberdina izan dira honako kontzertua eta 2006an Amaian egin zenuten hura?

Antzokiaren oso oroitzen onak genituen; orain esperientzia askoz handiagoa dugu, baina orduko magia du oraindik guretako Amaia antzokiak. Guretako oso areto goxoa da, eta soinu aldetik bikaina da.

Denon ahotan dauden gaiak aipatu zenituen kontzertuan: 15-M, hauteskundeak, Strauss-Kahn...

Bai. Ukitzen gaituzten gauzez berba egiten dugu abestietan, eta horrek egiten du kontzertu bakoitza berezi.

2006an, Kanpanzarren ospakizuna egin zenuten, bueltan. Eta orain?

[Barre]. Nik goiz jaiki behar izan dut biharamunean eta ez nuen larregi ospatu, baina badakit batzuk kalean geratu zirela.

Hitz gurutzatuen binakako lehiaketan izena eman daiteke

Bergaran ospatuko den UEMA egunean, Hitz Gurutzatuen Binakako I. Lehiaketa jokatuko dute, Udalak eta UEMAK antolatuta eta Luma hitz jokoak elkartearen laguntzarekin. 16 urtez gorako (2011n 16 urte betetzen dituztenak barne) edozeinek har dezake parte eta paperezko hiztegi eta lagungarriak erabili ahal izango dira.

Parte hartzeko, www.bergarakoeuskara.net webgunean agertzen den izena emateko orria bete behar da. Horretarako epea 2011ko maiatzaren 31ra artekoa da.

Hip-hop sutsua, reggae zertzeladekin, Kodigo Norte taldearen eskutik

Oraingo egunean, maiatzak 26, Gasteizko Kodigo Norte hip-hop estiloko taldeak emanaldia egingo du Arrasateko Gaztetxean, Kooltur Ostegunen programaren barruan. Sarre-ra 5 euro da.

Reggae-a eta hip-hop-a nahasten dituen talde hori *One Love/One Shot* diskoa, bere hirugarrena eta berriena, aurkeztera dator. Taldekoen arabera, disko berri hori "helduagoa eta musikalagoa" da, baina era berean "sutsuagoa eta konprometituagoa" ere. Eurek editatutako lana da, gainera.

Taldea 2003an sortu zuten, lau kide dira eta batik bat gartzelaz abesten dute.

Goiena komunikazio taldea kooperatiba elkartea

BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Data: 2011ko ekainaren 9an, eguna.

Ordua: 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenan.

Tokia: Arrasateko Kulturateko Jokin Zaitegi gela.

GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. Kooperatibaren izen aldaketa berrestea.
3. 2010eko ekainaren 22ko batzar nagusiaren aktaren onarpen txostena irakurtzea.
4. 2010eko kudeaketaren memoria azaltzea.
5. 2010eko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
6. Zaintza batzordeko kideen txostena irakurtzea.
7. Bazkide ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Bazkideen ekarpenen eguneraketa.
9. 2011ko kudeaketa plana eta aurrekontuak aurkeztea.
10. Galderak eta eskaerak.

Estepan Plazaola Otadui
Arrasaten, 2011ko maiatzaren 18an

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA



The Boys taldeko kideak, zapatuan Jam aretoan. | JOSETXO ARANTZABAL

Hiru talderen rock doinuak nagusitu dira Jam aretoan

Golpe de Estado izan zen lehena taularatzen

ASIER ALKORTA | BERGARA

Jam aretoa guztiz bete ez bazen ere, zapatuko rock kontzertuak ikusten nahikoa jende egon zen. Hiru talde izan ziren oholtzara igo zirenak: Golpe de Estado, The Boys eta The Cute Lepers. Ema-

naldia 00:00etarako amaitu zen, atzetik Disko Festa zegoen eta programatuta.

20:50ean hasi ziren kontzertuak, Oñatiko Golpe de Estado taldearekin. The Boys punk talde klasikoa zen karteleko erakarpen nagu-

sia, eta eurengandik zale gehienek espero zuten emanaldia egin zuten Londresko musikari veteranoek. Seattleko The Cute Lepers taldeak ere jo zuten.

Ordutegi aldetik estu samar ibili zirela esan du Xabi Elortza Golpe de Estadoko kideak: "Hiru taldeok 00:00etarako amaitu behar genuen eta alde horretatik nahiko estu ibili ginen, baina bestela dena ondo joan zen".

Abesti berriak prestatzen

Kontzertu hau eman eta gero, datozen hilabeteetan beste kontzerturik emateko asmorik ez dutela esan du Golpe de Estadok. "Orain abesti berriak prestatzen gabiltza eta momentuz ez dugu kontzerturik joko; prestaketa lanetan gabiltza".

Beraz, abesti berriak sortu eta osotu bitartean, Golpe de Estado taldearen jarraitzaileak lan berriaren zain egon beharko dute.

Behin lan berria kalean dute, berriro oholtza gainera igoko da talde oñatiarra. Rock doinu kementsuak eskainiz, taldeak ez die hutsik egingo jarraitzaileei.



Vocalia taldea, abesten; ezkerretik hirugarrena, Amaia Igartua kide oñatiarra da. | JOSETXO ARANTZABAL

Ama Birjinaren omenezko kantaldi aparta Bidaurretan

Vocaliak, emakumezko euskal abesbatza onenetako batek gustura utzi zituen entzuleak

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Bidaurretako monasterioa berotasunez eta esker onez bete zuten oñatiarren txalok zapatu arratsaldean, Vocalia abesbatzak egindako aparteko emanaldia bukatuta. Basilio Astulez zuzendariak banan-banan aurkeztu zituen piezak, eta herritarrek bakoitzaren ostean oparitu zizkieten merezitako txalok abesbatzakoei.

Amaia Igartua soprano oñatiarra Vocalian dago 2006tik. Taldeak lehenengo aldiz abesten zuen Bidaurretan; klaratarren 5. mendeurrenagatik izan da kontzertua. "Hemen abesteko aukera polita zen, eta gu oso gustura ibili gara", esan zigun kontzertua eta gero.

'Maria Mater' diskoa

Urteurrena eta lekua kontuan hartuta, Ama Birjinaren ohorez-

ko abestiak aukeratu zituen Vocaliak. Gehienak iaz grabatu zuten *Maria Mater* diskoko abestiak ziren; kantu laburrak gehienak, xamurrak, gustura entzutekoak eta giro berezia sortzen lagundu zutenak; birtuosismoa eta erronka teknikoak alde batera utzi gabe. Hala, Vocaliako emakumeek euren ahots zoragarriak eta, batez ere, haiek erabiltzeko duten talentua eta gaitasuna erakutsi zuten, Maider Bilbao piano-jolearen lan bikainak lagunduta.

Hiru ordu laurdenak aguro pasatu ziren, eta, entzuleek euren txalokin hala eskatuta -*bravo*-ren bat ere entzun zen jesarlekuetatik-, bis labur bat ere egin zuten.

Sentimenduz betetako emanaldiarekin Mahaster River taldeak zaleei agur esan die

ASIER ALKORTA | BERGARA

Zapatuan gaztetxean egin zuten emanaldia "sentimenduz betetako" izan zela esan du Mahaster River taldeko Unai Azkaratek. Kontzertu horrekin taldeak "betirako" agertokiak utzi dituela baieztatu du. Emanaldia ikustera 100 lagun inguru gerturatu ziren.

Mikel Garatek bere lana jendaurrean aurkeztu eta gero, Mahaster River taldeak ohol-tza bere egin zuen, azken aldiz. "Oso ondo joan zen kontzertua eta orokorrean gaua polita izan zen; sentimendu handikoa".

Zapatuko taldeak eskaini zuen azken kontzertua izan zen. "Nik esaten dudan moduan, zapigarren azken kontzertua izan da. Orain, aldiz, benetako azkena izan da, ez dago gehiago".

Taldearen azken diskoan parte hartu duten kolaboratzaileak ere han izan ziren: Olaia Ramos, Mikel Ilardui *Xarti* eta Mikel Garate.

Dirua, Magalirendako

Lortutako dirua Magali Murua-mendiarratzen izan zen. "Sarrerak hiru euro balio zuen eta 200 euro inguru lortu ziren", esan du Azkaratek.



Mahaster River taldeko hiru kideak, zapatuko azken kontzertuan. | J.A.

HELBURUA: BIRMOLDATZEA - GUTXITZEA

Tratamendu pertsonalizatuak

- KABITAZIOA
- DERMAJECT
- PALPE - ROULE
- FANGOTERAPIA
- BAKUNTERAPIA
- MESOTERAPIA MEDIKOA

Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073


DENBORALDIKO
PROMOZIOAK

Kontsultatu
konpromiso barik

Amagara

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Gremioen gida



Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida




Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE MUSIKA TALDEAK

LA BANDA DEL ABUELO



La Banda del Abuelo arrasatearrak Itxungi Rock jaialdiko zuzenekoan. | LA BANDA DEL ABUELO

"Doinu berriekin esperimentatzea eta inprobisatzea gustatzen zaigu"

- ▶ 'Las moscas lo devorarán todo' proiektuari musika jarri diote
- ▶ Zenbait abesti berri dituzten arren, zuzenekoetan soilik jotzen dituzte

MAIDER ARREGI | ARRASATE

La Banda del Abuelo arrasatearren rock tribala eta espageti rocka ez da oharkabean igarotzen. Zuzeneko indartsu eta intentsuek publikoa ase egiten dute, eta badakite nola erakarri. Engantxatu egiten dute; zerbait berezia eta era berean gertukoa eskaintzen dute agertokian.

Zuzenekoetan dena ematen duzue.

Jendeak ondo pasatzea da gure helburua, eta, noski, guk haiekin! Inguru hau nahiko hotza da, baina Bizkai aldean jo dugunean,

AHTko kanpaldian, esaterako, beste mugimendu bat dago... jendea dantzan eta saltoka... horrekin disfrutatzen dugu guk ere.

Rock tribala, espageti rocka egiten duzue.

Bai; instrumentu ezberdinekin doinu berriak esperimentatzen eta inprobisatzen ditugu. Ukitu ezberdina ematen diogu zuzenekoari. Gainera, gu ere karakterizatuta, paperean sartuta irteten gara taula gainera.

Las moscas lo devorarán todo errezitaldiari musika jarri diozue.

Sor Kanpana-rekin harremana

geneukan eta haren poemak musikatzeko aukera eskaini zigun. Zer edo zer melodikoa, suabea egin nahi zuten eta guri primeran iruditu zitzaigun! Gure estilo eta abestiei beste indar eta intentsitate bat eman diegu poema errezitaldira egokitzeko.

Poema oso indartsuak eta gogorak dira, barruraino iristen diren horietakoak.

Gure musikarekin giro eta atmosfera egokia jartzea lortu dugu. Gitarra edo bateria topera jo beharrean, beste kutsu bat dute kantuek. Ahotsa eta poesia dira garrantzi-

tsuenak. Gabezia, karentzia batekin, malenkonia kutsuko abestiak egin ditugu poesiekin bateratzeko. Sekulako *feeling*-a izan dugu *Kutxi* eta *Sor Kanpana*-rekin! Errezitaldia www.myspace.com/labandadelabuelo webgunean duzue osorik. **Giltzapeko bihotza kantuaren zuzeneko ere jaso duzue.**

Bai; gure abesti zaharretako bat da. Zuzenekoetan jotzeko nahiko zaila daukagu kontu teknikoengatik. Aukera Antzuolan izan genuen, eta, aurretik zintzilik geneukanez, DVDan sartu dugu. Bardean grabatutako *Malpaso* kantuaren bideoklipa ere badakar DVDak.

AHTren kontrako aldarrikapena da?

Bai. Paralelismo bat egin nahi izan dugu Ameriketako indioei gertatu zaienarekin. Hemen ere AHT gure lurretatik pasatzen dela irudikatu dugu *Malpaso*-n.

So 'ik' so libre y salvaje, Ruperri omenalditxoa?

So 'ik' so, oñatiarrari hartu diogu; *libre y salvaje*, berriz, *Malbe*, Bedoñako artzainari. "Larrea eta ura libre", zioen hark. Garai baten, larreen arteko hesirik ez zegoen; askatasun hori aldarrikatu gura dugu guk ere.

Itokiñak kantuari txalapartak oso ukitu berezia eman dio.

Euskal Herriaren gainean hitz egiten dugu eta txalapartaren laguntzarekin ur tantak, itoginak, irudikatzen ditugu. Baserrin baten egoera, bizitza kontatzen du aitaita batek. Pixkanaka bere baserria desagertuz, hondatuz doala.

ZERTZELADA



'LAS MOSCAS LO DEVORARÁN TODO'

Estiloa: Poema errezitaldia.

Egilea: 'Sor Kanpana' eta 'Kutxi'.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 20 minutu.

Barru-barruraino sartzen diren mezuak

Eskaermentu handia dute *Kutxi* Romerok eta *Sor Kanpana*-k agertokian; badakite publikoaren arreta erakartzen eta hura zirikatzen. Musikari eta idazle ausartak dira. Horren fruitua errezitaldiak batzen dituen poema gogorak, intentsuak dira... barru-barruraino iristen diren horietakoak osatzen dute *Las moscas lo devorarán todo* poesia errezitaldia.

La Banda del Abuelo arrasatearrek asmatu dute jarri dioten malenkonia doinuarekin. Didjeridua, gitarra, harmonika, marakak... poema zurrumbilo horien oinarri dira emanaldian. Taldearen ekarpena oso aberatsa da eta errezitaldiko interpretazio gordinaren ezinbesteko bidelagun dira arrasatearrak.

MAIDER ARREGI

Webaren sortzaileak Internet askea defendatu du baina ez doakoa

Internet eta teknologiei buruzko mundu mailako kongresuan hitz egin du Bilbon Tim Berners-Lee zientzialariak, 'Interneten aitak'

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Interneten aitatako bat hizlari izan zen joan zen astean Bilbon, Web Summit izeneko mundu mailako topaketetan. Harena izan zen kongresuko berbaldi nagusia eta interneten askatasuna defendatu bazuen ere, doakotasuna zalantzan ipini zuen bi mila pertsonaren batu zituen hitzaldian.

"Gobernuaren kontrolaz edota merkataritza legeez gain" bestelako muga bariko internet sarea defendatu zuen Berners-Leek. Internet askea bai baina ez doakoa, ze zientzialari britainiarrak uste du "eduki asko" dagoela sarean eta "horiengatik ordaintzea zentzuzko" deritzo, zehaztuz "askatasunaz hitz egiten" duela baina "ez doakotasunaz". Harentzat Txinakoa moduko gobernuak "Interneten etsai" dira baina baita ere "arrazoi komertzialak direla medio sarea oztopatu edota moteltzen" dutenak. Mugarik ez, beraz, eta sarbide unibertsala, ze harentzat "etorkizunean herrialde txirotu eta aberatsen arteko arraildura ez dute soilik urak ala osasun zerbitzuek eragingo, baita Interneterako sarbideak

ere". Etorkizunean Interneterako sarbidea giza-eskubide moduan ikusten du hark. Interneten zabal-kundea oztopatzen, halere, "ez dago garapen teknikoak baizik eta politika, erregulazioetatik edota interes pribatuetatik etor daitezkeen presioak".

Datu publikoak herritarrentzat eskuragarri egitea ere defendatu zuen, Gobernuak agerikoago egin eta funtzionamendua hobetzeko. Harentzat "datuek balio handiago hartzen dute Interneten" eta zabal-kunde horretan erakundeak animatu zituen.

Datuak bakarrik ez, analizirako txostena ere herritarren eskura ipini behar dituzte bote-

re publikoek Berners-Leek azaldu zuenez. Horren adibide moduan GPSaren zabal-kundea bera ipini zuen zientzialariak, negozioetarako sor daitezkeen aurkerak ere azpimarratuz.

Askatasuna eta pribatutasuna

Askatasuna eta datuen askatzea batetik eta bestetik, erabiltzaileen datuen pribatutasuna defendatu zituen azkenik hitzaldian Berners-Leek. "Ez bakarrik erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko bizik eta errespetua ezinbestekoa delako sarea hazten jarrai dadin", argitu zuen.

"Interneten aita"

Gaitzizen hori sarearen zabal-kunde globalerako ezinbestekoak izan diren *http* protokoloaren, URL lokalizazioaren eta HTML hizkuntzaren sortzailea delako ematen zaio. Bi ideia horiek ezinbestekoak izan dira gaur egun darabilgun sarearen eraketarako. Gaur egun *World Wide Web Consortium* delako erakundearen buruetako bat da. *Sareen sarearen* segurtasuna eta egonkortasuna zaintzen da bertatik.

ESANAK

Datuek balio handiago hartzen dute Interneten"

TIM BERNERS-LEE | ZIENTZIALARIA

Azkarren saldutako 'kontsola eramangarria' da iPhonea, baita jokalaria gehien dituen ere


J.B. | ARRASATE

Historian azkarren saldu den eskuko bideo-joko kontsola da iPhone-a eta, hala, Guinness mundu errekorra lortu du Applen *smartphone*ak. Gailu eramangarria telefonoa izateaz gain, PSP edota Nintendo DS-a bezala, eskuko kontsola moduan har daiteke gailuaren erabilpena kontuan hartuz gero. Inkesta baten arabera, 63 milioi erabiltzailek jolasten dute iPhonearekin zerbitzuak eskaintzen dituen milaka jolasekin. Estatu Batuetan eta Europan egin dute inkesta hori eta erabiltzaile horiek guztiek, antza, denbora

gehiago ematen dute telefonoarekin jolasean, bestelako erabilpenetan baino. Hori gutxi balitz, egunero jolaserako 5 milioi aplikazio jaisten dira Apple Storetik.

Jolaserako telefonoa

Newzoo hedabide espezializatuak ere azterketa egin du eta diotenez, bi joku eta erdi deskargatzen ditu erabiltzaile tipikoak hilean eta %88 doakoak izaten dira. Kontsola eramangarrien arteko joku salmenta osoaren %40, hain zuzen, Apple Storetik egiten da. iPaderako %10 besterik ez, momentuz.



Apple Storeko irudi bat. | GOIENA

Europar saltzen diren mugikorrek geolokalizazioa desaktibatu beharko dute

Erabiltzailearen onespenerarekin soilik aktibatu ahalko ditu sistema eragileak zerbitzu horiek

J.B. | ARRASATE

Zenbait telefonok defektuz geolokalizazioa aktibatuta dakartela jakin zenean asaldura piztu zen erabiltzaileen artean horrek eragin ditzakeen pribatutasun eta segurtasun arriskuak larrituta. Izan ere, zenbait zerbitzuek sistema operatzailearen enpresari bidaltzen dizkie zuzenena datu horiek.

Babeserako erakundeak

Datuen Babeserako Europako erakundeak, baina dagoeneko diktamena zabaldu dute hori galaraziz eta erabiltzaileak berak eskuz aktibatu beharko ditu zerbitzuok nahitaez. Diktamen horren arabera, telefonoa saltzerakoan sistema eragileak defektuz desaktibatuta izan beharko du geolokalizazioa eta enpresak datu horiek jaso behar baditu, erabiltzailearen onespenerarekin egin behar duela modu "argi, oso eta ulergarri baten ohartarazita". Geolokalizazio sistema horien bitartez sistema eragilearen enpre-

sek (Apple edota Googlek, esate baterako) adibidez erabiltzailea zein ospital, merkataritza gune edota manifestaziotan aurkitzen den jakin dezakete eta haren ohitura zehatzen berri izan.

Gomendioak

Galarazpen horrez gain, batzordeak gomendioa ere ematen du geolokalizazio sistema indarrean izanda ere tartean behin erabiltzaileari gogoraraztea aukera hori martxan dagoela eta bere datuak biltzen dabiltzala ikusteko moduan dagoen ikono baten bitartez. Lan esparruari dagokionez, zehaztapena egiten du diktamen berriak esanez langileek sistema horiek erabiliz gero soilik erabili ahal izango direla ongi justifikatutako helburuetarako. Azkenik datu horien bilketak epe baten barruan egin beharko dira eta hori ere jakinarazi. Estatuen arabera sartuko da indarrean neurri hau baina Espainiako agentziak bat egin du diktamenarekin bere osotasunean.

Klasikoak doan deskargatzeko ipini ditu wLe Figarok

J.B. | ARRASATE

Frantziar literaturako klasikoak liburu digital bihurtuta eta irakurleen eskura ipini ditu Le Figaro egunkariak ekimen berritzaile eta entzuetu batekin eta Apple etxearekin elkarlan estuan.

Maupassant, Dumas edota Corneilleren lanak, besteak beste, doan deskargatzeko moduan ipini ditu Le Figaro egunkari frantziarrak. Literaturako ezinbesteko horietako batzuk dira egunkariaren arabera eta deskarga digital moduan eskaintzen dituzte, doan, iTunesetik jaisteko moduan. *iBibliothèque* dauka izena aplikazioak eta iPhone, iPad eta iPod Touchetarako balio du. Guztira, 160 megatan 110 liburu eskaintzen dira Balzac, Baudelaire, Diderot eta Marivauxenak, esaterako. Obra osoez gain, gehigarriak ere eskaintzen ditu aplikazioak testu iruzkinekin eta biografiekin. Obra ezagunen kasuan gainera zatiak ere jasotzen dira audio formatuan pasarte ezagunenak erreproduzitzen.

Euskal Telebistako eduki guztiak sarean aurki

J.B. | ARRASATE

EITB Nahieran izeneko zerbitzua aurkeztu berri du EITB taldeak; webgune bat, internet bidez telebista ikusteko, emisioen artxiboarekin. *Eitb.tv* da helbidea.

Ekainaren 14ean egingo dute aurkezpen ofiziala eta orduan egongo dira eduki guztiak eskuragarri. Telebistako programa guztiak batuko dira bertan, artxibo moduan eta baita ere telebista zuzenean ikusi. EITB-ren jabetzakoak diren filmak ere emango dituzte streamingean eta doan.

Hortaz, *Eitb.com*-en bideo solteak emango dituzte eta *Eitb.tv* atarian programa osoak egongo dira ikusteko moduan.

Horrekin batera iPhone eta Androiderako aplikazioak ere garatu dituzte eta horiek ere aurki deskargatu ahalko dira. *Eitb.com* atariak ere itxura laister berrituko du. Ekainean aurkeztuko dute atari berria eta umeei zuzenduriko atal berezia ere egongo da webgunean bertan.

Behera egin du ordenagailuen salmentak

Aurtengo lehen hiruhilekoan %18 jausi da ordenagailuen salmenta. Jaitsiera nabarmena da hori mahaigaineko ordenagailu zein eramangarrietan mendebaldeko Europa osoan eta ehuneko handiago da kontsumo pribatuko datuei begiratuz gero %25eko jeitsierarekin. Eremu profesionalen %8 egin dute behera salmentek. Guztira, 14,71 milioi ordenagailu saldu dira 2011ko lehen lauhilekoan. Analistek krisiaren eragina aitatzten dute arrazoi nagusi moduan.

Tuentiko eguneraketan Twitterera ere bidal daitezke aurerrantzean

Facebooketik aspalditik egiteko aukera egon den moduan, dagoeneko Tuentiko egoera eguneraketak ere Twitterera zuzenean bideratzeko modua dago. Automatikoki eguneraketak bidaltzeko "Nire kontua" izeneko aukera konfigurazioa aldatu eta zuzenean publikatu du hortik erabiltzailearen twitterreko kontuan. Desaktibatuzko aukerari emanda ere zuzenean kenduko da zerbitzua eta lehenago zegoen egoerara itzuliko da Tuentiko kontua.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Ikuslea da protagonista

Orain dela gutxi arte, jende profesionala arduratu izan da telebistako edukiez, baina, aspaldi honetan protagonistak beste batzuk dira. Gu geu, alegia. Ikuslea.

Orain arte, publikoa lehiaketetan bakarrik ikusi dugu; egun, publikoaren bizitza ere ezagutzen hasi gara. Horren aitzindaria Cuatro telebista kateko *Callejeros* izan da. Bertatik, formatu bereko beste saio batzuk agertu dira: *Espanoles en el mundo* edota *Objetivo Euskadi*. Horrelako programek izandako arrakastaren ostean, kate guztiak antzeko formatuak egiten hasi dira: *Quien vive ahí*, *Bares qué lugares*, *Callejeros viajeros*, eta udarako formatuak ere bai: *Ola ola* saioa, adibidez.

Saio horiek guztiek pertsona anonimoen bizitzan kuxkuxean ibiltzeko balio dute, atzerrian ditugun lagunak ere bisitatzen ditugu etxetik mugitu gabe.

Gizakia kuxkuxeroa da eta kuxkuxean ibiltzea ez da inoiz hain erraza izan. Horrelako saioekin jendearen pribatutasuna murrizten ari da, baina, dirudienez, ez zaigu gehiegi axola. Gainontzekoen bizitzan sartzen garen bitartean, gu gara protagonistak.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 23



Hauteskundeek biharamuna

19:45

Hauteskundeek eman dutena jasoko dugu gertu-gertutik *Magazinea* saioan. Arritxu Barruso izango da aurkezlea.

13:05 Marrazki bizidunak
13:30 Kantari
14:05 Berbetan
14:45 Berriak
15:05 Klik
15:45 28.Klip
16:15 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:15 Erreportajea
17:45 Bi tartean
18:15 Ikusmira
18:30 Leku txiki bat
18:35 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 24



Dekorazioari buruzko saioa

20:45

Goierri telebistak ekoiztutako dekorazioari buruzko *Bizitegia* saioa estreinatuko dugu Goiena telebistan, martitzenean.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:20 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Ikusmira
16:15 Hamaika.bit
16:45 Berriak
17:15 Solasaldiak
18:00 Ikusten
18:15 Ikusmira
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Bizitegia
21:15 Magazinea
22:15 Harmailatik
23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 25



Gaurkotasun kontuak hizpide

19:45

Monika Belastegiren gidaritzapean, gaurkotasun kontuak izango dituzte berba gaur gonbidatuek *Tertulia* saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:45 Hamaika.bit
16:15 28.Klip
16:45 Berriak
17:15 Bizitegia
18:20 Gipuzkoa kultura
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Magazinea
22:45 Tertulia
23:45 Magazinea

EGUENA, 26



'Gipuzkoa kultura'

22:15

Artelekun dagoen *Sistematurgiak* tailerra ezagutzeko aukera izango dugu, besteak beste, aste honetako saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Hamaika.bit
15:45 Tertulia
16:45 Berriak
17:15 Ur eta lur
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Bizitegia
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Magazinea
23:45 Solasaldiak

EGUBAKOITZA, 27



Imuntzori elkarrizketa

15:45

Imuntzori egindako elkarrizketaz gozatu ahal izango dugu egubakoitzean Erlo telebistak ekoiztutako saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Leku txiki bat
16:00 Hamaika.bit
16:30 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Berbetan
17:45 Ipupomamua
18:15 Leku txiki bat
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Magazinea
22:15 Bi tartean
22:45 Tertulia
23:45 Bizitegiaw

ARRASATE IRRATIA

Hauteskundeek balorazioa jasoko dugu gaur, astelehena

Atzoko hauteskunde egunaren ostean, Debagoieneko herrietan hauteskundeek emandakoa jasoko dugu 107.7ko uhinetan; bereziki, Arrasaten gertatutakoa. Datuak jakin ostean izandako erreakzio eta balorazioak ere ekarriko ditugu gurera. Hori guztia eta gehiago, 10:30ean hasita.

Garagardo festaren xehetasunen berri Arrasate Irratian

Garagardo festa iristear da Arrasatera eta horren berri izango duzue guztiok Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan. Non izango den, ordutegia, zenbat garagardo dastatzeko aukera egongo den... denetarik entzun ahal izango dugu 107.7ko uhinetan.

'Kodigo norte' taldea entzuteko sarrerak ditugu zozketan

Kooltur ostegunak egitasmoak antolatuta, aste honetan Kodigo Norteren musika izango da entzungai gaztetxean. *Mondo Flurss* haurrendako antzerkirako sarrerak ere badauzkagu irratan. Beraz, hartu parte zozketan: deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Zorte on.

TELE-ALBISTEAK

Hauteskundeek balorazioa gaur 'Magazinea' saioan

2011ko udal eta foru hauteskundeek Debagoienean eman dutena berba gaur

A.T. | ARRASATE

Hauteskunde egunaren biharamunean, heldu da balorazioak egiteko garaia. 2011ko udal eta foru hauteskundeek bailaran emandakoa jasoko dugu gaur, astelehena, Goiena telebistako *Magazinea* saioan, 19:45ean.

Atzo, domeka, zuzenean eskainitako saioaren ostean, gure bailarako bederatzirrietan alderdi politiko bakoitzak herritarren aldetik jaso duen babesa zein den gogoratuko dugu. Protagonisten lehenengo hitzak ere eskainiko dizkizuegu eta denetarik iritzi eta balorazioak jasoko ditugu, ondoren horiek guztiak zuei helarazteko.



Arritxu Barrusok aurkeztuta. | I.T.

Beraz, hauteskundeek non-dik norakoak gertu-gertutik jarraitzeko bidea izango duzue gurekin, orain arte bezala, *Magazinea* saioan, gaur, astelehena.

Realari buruzko mahai-ingurua 'Harmailatik'-en

A.T. | ARRASATE

Zapatu gauean Anoetan hil edo biziko partidua jokatu ostean, Realari buruzko mahai-ingurua egingo dugu *Harmailatik* kirol saioan.

Talde txuri-urdinaren denboraldiko errepasoa egingo dute, besteak beste, gonbidatuek, Xabi Urtzelaireren gidaritzapean.

Ohorezko erregional maila

Futbolarekin jarraituta, Debagoieneko ohorezko erregional mailan dauden taldeen berri ere emango dugu. Asteburuan denboraldiko azken-aurreko partidua jokatu dute, eta, beraz, hurrengo asteburukoarekin denboraldia amaitutzat joko dute. Gertutik jarraituko ditugu, bada, astelehenean, Aretxabaleta, Bergara, Arrasate eta Oñatiko taldeek asteburuan egindakoa.



Realaleko jarraitzaileak. | WORDPRESS

Bestelako kirolak

Futbolaz gain, bestelako kirolak ere izango ditugu berba gaur *Harmailatik*-en.

Asteburuan gure bailarako herrietan izan diren bestelako kirolen irudiak erakutsiko dizkizuegu, eta, horrez gain, herrietan gertatutakoaren berri emango dizuegu. Hori guztia astelehenean, 20:45ean.

Tertulia saioekin itzuliko gara eguaztenean 20:45ean

AMAIA TXINTXURRETA | DONOSTIA

Udal eta foru hauteskundeak pasatuta, ohiko programaziora itzuliko gara; hain zuzen ere, eguaztentean *Tertulia* saioa eskainiko dugu.

Aste honetako *Tertulia* programan gaurkotasuneko gaiak jorratuko ditugu. Horretarako, beti bezala, Goiena telebistako platora hainbat gonbidatu ekarriko ditugu, eta aste honetan solasaldia gidatzen Monika Belastegi izango dugu.

Puri-purian dauden gaien berri egingo dute berba; beraz, gure platora etortzen diren pertsonen eta nork bere iritzia emateko aukera izango dute, beti bezala. Gogora ezazue eguaztentean izango dela *Tertulia*, 20:45ean, Goiena telebistan.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Maximo Uribesalgo
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak, aita, aiteita! Egun ona pasatu, gustora ospatuko danok-eta. Animo eta aurrera! Patxo pila etxekuen partetik.



OÑATI
Hegoa Larrea Negeruela
Maiatzaren 29an, 5 urte. Zorionak zuri, zorionak beti... Txokolatezko bost patxo zuretzat, maitte zaitugun danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunian.



ARRASATE
Iñigo Arizmendiarieta
Maiatzaren 28an, 13 urte. Zorionak, mutikote! Egun zoragarri bat pasa dezazula lagunekin eta etxekoekin. Aita, ama eta Aritzen partetik.



ARRASATE
Oihana Jausoro Agirre
Maiatzaren 28an, 35 urte. Zorionak, tia Oihana! Mendiolan zelebraukou aurten zure egune. Auzoalanaren ostien sekuleko parranda botakou. Patxo bat zure iloben partetik, Olatz, Nelson, Paulo, Danel, Xabat eta Nora.




ARETXABALETA
Alaitz Beltran de Heredia Altube
Maiatzaren 28an, 12 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu eguna eta halaxe jarraitu aurrera.



OÑATI
Artiom Erostarbe Igartua
Maiatzaren 26an, 4 urte. Zorionak, txiki! Danon partetik, muxu handi bat eta oso ondo pasatu zure egunean, *xinpatiko!*



OÑATI
Izar Isasti Azkoitia
Maiatzaren 25ean, 2 urte. Zorionak, *prexiola!* Akordau orduko bete ditzuzu 2 urtetxo. Txokolatezko patxo pila etxeko danon partetik bereziki aitaxo eta amatxoren partetik. Egun ederra pasa ezazula. Muxuak!



BERGARA
Ander Oregi Alberdi
Maiatzaren 25ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi-handi bat Maddi, aitaxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
Garazi Zabaleta Kortazar
Maiatzaren 25ean, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Egun polita pasa dezazula eta txokolatezko muxu pila etxeko danon, eta bereziki, loritzen partetik.



ARETXABALETA
Xabier Perez Gaztañaga
Maiatzaren 22an, 8 urte. Zorionak, Xabi! Ondo pasatu zure eguna! Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta lkeren partetik.




OÑATI
Aitor Lasagabaster
Maiatzaren 22an, 12 urte. Zorionak eta patxo handi bat amatxo, aitaxo eta amamaren partetik.




OÑATI
Irati Mendizabal Altzelai
Maiatzaren 22an, 3 urte. Zorionak zuri, zorionak beti... Maite zaitugu! Patxo handi bat aitaxo, amatxo, Maialen eta familia guztiaren partetik!



BERGARA
Idoia Martinez Altube
Maiatzaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Idoia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, makarroiako muxuak etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Luken Okarantza
Maiatzaren 21ean, 3 urte. Zorionak, Luken, zure familia guztiaren partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Maite zaitugu!



OÑATI
Liher Errasti Urrate
Maiatzaren 21ean, 2 urte. Zorionak, *prexiola!* eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu zure bigarren urtebetetze eguna zapatuan ospatukun bazkaixan. Txokomarrubizko mila muxu etxeko danon partetik.



ESKORATZA
Zuhaitz Legorburu Ezeiza
Maiatzaren 21ean, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo asko eta besarkada handia etxeko denon partetik. Amama, tio eta Ilargi. Mua!



ANTZUOLA
Nora Rodriguez Larrañaga
Maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, Nora, *printxexi!* 6 urte eta 6.000 muxu! Etxekoak.



OÑATI
Nora Madina Zubia
Maiatzaren 20an, urtebete. Zorionak, *pitusa!* Patxo handi-handi bat etxeko danan partetik.



ARRASATE
Itziar, Fatima eta Fedek
Maiatzaren 19an urteak betetzen dituzte Itziarrek, Fatimak eta Fedek. Egun ederra plazako lagunekin pintxo-potean ospatzeko. Zorionak eta urte askotarako hiruroi!




ARRASATE
Ander Gonzalo Maria
Maiatzaren 19an, 2 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Etxekoan partetik.



ARRASATE
Araitx Etxabe Zubizarreta
Maiatzaren 19an, 27 urte. Egun polita pasa dezazula zure urtebetetze egunean, etxekoan partetik.



BERGARA
Maialen Jauregi Elorza
Maiatzaren 25ean, urtebete. Zorionak sorgintxo, etxekoan, Aneren eta laguntxoan partetik. Pa, pa eta pa.



ARETXABALETA
Alaitz Urzelai
Maiatzaren 18an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Muxu handi bat eta mila zorion etxekoan partetik. Patxoak.



ARAMAIO
Maren Vazquez Irizar
Maiatzaren 18an, 8 urte. Zorionak, marisorgin! Ia zortzi urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Laztan handi bat Eider, aitaxo eta amatxoren partetik! Pa!



ARRASATE
Julene Idigoras Amado
Maiatzaren 18an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat Hodeien partetik.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Samur, beratz	Egotzi, bota	Erraz ilun-tzen da
	Txekor	Arraila	Abiapuntu
	Leinu, etnia		
	Arrain mota		
Galtzarbe	*Alemania-ko hiriburua		
Soak	Borritzeko zerak		
Txanpon		Irudi geometriko	
Mingotsa		Galdetzaile bat	
			Oinarriko edari
			Kanpo, landa
Pagolako			
Lekura eramana			Bokala

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	U	L	V	R	U	K	E	L
R	V	L	O	G	P	A	F	A
R	U	V	N	I	M	V	S	
O	B	U	K	S	O	S		
K	V	D	V	R	I	G	E	B
N	I	L	R	E	B			
U	B	I	R	T				
L	V	A	X	T				
I	O	U						

BILA-BILA 7

ZORION AGURRAK



OÑATI Ekain Markuleta Inza
Maiatzaren 24an, urtebete. Zorionak zure lehen urtebetetzean. Patxo bat familia danan partetik.




OÑATI Iñaki Barrena Lete
Maiatzaren 24an, 5 urte. Zorionak, txapeldun, dagoeneko bost urte. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta txokolate goxoa prestatu joango gara jatera-eta.



ARETXABALETA Lur Artolazabal Martinez
Maiatzaren 24an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Hiru urte, ze handia! Oso ondo pasatu eta muxu handi-handi bat familia guztiaren partetik, maittia!



ANTZUOLA Naia Aranguren Gastañares
Maiatzaren 24an, 6 urte. Zorionak, Naia! Etxeko denon partetik, egun ona pasa dezazula. 6 urte jadanik!



ARETXABALETA Maddi Iturricastillo Elkoro
Maiatzaren 24an, 4 urte. Zorionak, printzesa, jada lau urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat familia guztiaren eta, batez ere, Peruren partetik.



OÑATI Ioseba Zabaleta Igartua
Maiatzaren 24an, 35 urte. Zorionak, lose! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potoloak etxeko eta bereziki loritz eta Garaziren partetik. Muxu!



OÑATI Eñaut Zubia Fernandez
Maiatzaren 23an, 8 urte. Zorionak familia guztiaren partetik zure zortzigarren urtebetetzian, maittia.



ARETXABALETA Rosi Saorin Perez
Maiatzaren 23an, 36 urte. Zorionak, tia Rosi! Aurten, zure urtebetetzea hemen ospatuko duzu eta zurekin egongo gara. Asko maite zitugu. Muxu asko. Ane eta Maider.



ARETXABALETA Aitzol Gallastegi Bengoa
Maiatzaren 23an, urtebetetzea. Zorionak, Aitzo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi-handi bat familia danan partetik.



ARETXABALETA Ander Uribarren Lasagabaster
Maiatzaren 20an, 7 urte. Zorionak zure urtebetetze egunean asko maite zaituzten familiako partetik.




ARETXABALETA Enara Zumarraga
Maiatzaren 20an, 6 urte. Muxu handi bat, maitia, Oier, Eñaut, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA Amair Kortabarría Iturbe
Maiatzaren 20an, urtebete. Zorionak Amair, jada urte bat. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo bat Malenen partetik.



ARRASATE June Ozaeta Abarrategi
Maiatzaren 20an, 8 urte. Zorionak, June! Besarkada bat eta mila patxo danon partetik: Danel, aitatxo, amatxo, amama, aitiba, Azkua jentia, Madril jentia... Egun zoragarria pasa dezazula, printzesa!



BERGARA Izar Karasatorre Basauri
Maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak eta muxutxuak etxeko guztiaren partetik. Ondo-ondo pasatu!



OÑATI Jon Zelaia
Maiatzaren 20an, urtebete. Zorionak, potxolo! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze egunean. Muxu handi bat familiako eta bereziki aitatxo, amatxo eta Paularen partetik.



ARETXABALETA Ekain Davila Gonzalez
Maiatzaren 20an, urtebete. Zorionak! Aitatxo eta amatxoren partetik, eta egun oso ona pasatu. Muxu bat.



ESKORIATZA Joxan Garzia Zapiain
Maiatzaren 18an, 36 urte. Zorionak, Joxan! Ospatuko dugu etortzen zarenean, ezta? Gesalibarko "Gazte Asanblada"-ren partetik.



ARRASATE Asier Zubiagirre Ugarte
Maiatzaren 20an, 7 urte. Jaso ezazu gure familiaren izenean zorion agurrik beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula, bihotz-bihotzez.



OÑATI Amair Gallastegi Agirrezabal
Maiatzaren 19an, 3 urte. Zorionak, txikitxo! Muxu handi bat eta ondo pasatu zure egunean.



BERGARA Iurgi Duque
Maiatzaren 17an, 25 urte. Zorionak, txumi! Ondopasatu zure egunian! Langutxiain, argazkixak atera eta disfrutatu, 25 "tako" egunero ez diela itxen! Danon partetik muxu handi bat!



ARRASATE Alida Bennett del Campo
Maiatzaren 16an, 2 urte. Zorionak!



Zorionak!

Internet
Sar zaitetz goiena.net atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu herria eta bete datuak.
Posta
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari batara.

JAIOTAKOAK

BABESLEA

IKUSI MAKUSI



Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Irati Sudupe Larrea
Antzuola 3,810Kilo. Maiatzaren 11. Gurasoak: Leire eta Ales. Argazkian, Irati sehaskan lo



Jon Alarcia Ortiz
Arrasate 2,700Kilo. Maiatzaren 16a. Gurasoak: M. Carmen eta Oscar. Argazkian, Jon sehaskan.



Ane Alarcia Ortiz
Arrasate 2,100Kilo. Maiatzaren 16a. Gurasoak: M. Carmen eta Oscar. Argazkian, Ane sehaskan.



Aroa Oruesagasti Aranburu
Abadiño 3,520Kilo. Maiatzaren 18a. Gurasoak: Leire eta Enaitz. Argazkian, Aroa aita eta anaiarekin.



Joel Murillo Campos
Bergara 3,5 Kilo. Maiatzaren 17a. Gurasoak: Erika eta Javi. Argazkian, Joel, aitona Juan eta aita Javirekin.



Saioa Gallastegi Visitacion
Bergara 3,610 Kilo. Maiatzaren 16a. Gurasoak: Maribi eta Asier. Argazkian, Saioa amamarekin.

AI, ENE!

Bainua hartzen ere, nabigatzeko

Eskuak zikinak ditugula edo bainua hartu eta Interneten ibili gura dugula? Tramankulu hau horretarako aproposa da. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Kanpamentuetan dauden pertsonak ETArekin kontaktuak dituzte"

CESAR VIDAL | KAZETARIA

Kazetari eta hedabide batzuen berri, adierazpen polemikoak egiten dituztenean bakarrik izaten dugu; are gehiago, badirudi adierazpenon helburu bakarra dela eurei buruz berba egitea. Gauza bat behintzat ezin ukatu: imaginazio soberan dute. **EsRadio**

EGURALDIA



Max. 25°

Min. 12°

Hodeiak desagertzen joango dira eta tenperaturak gora egingo du. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-05-23

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Ana Urrutia Ohituta gaude Bakion bizi den 39 urteko bilbotarra isobara, borrasca eta antizikloi artean ikustera; kamera aurrean ez badago, itsasoan aurkituko dugu, ziur aski, surf taulara igota. | TXOMIN MADINA

"Aldaketa klimatikoa badago; nik nabaritu dut itsasoan"

1. Atzo eguzkia iragarri zenuen, eta gaur euria ari du. Bronka asko jasoko dituzu?

Bronka handiak ez, baina komentarioak, seguru! Lanean, kalean... Jendeak badaki iragarpena dela, baina beti bilatzen da erruduna, eta normalean, neu naiz!

2. Euskal Herrian dugun eguraldi aldakorrarekin, merezi du arriskatzea?

Bai, merezi du, eta, gainera, iragarpena asko hobetu da. Ez gara asperten: datu gehiago bilatu, gehiago zehaztu... Eskaria egon badago; ikusleak zorrotzak dira, eta guk maila eman behar dugu.

3. Pertsiana igotzean, ze eguraldi aurkitzea gustatzen zaizu?

Hego-haizea, tenperatura 20 graduren bueltan eta zeruak berdindu. Garrantzitsuena da depresio sakona egotea, Bizkaiko Golkoan olatu handiak egoteko!

4. Aldaketa klimatikoa: egia ala gezurra?

Aldaketa badago, nik nabaritu dut: hamar urtetan, itsasoaren tenperatura hiru gradu igo da neguan. Erosoena da ardura politikariei botatzea, baina denok egin behar dugu zerbait gure etxetik hasita.

5. Eguraldia euskaraz emateko gogorik, asmorik, itxaropenik?

Bai, baina euskaldun berria naiz eta ikasten ari naiz oraindik. Egunen baten ezinbestean egin behar bada, bai noski: hizkuntza horrela ikasi behar da, lotsa barik.



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Bizkartzainak, tratu txarretatik babesteko"

"Gauza pila bat datozkit burura, baina, bat esatekotan, bizkartzain guztiak jarriko nituzke emakume mehatxatuak babesten. Nire ustez, gure gizartean dagoen arazo handi bat da: emakume asko daude beldurrarekin, eta horregatik ez dute salaketarik jartzen."

6. Eguraldia eta euskara erakutsi dizkizu Andoni Aizpuruk. Zernolako maisua da?

Oso ona, eta pazientzia handikoa! Laguna eta maisua izan da: hama-bi urte daramatza ondoan lanean, eta beti dago umore onarekin. Burugogorra da, baina ni ere bai!

7. Buruz esaten omen duzu iragarpen osoa. Memoria lantzeko gomendiorik?

Amak esan dit txikitatik memoria handia dudala. ETBn teleprompter barik hasi nintzen naturalagoa izateko, irakurtzen ari bazara araro geratzen da. Ez da memoria, plazara irten eta mapak ikusita hitzaldia botatzea baizik.

8. Surfa, noiztik eta zergatik?

10 urte nituenetik. Beti ibili naiz itsasotik gertu eta nire bost nebak surflariak dira; beti gura nuen eurek egiten zutena egitea. Orain surfa ez da kirol soila, droga hutsa da.

9. Eta nolako da marrazo artean surfeatzea?

Beldur handia ematen du. Australia aldean egon ginenean eraso mortala egon zen, eta kezkatuta geratzen zara. Baina auto-kontrola egin behar da: ez pentsatu, uretara sartu eta, hori bai, uretan adi ibili.

10. Bi alabak gustura egongo dira duten ama martxosoarekin...

Bai; martxosoa, gaztea... Baina ama izaten jarraitzen du, eta amak bronkak ere botatzen ditu!

BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE



Gaur, berriro astelehena

Hauteskundeetako emaitzak jakin baino egun batzuk lehenago idatzi dut zutabe hau. Hala ere, emaitzak emaitza, gaur berriro astelehena da, egunak argitu du, eta, atzoko arazoak gaur ere mahai gainean daude, irtenbideren baten bila.

Zerrenda luzea da. Azken egunetan plazetan batu diren haserretu edo suminduek gogorarazi dizkigute. Langabezia dela, lan baldintzak direla, etxebizitzaren arazoak, gizarte laguntzen murrizketa, desberdintasun sozialak... Haserre ez egoteko moduan!

Anti-sistema deitu diete batzuek. Eta orduan, gaur egungo sistemaren aldekoak zer dira? Nola definitu ditza-kegu?

Niri beste galdera bat bururatzen zait: ea egungo sistema honekin jarraitzerik baden. Norabidea zuzentzearekin nahikoa den, edo etxea bota eta berriro behetik hasi behar ote dugun beste era bateko bizimodua eraikitzen.

Gaurtik aurrera, balizko itunez eta gobernu osaketek hitz egingo da. Baina gobernuak hartzen duten kolorea hartzen dutela, ez ote dago hausnarketa sakonago baten beharra gurean, eta harata-ko ere bai, munduan.



ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA · OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA · ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

AURREMATRIKULAZIO EPEA EKAINAREN 1 ETIK 1 OERA

Orain da garaia!

943 77 20 25 // WWW.ARIZMENDIPRO.EU

ARIZMENDI
ikastola